



Bat-bateko bertsolaritza

Ahazkotasunak berebiziko garrantzia du Informazioaren Gizartean hain funtsezko diren komunikazio jardueretan.

Bertsolarien bat-bateko kantu jardunak, berriz, ahazkotasunaren emaitzik aipagarrietako bat izaki, ongi bai ongi asmatu du gizarte modu berrietara egokitzen, eta, hedabideetan lortu duen tokiari esker, ospe handiko informazio zirkuito alternatiboa da gaur egungo euskal gizartean.

Bat-bateko bertsolaritza bere konplexutasun osoan azaltzea da liburu honen helburua. Aurrenik, gaur egungo bertsolaritzaren ezaugarri sozio-kulturalen berri ematen da, luze-sakon, garai berrietara egokitu beharrak dakartzkion arrisku eta aukerei bereziki erreparaturik. Gero, bat-bateko bertsoa sortzeko gogo-prozesua aztertzen da xehe-xehe, bat-bateko sorkuntzaren estrategiak bistaratuz eta estrategion mugak aipatuz. Azkenik, orain arte erabili izan diren teoriari ahuleziak aipaturik, bat-bateko bertsolaritza aztertu eta ulertzeko marko teoriko berri bat proposatzen da, erretorika klasikoaren ildotik.

Bat-bateko bertsolaritza > Joxerra Garzia | Jon Sarasua | Andoni Egaña



Bertsosale EL-
kartea



Bertsolari
Liburuak


Bat-bateko bertsolaritza


Gakoak eta azterbideak

Joxerra Garzia

Jon Sarasua

Andoni Egaña





JOXERRA GARZIA GARMENDIA

(*Legazpi, 1953*). Filosofia eta kazetaritzan lizentziatua, Ikus-entzunezko komunikazioak eta publizitatean doktore da 1999az gero, *Gaur egungo bertsolarien balibide poetiko-erretorikoak* izeneko tesiari esker. Euskadi Irratian hasi zen bertsoa lanbide bihurtzen (1983-1988), eta gero, Bertsozale Elkartek bideratuta, Hitzetik Hortzera bertso-programaren sortzaile, zuzendari eta aurkezle izan zen Euskal Telebistan (1988-1993). Bertso-epaile lanetan eta kritikari moduan ere aritua, bertsolaritzari buruzko hainbat azterketa argitaratu ditu, aldizkarietan (*Bertsolari, Jakin...*) nahiz liburu gisa. Egun, publizitatea irakasten du EHUan, eta Bertsozale Elkartek ahozkoasuna eskolan lantzeko metodo bat sortzeko antolatu duen taldeko partaide da. Literaturan ere hainbat lan ditu argitaratuak. Euskal Idazleen Elkarteko Lehendakari izan zen 1993tik 1997ra.

JON SARASUA MARITXALAR

(*Arexabaleta, 1966*). Bertsolaria. Kazetaritza eta soziologia ikasketak egin zituen Bilbon. Informazio zientzietan doktore; 1996an aurkeztu zuen *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari* izeneko doktore tesia. Egun, pentsamentuaren historia irakasten du Mondragon Unibertsitatean. Besteak beste, *Argia, Jakin, Bertsolari* aldizkarietan eta *Euskaldunon Egunkarian* aurki daitezke bere artikuluak. Andoni Egañarekin batera, bertsolaritzari eta bertsogintzari buruzko hainbat hausnarketa biltzen dituen *Zozoak beleari* (Alberdania, 1997) saiakera liburua argitaratu zuen, eta honen ondoren, *Biziaren hizkuntzaz: Txepetxekin solasean* (Gara, 1997) gogoeta liburua. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide da 1986tik eta bertsogintzaren gainean egin diren hainbat ikerketeten egile eta eragile.

ANDONI EGAÑA MAKAZAGA

(*Zarautz, 1961*). Bertsolaria. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen. 1993 eta 1997ko Bertsolari Txapelketa Nagusietan txapeldun izan zen. Besteak beste, bertsogintza, artikulugintza eta gidoigintza ditu bizibide. Literaturgintzan ere bidea egina du: *Sokratikoek ere badute ama* (Erein, 1989) ipuin-bilduma eta *Aitaren batean* (elkar, 1990) artikulu-bilduma dira argitaratu zituen lehen bi liburuak. 1997an, eta Jon Sarasuarekin batera, *Zozoak beleari* (Alberdania) gutun-hizketa osatu zuen. *Pausoa noiz luzatu* (Alberdania, 1998) du bere lehen eleberria. Haur-literaturan ere egin ditu zenbait lan. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide izan da (1995-2000), eta egun, ahozkoasuna eskolan lantzeko metodo bat sortzen ari den lan taldeko partaide da. Jon Sarasua eta Joxerra Garziarekin batean, azken urteotan bertsolaritzaz eta bertsogintzaz egin diren azterketetako zutabe garrantzitsua bat da.

Bat-bateko bertsolaritza

Gakoak eta azterbideak

Joxerra Garzia

Jon Sarasua

Andoni Egaña

Apailatzailea: Joxerra Garzia

Bat-bateko bertsoalaritza

Gakoak eta azterbideak



Bertsozale Elkartea



BERTSOLARI liburuak

Gutziz debekatuta dago liburu hau bere osoan edo zati batean erreproduzitzea, hala nola edozein sistema informatikotan edo bestelako almagaznamendu edo informazio-lorpenekotan sartzea eta edozein modutan edo dena-delako baliabide erabiliz transmititzea, baliabide hori elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazio nahiz bestelako metodozkoa izanda ere, Bertsolari Liburuak argitaletxearen alde aurretiko eta idatzizko baimenik gabe.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza izan du

Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren laguntza jaso du



© Andoni Egaña, Joserra Garzia eta Jon Sarasua

© Azala eta diseinua: Txema Garzia Urbina

© Bertsozale Elkarte, 2001

Igeldo Pasealekua 25 - 20008 - Donostia

www.bertsozale.com

© Bertsolari Liburuak, 2001

Gudari Etorbidea Z/g. Parke Kulturala - 20040 - Andoain

Tf: 943 300 621

www.bertsolari.net

ISBN: 84-95697-04-1

ISBN: 84-89283-25-7

Legezko gordailua: NA. ???-2001

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L., Estella

AURKIBIDEA

... Sarrera	13
1 Aurrekari historikoak. Bat-bateko bertsogintzaren mitoa eta errealitatea	17
2 Bertsolaritza XX. Mendean zehar: bertso jarrietatik bat-bateko bertsoetara	22
3 Liburu honen helburuak	29
I Bertsolaritzaren izaera gaur	33
1 Bertsolaritzaren kokapena: euskararen komunitatea	34
2 Bertsolaritzaren tokia euskararen komunitatean	36
3 Egungo bertsolaritzaren adierazmailak	38
3.1 Ikusgarri edo saio publikoa	38
3.2 Sariketa eta txapelketa	41
3.3 Taldeko jardun ludiko ez-formala: bertso-eskola	43
3.4 Irakaskuntza orokorreko eduki eta ariketa	43
a) <i>Pertsonaren gaitasunen garapena</i>	44
b) <i>Ikaslea kultur ondarean txertatzea</i>	45
c) <i>Hizkuntza gaitasunen lanketa osagarria</i>	45
d) <i>Musika gaitasunen lanketa osagarria</i>	45
3.5 Hedabideetako azpi-generoa	45
II Bertsolaritzaren oreka eta desfioak.	
Tradizioa ikuspegi sortzaitetik bizi nahian	49
1 Hainbat ezaugarri iradokitzaile	51
1.1 Serieko erreproduktzioerik eza	51
1.2 Entzulearen esku-hartzea eta feedbackaren ezinbesteko garrantzia	52
1.3 Zuzenekotasuna, kalekotasuna, taldekotasuna	54
1.4 Publikoaren izaera integratua	55
1.5 Bertsolariaren eskuragarritasuna. Izaera ekonomiko apala eta	

autoerregulatua	56	3.3 Hirugarren adibidea: “Energia eolikoari buruzko eztabaida”	123
2 Zer kantatzen du bertsolariak?	57	3.4 Gairik jarri gabeko binakako saioak	130
3 Oreak eta erronkak. Zertarako dira sustraiak?	61		
3.1 Norbere tradizioaren balioak aintzatetsi	61	IV Marko teoriko berri bat	133
3.2 Bizi, ez iraun	62	1 Poetika idatziaren bide itsua	136
3.3 Garatzearen arriskua hartu	63	1.1 Testuaren ingurua: testu ingurutua	137
4 Garapenaren lau gako	64	1.2 Testua bere testuinguruan: inguru-testua eta egoera	141
4.1 Autokonfiantzazko jarrera	65	a) <i>Inguru-testuaren osagarriak</i>	144
4.2 Belaunaldien transmisioa	66	b) <i>Egoeraren osagarriak</i>	153
4.3 Antolakuntza autoeratu: Bertsozale Elkarte	69	2 Teoria oralistaren gozoa eta gazia	157
a) <i>Erakundearen ezaugarri orokorrak</i>	69	2.1 Ahozkotasuna literatura idatzian	160
b) <i>Bertsogintza eta bertsolaritza: sorkuntzaren esparrua eta antolaketaren esparrua</i>	70	2.2 Literatura ahazkotasunean	163
c) <i>Bertsolaritza kultur proiektuaren ardatzak</i>	70	a) <i>Formulak egungo bertsolaritzan</i>	165
d) <i>Bertsolaritzaren autoeraketa: gizartegintza modu bat kultur arloan</i>	73	b) <i>Esperimentazio intelektuala</i>	169
e) <i>Kanpo-harremanetarako politika</i>	73	c) <i>Urruntzea</i>	171
		d) <i>Performance-a</i>	174
III Bat-bateko bertsoaren sorkuntza prozesua	77	3 Marko teoriko berri bat bat-bateko bertsolaritzarentzat	175
1 Formari dagozkionak	81	3.1 Bat-bateko bertsolaritza erretorika-genero gisa	175
1.1 Doinua	81	3.2 Bertsolaritza eta erretorikaren bost kanonak	179
1.2 Neurria	82	3.3 Inentioa bat-bateko bertsolaritzan	180
1.3 Errima	92	3.4 Dispositioa eta bat-bateko bertsolaritza	187
2 Bat-bateko bertsoa osatzeko estrategia nagusia	100	a) <i>Dispositioa bertso bakarreko diskurtsoetan</i>	187
2.1 Estrategia nagusia: kolpea bukaeran	101	b) <i>Dispositioa bertso bi edo gehiagoko diskurtsoetan</i>	195
2.2 Lehen adibidea: “Diseinuzko drogak bai edo ez”	103	3.5 Elocutioa: funtzio poetikoa bat-bateko bertsolaritzan	198
2.3 Zenbait salbuespen	109	a) <i>Baliabide poetiko-erretorikoak</i>	201
a) <i>Barne baldintzak</i>	106	b) <i>Estrategia poetikoaren mugak</i>	204
b) <i>Kanpo-baldintzak</i>	111	c) <i>Bertsolaritzaren berezko baliabideak</i>	206
3 Temako jarduna, bertsolaritzaren sustrai.	112	d) <i>Poetika eta erretorika</i>	209
3.1 Temako saioetarako estrategia nagusiak	113	e) <i>Laugarren adibide praktikoa: “Afrikako gosea”</i>	212
3.2 Bigarren adibidea: “Langilea eta etxeoandrea”	117	f) <i>Bosgarren adibide praktikoa: “Gerrako zauriak”</i>	214
		3.6 Oroimena eta bat-bateko bertsolaritza	216
		a) <i>Oroimena nemoteknia gisa</i>	218

<i>b) Oroimena eta gogoangarritasuna</i>	219
<i>c) Oroimena datu-base gisa</i>	220
<i>d) Oroimena eta psikologia</i>	221
3.7 Actioa eta bat-bateko bertsolaritza	223
3.8 Azken burubidea	227

...

SARRERA

Bertsolaritza, orain arte, euskal herri-literaturaren azpisail moduan agertu izan dute ia beti aztertzailerek beren lanetan. Beste literatura, literatura idatzia, “landua”, edo besterik gabe “literatura” esan ohi zaion hori, berantiarra da euskararen kasuan. Gainera, XX. mendea ondo sartu arte behintzat, euskal literatura idatzia anakronikoa eta sasiliterarioa izan da gehienetan. Anakronikoa, garaian garaiko joeretatik kanpo ibili izan delako maizenik; sasiliterarioa, literaturaz kanpoko beste asmoren batez egindakoa izan delako (katekesia, hizkuntza normalkuntza...)

Aitzitik, Koldo Mitxelenak ondo dioenez, euskal herri-literatura:

| nagusiki ahozkoa da, eta beste edozein herrirena bezain aberatsa¹.

“Euskal herri-literatura” hori, ordea, traste zaharren kutxa halako bat da, literatura idatzi edo landuan sartzan ez den guztia sartzeko erabili ohi dena². Izenburu horren pean, nahi adina genero eta agerkari sailkatu ohi da, nahas-mahas sailkatu ere.

Generoei dagokienez, orotarik sartzan da herri literaturaren izenburupe-

¹ MICHELENA, Luis. *Historia de la Literatura Vasca*. San Sebastián: Erein, 1988, 13. or.

² Sailkapenik zehatzen eta erreferentzialena: LEKUONA, Juan Mari. *Ahozko euskal Literatura*. San Sebastián: Erein, 1982, 34. or.

an: poesia, antzerkia, narrazioa, eta baita beste genero sailkagaitzago batzuk ere, hala nola atsotitzak eta lokuzioak, esaterako.

“Euskal herri-literatura” esaten dugunean “euskal ahozko literatura” etortzen zaigu burura, eta sinonimotzat erabiltzen dira bi izendapenok sarri. Hala ere, herri literaturaren kutxan sartzen diren genero eta agerkarien artean denetik dago. Juan Mari Lekuonak berak, “**ahozko** euskal literaturaren sailkapena” deitzen dio aipatu berri dugun bere sailkapenari. Garbi dago, hala ere, sailkapen horretan sartzen dituen genero guztiak ez direla berdin ahozko. Eleberriak eta autobiografiak, esaterako, idatziak dira, beharbada ahozko estrategien arabera idatziak izan badaitzke ere. Horietako batzuk diktatuak izango dira akaso, baina, jaso, begiz jasotzekoak dira, ez belarriz. Herri antzerkia, pastoralak, dekorazio-olerki gehienak eta kantutegi zaharra zein gaur egungoa, berriz, belarriz jasotzekoak badira ere, idatziz sortuak dira gehienak.

Azkenik, asmo estetikoari (edo literario-artistikoari) dagokionez ere, gorabehera handiak daude euskal herri-literaturaren sailean sartzen diren genero eta agerkarien artean. Lokuzioak, esaterako —eta, neurri handi batean, baita atsotitzak ere— hiztunen hizkuntza gaitasun arruntaren emaitza dira, asmo estetiko berezirik gabe sortutako esamoldeak dira.

Euskal herri-literaturaren genero eta agerkariak elkarren hain diferente izanik, zentzugabea litzateke genero eta agerkari horiek guztiak metodo bakar baten bidez aztertzen saiatzea. Ikerketak, jakina denez, ikergaia gero eta gehiago zatikatuz, atalduz, egiten du aurrera, eta euskal herri-literaturari dagokionez ere halaxe egin behar genukeela iruditzen zaigu. Bestela, nekez iritsiko gara euskal herri-literatura osatzen duten genero bakoitzaren nondik norakoak eta balioa taxuz ulertzera.

Liburu honen aztergaia ondo zehatza eta mugatua da: bat-bateko bertsogintza du aztergai, eta ez besterik. Bat-bateko bertsogintza zer den

zehatz-mehatz azaldu, eta bat-bateko bertsogintza taxuz ulertzeko moduko metodo bat lantzen hasteko lehen urratsak egitea beste helbururik ez du, beraz, liburu honek. Orain arteko metodoek ez digute balio bat-bateko bertsogintza behar bezala ulertzeko, eta guk horrexetara mugatu dugu azterketa, gainerako generoak eta agerkariak bazter utzita. Ez, noski, balio gutxiko irizten diegulako gainerako horiei, baizik eta geure aztergaia, bat-bateko bertsogintza, guztiz genero berezia delako, eta aztergai bereziak metodoa ere berezia eskatzen duelako.

1 Aurrekari historikoak. Bat-bateko bertsogintzaren mitoa eta errealitatea

Joxe Azurmendik egokiro azaldu du auzia³:

Kontradikzio xeble bat badago. Bertsolaritzaren antzinatasunaz mito errazegi bat egin da, euskal bertsolaritza betikoa edo dela; eta mito guzien kontra doan gure aldi azkar honetan erraz sortu da antimito haserretua ere: bertsolaritza fenomeno aski moderno dela Euskal Herrian, XIX. mendekoa edo.⁴

Azurmendik dioenez, bertsolaritza denborarekin batera sortu zelako mito hori Manuel Lekuonak sortua da. Izan ere, Manuel Lekuonaren obran hainbat aldiz aipatzen da bertsolaritzaren izaera “neolitikoa” edo “prehistorikoa”. Orobat dio Lekuonak artzain aroan sortua dela bertsolaritza. Azurmendiren aburuz, geroztik egin diren gisa horretako baieztapen guztiek Manuel Lekuonarenean dukete oinarri. Adibide batzuk ere eskaintzen ditu Azurmendik, eta horietako batzuk aipatuko ditugu guk

³ AZURMENDI, Joxe. Bertsolaritzaren estudiorako. *Jakin*. Abril-Septiembre 1980, nº 14-15, or. 139-164. Bertsolaritzaren jatorriari buruzko ataltxo hau guztia Azurmendiren lan horretan dago oinarritua.

⁴ *Ibidem*, 143. or.

hemen, baieztapenok zer-nola egiten ziren erakuste aldera. Gorostiagak, esaterako, zera dio, gutxi gorabehera: “Kantuan dihardute euskaldunek oro; kantuan dihardu herri osoak... Historia-aurreko zientziaren argia iristen den garairik antzinakoenetik beretik, euskalduna poesiararen emana ageri zaigu”⁵. “Bertsolaritza euskara bera bezain zaharra” dela baieztatzen dutenak ere ez dira gutxi⁶. Batera zein bestera esan, esaten dena beti gauza bera da horrelakoetan.

Kontramitoak, berriz, dezenteko itzala izan du gurean. Bertsolaritzarekiko susmo txarra —eta are mespretxua— azaldu izan dutenen zerrenda izen sonatuz beterik dago: Federiko Krutwig, Arana-zaleak, Karmelo Etxegarai, Orixe bera, eta, berrikitan, Luis Mari Mujika edo Matias Mujika azaltzen dira, besteak beste, zerrenda horretan.

Kontuak kontu, bertsolaritzaren lehen aipamen dokumentatuak agertzen direnerako (XVIII. mendearen amaiera aldera), bertsolaritza kontu zaharra bailitzan agertzen da. Are gehiago: forma aldetik ondo bai ondo gartu eta zoritua agertzen da bertsolaritza lehen aipamen dokumentatu horietan, eta, bertsolarien arteko desfioek eta propio jarritako bertsoek bide zuten oihartzunari erreparatuta, onarpen sozial handia izan behar zuen garai hartako bertsolaritzak.

Mitxelenak, mitoaren eta kontramitoaren erdibideak, zera diosku:

| [Bertsolarien] tradizioa aspaldikoa da inola ere, Garibaik aipatzen dituen XV. mendeko dama inprobisatzaileenganaino garamatza, gutxien jota⁷.

J.M. Leizaola eta beste ikerlari batzuk ere iritzi bereko izan dira. Azur-

5 GOROSTIAGA, J. *Antología de la poesía popular vasca*. San Sebastián: Biblioteca de los Amigos del País, 1957. (Itzulpena, gurea).

6 Hala, esaterako, JAUREGI, Luis “JAUTARKOL”. *Xenpelar bertsolaria: bizitza ta bertsoak*. Zarautz: Itxaropena, 1958, 13 or. Kuliska sorta, 25-26. edota ONAINDIA, S. *Euskal Literatura I*. Bilbao: [Etor], 1972, 58 or.

7 MICHELENA, Luis. *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid: Minotauro, 1960, 25 or.

mendik, berriz, Bizkaiko Foru zaharreko bi aipamen dakartza. Foru hori 1452an papereratu zen, eta, dudarik gabe, bertsolaritzari buruzko aipamen zaharrenak dira. Aipamenok garbi uzten dute bertsolaritza indarrean zegoela aldi hartan (1452an) dagoeneko, legeak ez baitzukeen bes-tela hura debekatzeko nekerik hartuko. Azurmendik aipatzen duen lehen pasartea, 35. ataleko VI. legeari dagokio. Euskaratu gabe aldatuko dugu hona, dioena bezain garrantzitsu iritzi baitiogu esateko moduari:

| ...de aquí adelante quando quier que alguno muere en Vizcaya o fuera de ella, por mar o por tierra, persona alguna de todo Vizcaya, Tierra llana, villas e ciudad no sea osado de hacer llanto mesándose los cabellos ni rasgando la cabeza, ni haga llantos cantando... so pena de mil maravedies a cada uno que lo contrario hiciere por cada vez.

“Hiletari” horiez gain, beste aipamen bat ere badakar Bizkaiko Foru Zaharrak, garai hartako inprobisazioa ezagutzeko aurrekoa baino ere interesgarriagoa, gure ustez. 8. ataleko I. legeakoa da, eta honela dio:

| En qué casos se puede proceder de Oficio, y prender, sin que se llamen los Delinquentes só el Arbol de Guernica. Primeramente, dixeron: Que havían Fuero... salvo sobre... y sobre Mugerres, que son conocidas por desvergonzadas, y rebolvedoras de vecindades, y ponen coplas, y cantares á manera de libelo infamatorio”.

Foruak “profazada” deitzen dituen emakume hauek ez ote dira, itxura guztien arabera, gaur egungo bertsolarien aurrekari zuzen?

Nolanahi ere, tamalez, profazada horiei buruz esan dezakegun bakarra zera da: izan zirela. Horrez gainera ezereen deusik ez. Bertsolaritzaren nolabaiteko korpus dokumentatu bat nahi bada, XVIII. mendearen amaiera jo behar da ezinbestean. XIX. mendea, berriz, hobetuxego dokumentatua dago, bai izenei eta datu biografiakoei dagokienez, bai gure eskuetara iritsi diren bertsoen kopuruari dagokionez. Ezagutzen ditugun ber-

tsook, ordea, bertso jarriak dira, ez bat-batean sortutakoak. Itxura guztien arabera, bertsoak jartzen zituztenek bat-batean ere jarduten zuten, baina, esan bezala, bat-batean sortutako bertsoak apenas iritsi da guregana, eta nekez egin liteke ganorazko azterketarik garai hartako bat-bateko bertsogintzaz.

Esan liteke, beraz, XX. mendearen erdia arte ez dugula aztertze moduko bat-bateko bertso korpusik. Izan ere, halakorik egon dadin ezinbestekoa da plazarik plaza kantatzen diren bertsoak grabatu eta gero haiek transkribatzea, eta hori grabagailu egokien bidez baino ez daiteke egin. Gurean, behintzat, XX. mendeko 60ko hamarkadan hasien dira bakarren batzuk horrelako tramankuluak erabiltzen eta bat-bateko bertsoak jasotzen. Funtsean, bat gatoz Mitxelena, Leizaola eta Azurmendirekin bat-bateko bertsoaren jatorriari dagokionez. Bat-bateko bertsoak ikertzeko, ordea, ez da aski aldian behingo albisteak izatea. Hori baino gehiago behar da: bertsoak behar dira, lehenik eta behin; eta bertsook zer-nola kantatu ziren jakin behar genuke zehatz-mehatz. Eta horrelako informaziorik, tamalez, ez daukagu oso berandu arte. Hori dela eta, XX. mendearen erdia ondo pasatu arteko bat-bateko bertsogintzaz ezer gutxi esan genezake, nahiz jakin data hori baino askoz lehenago ere indarrean zela bertsoa. Aurreko garai horietatik bertso solteak baino ez ditugu ezagutzen, eta hori ez da aski ganorazko azterketarik egiteko. Klasikotzat jotzen diren bertsolariak (Etxahun, Xenpelar eta Bilintx XIX. mendean; Kepa Enbeita, Txirrita, Pello Errota eta abar mende batetik besterako pasabidean) bat-bateko bertsolari bikainak izango ziren agian —hala zirela ziurta dezakegu gehien kasuan—, baina bertsolaritzaren historian gaur egun duten estatusa bertso jarriari (bertsolariak berek idatziei edo haiek diktatu eta beste norbaitek idatziei) zor diete ia osorik. Bertso horien moldea eta pentsabidea ahozkoa izango dira akaso, baina ez dira bat-batean sortutako bertsoak.

Aurrekari historikoak.
Bat-bateko
bertsogintzaren mitoa
eta errealitatea

2 Bertsolaritza XX. mendean zehar: bertso jarrietatik bat-bateko bertsoetara

Nolanahi ere, kontua da bertsolaritza goitik behera eta behetik gora aldatu zela XX. mendean zehar. Izen bera erabiltzen den arren, XX. mende hasierako bertsolaritza eta mende amaierakoa guztiz bestelakoak direla. Ez da azaleko aldaketa soilik, barren-barreneraino iristen dena baizik.

Besteak beste, XX. mende hasieran bertsolaritza idatzia da, batez ere, bertsolaritza. Mende amaieran, ostera, bat-bateko bertsolaritza da nagusiki bertsolaritza. Bertsolari, XX. mendearen amaieran behintzat, jendaurrean bertsoak bat-batean sortzen dituen da.

Mende hasieran Gorosabelen *Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa* bilduma ospetsuaren azken liburukia argitaratu zenean, Karmelo Etxegarai, Vascongadas probintzietako kronista ofizialak, gisa honetan zehaztu zuen bertsolaritzaren kontrako anatema-:

| Berez herri txikiak berritsukeriak edo eliz atariko lehia barregarriak baino ez ziren jardunei kantuaren gradua ematen zitzaizkien, eta ospe handia. Arlotekeria horien egileen izena berehala ahanzten zen, ordea, eta hala hobe gainera, hartara egileon ezgaitasun artistikoaren sona ez baita iraunkor bihurtzen.

Aita Zavalak ez du arrazoi faltarik Etxegarairen pasarte hori bertsolaritzaren kontrako “anatema”tzat jotzean. Bertsolariek darabiltzaten gaiak arruntegi omen dira; gordinkeria nabarmenez jorratzen dituzte gainera gaiok; eta hizkera ere, zabarra omen da, oso, eta erdarakadez josia. Echegary ez da, ordea, bat-bateko bertsolaritzari batere baliorik ikusten ez dion bakarra. Aitzitik, bere garaiko iritzi nagusiaren isla baino ez da Etxegarairena. Herri literaturaren kontrako iritzia, bestalde, antzinatek zetorren. Euskaldunok aztergaitzat hartu gintuen lehen etnografo han-

diak berak, Francisque Michelek, alegia, honako hau idatzi zuen 1857an:

| Beharbada galdetuko didazue ea euskaldunek ere ez ote duten, gainera-ko nazio gehienek duten bezala, beren herri-olerkaritza, nahiz olerkaritza hori urria eta interes gutxikoa izan. Bada, bai, euskaldunek ere badituzte beren kantu, balada eta koplak; baina, egia esan, piezok ez dute inondik inora poesiaren izenik merezi.⁸

Gure frantziar jakintsuak herri kantaritzat jotzen gintuen; ez, ordea, poetatzat. Gure herri-poesiatik salbatzen zuen pieza bakarra honako koplazahar xume hau zen:

| Itsasoak urak handi
Ez du hondorik ageri;
Pasako nintzake ni handik
Maitea ikusteagatik.

Bertsolaritza XX.
mendearen zehar: bertso
jarrietatik bat-bateko
bertsoetara

Herri-poesiak berezko balio poetikorik ez duelako iritzia zaharra zen, beraz. Bestalde, garbizalekeria moralak eta, batez ere, hizkuntza garbizalekeriak areagotu baino ez zuten egin herri-poesiaren gaitzespen hori. Gaur egun harrigarri egiten zaigu hori guztia, eta, batez ere, euskara eredu alternatiborik aurkeztu gabe herriaren hizkera erdaraz kritikatzeko zuten intelektuaren kontraesan nabarmena. Herri xehearen euskararen alternatiba bakarra sabinzaleen euskara zegoen, baina euskara hori ez zen herriarengana iristen, herriak ez baitzuen ulertu ere egiten. Hala, bada, herri xehearen eta intelektuaren arteko etena amildegi bihurtu zen aurki, batez ere intelektual *bizkaitarren* kasuan. Hori izan zen, luzaroan izan ere, iritzi nagusia. Hala ere, sekula ez da falta izan bertsolaritzaren aldeko ahotsik ere.

⁸ MICHEL, F. (1981).

Aita Donostiak, esaterako, honela adierazi zuen, 1919an, bat-bateko bertsolaritzarekiko bere miresmena:

| Inoiz bertso-saioren batean izan denak ez du berehala ahantziko bizipen hori. Hori da, hori, elkar erantzuteko gatza eta piperra! Hori da, hori, lehiakidearen pilotakada gaiztoari erreto are gaiztoagoaz erantzutea! Ziria sartzen hasita, berriz, ezin amaitu: auzokoaren zaldia argal dagoe-la-eta, esaterako, zaldi hori ikusezina bihurtuko da; Mariaren Alabak ere ez dira ziririk gabe aterako, haiei ere bilatuko baitiote akatsen bat edo beste; apaizen bizimoduarekin ere beste hainbeste... Batzuetan zuzen-zuzen, beste batzuetan zeharka, bertsolariak, herri-poetak nahi duen guztia esaten du, edo aditzera ematen.⁹

Manuel Lekuonak, berriz, artean apaiz gazte, urteak zeramatzan *Eusko Folklore* aldizkarian bere lantxoak argitaratzen, eta 1930ean, Eusko Ikaskuntzak Bergaran antolatu zuen V. Kongresuan, bera izan zen hizlarietako bat. Herri-poesiaz egin zuen Lekuonak bere hitzaldia. Adibideak eman zituen, bertsolaritzaren barne-legeak sistematizatu eta aurkeztu zituen, generoak sailkatu zituen... Hitz batez, bertsolaritzaren azterketa zientifikokoaren oinarriak ezarri zituen Manuel Lekuonak hitzaldi gogoangarri hartan. Besteak beste, koplazaharren ezaugarriak aipatu zituen Lekuonak, oraindik ere gainditu ez den azterketa eginez. Hona, adibide modura, ezaugarrietako batzuk:

- Forma aldetikako perfekzioa
- Irudien mugimendu azkarra
- Elipsi eta adierazmolde hunkigarriak
- Lokailurik eza
- Denbora eta logika berezia hurrenkeran
- Irudi poetikoak logikaz gaindiko loturen bidez kohesionatuak
- Erritmoa baliabide

⁹ 1919an egindako hitzaldi baten pasarteak.

Bertsolaritza XX.
mendearen zehar: bertso
jarrietatik bat-bateko
bertsoetara

Lekuonaren hitzaldi hura entzun zuten intelektualei errazago egingo zitzaizen gero, guri egiten zaigun legez, honako pieza honen tankerako pieza itxuraz xumeen balioez jabetzea:

| Hau haizearen epela!
Airean dabil orbela...
Etxe hontako jende leialak,
gabon Jainkoak diela.¹⁰

Asko baitira, izan ere, horrelako poemak, Francisque Michelek uste bide zuen baino askoz gehiago. Baina Lekuonaren ekarpena ez da koplaz zaharretara mugatzen. Bertsolarien estrofa-moldeei buruz ere gauza jakingarriak esan zituen. Besteak beste, honako ezaugarriok aipatu zituen:

- Mezu nagusia bertsoaren amaieran (pozoia buztanean)
- Erritmo sen aipagarria (doinuaren laguntzarik gabe galduta legoke bertsolaria).
- Lau, bost, eta baita bederatzi errimako estrofak.

Lekuonak bere hitzaldia egin eta urte askotara, Jorge de Oteizak ere bertsolaritzaren defentsa egin zuen, oriotarrak ohi duen estilo sutsuan. Bere baitan nola edo halako bertsolari arrastoren bat sentitzen ez duen euskalduna euskaldun eskasa dela esatera ere iritsi zen Oteiza. Beroarena kendu behar bazaio ere, autokritika kutsua hartzen diogu guk baieztapen horri, euskal intelektualen mea kulpa gisako bat baita, azken batean, Oteizarena.

| Bertsolariak bere-berea du eta peto-peto darabil gogobide hau, estilo mental hau. Barne kontzientzia izoztuz diharduen estiloa da, joan-etorriko bidaiari bezala dabilena (barrutik kanpora zertuz), kontzientziari berriro bizia emanez, eta hitza, eta esapidea. Teknika berezia du, bere-

¹⁰ LEKUONA, Manuel. *Literatura Oral Euskérica*. San Sebastián: Auñamendi, 1964.

berea. Ibilian atzera berriz desibiltzea da funtsean bertsolariaren teknika hori. Argiari argi eginez, gutxika-gutxika, harat-honat ibiliz desibiltzen du bertsolariak iraganeko gertakariak eta haiei dagozkien egiak eta ideiak ilundu dituen bide hori, iluntasunak (denborarenak, ahanzturarenak) beretzat gordetako gauzez osatutako bide hori. Hori da bertsolariaren teknika: gu guztion begien bistan dagoela, bere baitako baitan ezkututzen da. Hortik irteten zaizkio hitzak (aterako zaizkio, bai). Zera esan ohi dut nik: ibaian urperaturik, ibaiak nahi duen lekura eramaten utziz (bere barne ikusmenaren ibaia).¹¹



Txirritaren omenaldia (1936) Iturria: XDZ

Zoritxarrez, Manuel Lekuonaren ekarpenak ez du jarraipenik izan, eta haren azterketek indarrean diraute gaur egun ere. Koplaz zaharrei buruzko haren teorizazioa, behintzat, ez da egundo gaingitu, eta gaur egun ere horixe dugu erreferentzia nagusi. Bat-bateko bertsolaritzari dagokiona, ordea, besterik da.

¹¹ OTEIZA, Jorge. *Quousque Tandem...!: ensayo de interpretación...* Donostia: Hordago, 1983 [1963]. Itzulpenak, gurea den arren, nekez isla lezake Oteizaren estilo berezia.

XXI. mende hasiera honetan, zentzugabekeria litzateke bertsolaritza aztertzerakoan hainbat jakintza alorretatik egin diren ekarpenak ez aintzat hartzea. Erretorika berriek, pragmatikak, antropologiak, ahozkotatunaren teoriak eta, batez ere, bertsolarien berek albora utzi ezinako arrasto baliagarri mordo bat eskaini dizkigute azken urteotan. Arrasto horiek guztiek ondorio berera garamatzate: bat-bateko bertsolaritza genero berezia da, eta, hala den neurrian, azterbidea ere berezia behar du.

Zail da esaten noiz gurutzatzen diren, bata beherantz eta bestea gorantz, bertsolaritza idatziaren eta bat-bateko bertsolaritzaren prestigioaren grafikak. Bataren gainbehera eta bestearen gorakada markatzen dituzten hainbat mugarri aipa litezke, ordea:

- Manuel Lekuonak 1930ean Bergaran egindako hitzaldia har daiteke, duda handirik gabe, euskal intelektualitatearen iritzi aldaketaren arrazoi nagusizat, bat-bateko bertsolaritza beste begiz ikusten hasten baita harrezkero intelektualitate hori. Handik bost urtera, 1935ean, egin zen zentzu zabalean lehen bertsolari txapelketa kontsidera dezakeguna. Hurrengo urtean, 1936an, bigarren txapelketa jokatu zen, euskal nazionalismoaren inguruko erakunde batek, *Euskaltzaleak*-ek antolatuta beti ere.
- Espainiako gerra zibila eta frankismoaren urterik gogorrenak pasatu eta gero, Euskaltzaindiak ekin zion berriro txapelketak antolatzeari, 1960an hasita. Beste hiru ere etorriko ziren gero jarraian: 1962, 65 eta 67koak.
- Irratiak bere lekua hartu zuen poliki-poliki Euskal Herriko etxe gehienetan. Emisora batzuek hasiera-hasieratik eskaini zioten arreta bertsolaritzari, beharbada euskarazko beste jardunik ez zelako ia baitmentzen.
- Franko hil eta bost urtera antolatu zen hurrengo txapelketa, 1980an, berriro ere Euskaltzaindiaren ardurapean, 1982koa bezala.
- 1985ean jokatzekoa zen hurrengo txapelketa, baina Euskaltzaindiaren

Bertsolaritza XX.
mendearen zehar: bertso
jarrietatik bat-bateko
bertsoetara

eta bertsolarien arteko eztabaida sutsu baten ondorioz, atzeratu behar izan zen, eta hurrengo urtean, 1986an jokatu zen azkenean. Eztabaida hark hainbat zauri eragin bazituen ere, izan zuen bere alderdi ona ere, handik sortu baitzen Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak. Geroztik, erakunde horrek antolatu izan ditu txapelketak, lau urtez behingo maiztasunez: 1989, 1993 eta 1997an, beraz. Liburu hau idazten ari garen unean abian da XXI. mendeko lehen txapelketa, 2001ekoa, hain zuzen. Horrez gainera, eskualde bakoitzak bere txapelketak antolatzen ditu, eta bada, bestela ere, hamaika lehiaketa eskolarteko zein gazteentzako. Bertsolaritza, Bertsozale Elkartearen inguruan horrela egituratuta, ezinbesteko erreferentzia da gaur egun euskal kulturaren unibertsoan.

- Txapelketetan bat-batean sortutako bertsoak idatziz jasotzen dira, eta, azken urteotan, baita ikus-entzunezko euskarrietan ere. 1935 eta 1936ko txapelketetako transkripzioak dudakoak dira, baina 1960az geroztikako txapelketetako bertsoak fidelki jasoak daude (finaletakoak behintzat), liburu banatan. Historian lehen aldiz, bat-bateko bertsoen korpus aztergarri baten jabe gara 1960az geroztik.
- 1989an, Bertsozale Elkarteak liburu bat eman zuen argitara, *Bapatean-88* izenburupean, aurreko urtean plazarik plaza kantatutako bat-bateko bertsoen antologia. Geroztik, urtero-urtero argitaratu da aurreko urteko bat-bateko bertsoen antologia, eta *Bapatean* sailak 11 liburu ditu dagoeneko argitaratuak. Bestalde, Bertsozale Elkarteak, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bitartez, biltze eta artxibatze lan etengabea dihardu, artxibo hori interesik duen ororen esku jarririk. Elkarteak martxan jarri berria duen web orriak, dudarik gabe, are eskurago jarriko ditu aurrerantzean dokumentuok.
- 1988an, Elkartearen eraginez, Hitzetik Hortzera bertso-programa hasi zen ETBren lehen katean. Jakina denez, plazarik plazako bertsoen antologia zen —eta da— funtsean Hitzetik Hortzera, eta ETBko zuzendariaren mesfidantza gorabehera, arrakasta handia lortu zuen. Zail da esaten programak eragin ote zuen, sortu eta bizpahiru urtera, bertsolaritza-

Bertsolaritza XX.
mendearen zehar: bertso
jarrietatik bat-bateko
bertsoetara

ren “booma” deitu izan den fenomenoa, ala boom horri zor ote dion programak bere arrakasta. Bietatik apur bat izango da, ziur asko, ahaztu gabe bataren zein bestearen arrakastaren arrazoi nagusia bertsokera berri bat taxutzeko gaitasuna izan zuen bertsolari taldea dela. Nolanahi ere, bertsolaritzak ez du egundo izan 1990 eta 1992 urteen artean izan zen neurriko entzuterik.

- 1990ko hamarkadaren hasiera horretan izugarri ugaltzen dira era guztietako bertso-saioak. Gaiak, berriz, orotarikoak erabiltzen dira, eta ordu artekoak baino konkretuagoak dira, ez hain arketipokoak. Edozer izan liteke bertso gai: bertako zein kanpoko pertsonaia, benetakoak zein fikziozkoak, zinea, literatura... Edukia ez ezik, bertso-saioen dinamika ere aldatu egiten da: ariketa bitxiagoak, bihurriagoak asmatzen dira, bertso-gintza gero eta korapilatsuago, gero eta zailago eginez. Nahi adina adibide aipa genitzake, baina bakar batekin etsiko dugu, gehiegi ez luzatzearen: bertsolari bati bi pertsonaia ematen zaizkio, eta bi-bien paperean sartzea eskatzen, batena mikrofono batean eta bestearena beste batean egin ditzan. Pertsonaia bakoitzari zer esatea dagokion ez ezik nola esatea dagokion ere asmatu behar izaten du bertsolariak horrelakoetan. Ariketa hori, esan bezala, adibide bat baino ez da, eta bistan dago bertsolaria tankera horretako jardunetara behartzen denean haren bat-bateko emaitzak ez duela zer ikusirik adituek ahozko poesiari egozten dizkioten ezaugarriekin.

- XX. mende amaierako bertsolaria gaztea da, unibertsitatean ibilia, eta literatura idatzian ere jarduten du, genero bat baino gehiagotan, gainera. Bestalde, emakume bertsolariaren presentziak aspaldi utzi dio anekdota aipagarria izateari, zorionez.

- Historian estreinakoz, gaur egungo bertsolariek, bertsotan jarduteaz gain, beren jardunari buruzko hausnarketan dihardute etengabe, eta berenak dira gaur egungo ekarpenik berritzaileen eta interesgarrienak. Jardunari itsatsitako hausnarketa intuitibo hauek argi eta garbi erakusten dute bat-bateko bertsolaritza genero berezia dela.

Bertsolaritza XX.
mendearen zehar: bertso
jarrietatik bat-bateko
bertsoetara

3 Liburu honen helburuak

Bat-bateko bertsolaritza du liburu honek aztergai bakar; genero berezi horren berri zehatza ematea, berriz, helburu nagusi. Bat-bateko bertsolaritzaren berri zehatza emateko, ordea, honako urratsok eman behar dira, besteak beste:

- Bat-bateko bertsolaritzaren ezaugarri sozio-kulturalen **azalpen kritiko bat**. Bat-bateko bertsolaritza ez da hutsetik eta hutsean sortutako produktua. Euskal Herria den mendebaldeko gizarte garatu honetan bizi da —eta bizi nahi du— bat-bateko bertsolaritzak, gainerako produktuekin lehian. Beraz, bat-bateko bertsolaritzaren ezaugarri sozio-kultural nagusiak azaldu behar dira beste ezertan hasi baino lehen. Azalpen hori, ordea, modu kritikoan egin nahi izan dugu, informazio hutsean geratu gabe. Informazioa ezinbestekoa da, noski, irakurleak zehatz-mehatz jakin dezan zertaz ari garen (eta zertaz ez garen ari), baina ez da aski. Informazioaren Gizartea omen da gure egungo gizartea, eta gizarte horretan hainbat mehatxu eta aukera ditu bertsolaritzak, liburu honetan arreta bereziz aztertu nahi izan ditugunak, informazio hutsaren osagarri. Mehatxuak eta aukerak, ohi denez, txanpon bat beraren bi alderdiak baino ez dira. Bertsolaritzak, biziko bada, egokitu beharra dauka garai berrietara hedabide berrietan sartuz, globalizazioaren joko-arauak baliatuz. Egokitzen hori nola egiten den, hortxe dago koska. Kosta ahala kosta egiten bada, egokitu nahi denaren funtsa galtzeko arriskua dago. Hori da mehatxua. Baina aukera ere hortxe du bertsolaritzak: egokitzea pena taxuz egiten bada, irabazitan aterako da bertsolaritza, eta baita gizartea bera ere. Oreka zaila da, baina baita erakargarria ere: tokian tokioa, geurea ez besterena den ondarea da zinez unibertsalak izateko dugun bide bakarra.

- Bat-bateko bertsoa sortzeko prozeduren deskripzio zehatza. Nola sortzen du bertsolariak bat-bateko bertsoa? Zer burubide, zer mekanismo baliatzen ditu horretarako? Zein dira bat-batekotasunak bertsolariari

Bertsolaritza XX.
mendearen zehar: bertso
jarrietatik bat-bateko
bertsoetara

ezartzen dizkion mugak? Liburu honen egileetako bi bertsolari dira, eta hemen eskaintzen den deskripzioa, beraz, hainbat urtetako bertso jardunaren behaketa kritikotik sortua da, sortzaileak bakarrik dezakeen barne-begiradaz osatua¹².

■ Azkenik, aurreko bi urratsok eginik, **marko teoriko** berri bat proposatzen dugu, bat-bateko bertsolaritza behar bezala aztertzen eta ikertzen lagunduko diguna (hala espero eta uste dugu guk behintzat). Egia esan, hain berria ere ez da hemen proposatzen dugun marko teoriko hori. Izan ere, erretorika klasikoaren kanonen egokitzapen bat da funtsean gure markoa, gaur egungo pragmatiken ekarpenez berritu eta osatua, hori bai. Berria, beraz, ez da markoa bera, baizik eta, izatekotan, bat-bateko bertsolaritza marko horretan aztertzeko proposamena, orain arte poetika idatziaren egin baita ia beti bertsolaritzaren azterketa.

Liburu honen
helburuak

Nolanahi ere, proposatzen dugun marko teorikoa ez da, inola ere, halako batean sortu zaigun burubide apetatsua. Alegia, ez garela aritu marko teoriko baten (ez hartu dugunaren ez beste ezeinen) bila. Aitzitik, bat-bateko bertsolaritzaren behaketak eraman gaitu marko horretara, ikusten baikenuen orain arteko teoriak ez zirela gai bat-bateko bertsogintzaren behaketak sortzen zizkigun galdera eta buruhausteei ganorazko erantzunak emateko. Galderak erantzunik gabe geratzen zitzaizkigun, beraz, eta non edo han bilatu behar erantzun horiek. Hainbat eta hainbat teoria miatu behar izan dugu, beraz, erantzun egokien bila, eta ez dugu erreparorik izan teoria bakoitzetik komeni zitzaiguntxo hartu eta geure egite-

¹² Barne-begirada horretaz gain, aitortu behar dugu zorretan gaudela ezagutu ditugun beste kulturako inprobisatzaileekin. Izan ere, haien jardunaren kontrastean argiago ikusi ahal izan dugu bertsolaritza zer den eta zer ez den. Bestela esanda, beste inprobisatzaileen jardunak ezagutzeak izugarri lagundu digu bertsolaritza hobeto ezagutzen. Zorretan gaude, orobat, inprobisazio hispano-amerikarrean aditu diren ikertzaile batzuekin ere. Honako hauek, behintzat, ezin aipatu gabe utzi: Maximiano Trapero, Domingo Blanco eta Elena Llamas. Alexis Díaz Pimientak, berriaz, aipamen berezia merezi du bietatik baitu: goi mailako inprobisatzailea (eta poeta, eta nobelagilea) da, bategatik, eta, bestetik, bera izan baita bat-batekotasuna barne-irizpide propioz modu sistematikoan aztertzen aurrena: DIAZ PIMIENTA, Alexis. *Teoría de la Improvisación. Primeras páginas para el estudio del repentismo*. Oiartzun: Sendoa, 1998. Antropología y Literatura.

ko, dena delako hori bat-bateko bertsolaritzaren alderdiren bat argitzeko baliagarri zitzaigun neurrian.

Zorionez, hemen proposatzen dugun marko teorikoak harrera ona izan du, batez ere Bertsozale Elkartearen inguruan dabilzan bertsolari eta ikertzaileen artean. Frogatu ere frogatu du marko teoriko honek emankor izan daitekeela, nola teoriaren hala praktikaren aldetik. Besteak beste, marko teoriko honi esker birformulatu eta ordenatu ahal izan ditugu bat-bateko bertsolaritzari dagozkion galdera eta arazo zaharrak. Ez da gutxi: galdera eta arazo zaharrok, orain arte solte ageri zirenak, mapa halako bat osatzen dute gaur marko teoriko berrian horrela birformulatu eta ordenatuta, eta, hala daudela, agerian geratzen dira arazo horietako bakoitzak osotasunarekin duen erlazioa.

Liburu honen
helburuak

I

**BERTSOLARITZAREN
IZAERA GAUR**

1 Bertsolaritzaren kokapena: euskararen komunitatea

Euskararen kulturaren¹³ baitan du bere tokia bertsolaritzak. Bertsolaritzara hurbiltzen hasteko, egin dezagun lehenik euskararen komunitatearen datuetara gainbegiratu bat.

Euskararen komunitatea 600.000 hiztun inguruko¹⁴ hizkuntza komunitatea dugu, estatu espainiarreko lau lurralde eta estatu frantziarreko hiru

13 Gure kultur errealitatera hurbiltzeko ez dugu lurralde politikoa hartuko definitzailatzat. Ez deza-kegu, beraz, eusko kulturaz edo *cultura vasca* bezalako kontzeptuez hitz egin, zaku handiegitik oso maila desberdineko gauzei alde egiten utzi gabe. Hizkuntza komunitate desberdinen inguruan ardatzen da kultura ekoizpenaren zati handia, nahiz eta hizkuntza komunitate desberdinak lurralde, garai eta baldintza politiko-sozial beretan elkarbizitzeak erlazioak, nahasketak eta definizio zaileko guneak sortzen dituen. Horregatik, *euskal kultura* diogunean euskararen inguruan ardatzen den kulturaz ari gara. Baditu aukera honek ere bere arazoak. Baina, edonola ere, analitikoki disfuntzionalagoa da *cultura vasca* kontzeptu territorialean nahastea batetik munduko hizkuntza komunitate zaharrenetakoa, txikia, bizi-kinkan dagoena, eta bestetik hainbat kontinentetan milioika hiztunek hitz egiten dituzten bi hizkuntza komunitate. Bortxatua da, zentzu horretan, *literatura vascaz* hitz egitea, adibidez, lurralde fisiko-politikoa hartuz horretarako patroia. Euskararen kultur unibertsoak, izan ere, bere bizi-baldintza bereziak ditu; bere estrategia propioak garatzen ditu; oreka propioak ditu, adibidez, ahozotasun-idatzizkotasun binomioan; bere merkatu-parametro eta masa kritiko bereziak ditu; neurri batean bere pentsamendua sortzen du.

14 Hizkuntza komunitate bateko partaide-izaera hiztun osotik hasi eta hizkuntzaren ezaguerarik ez dueneraino doan *continuum* bat da (Sánchez Carrión, 1986), baina kasu honetan eman dugun gutxi gorabeherako datu horretarako hiztuntzat jo ditugu euskaraz moldatzeko moduko mailan hizkuntzaz jabetu direnak.

lurraldetan banatua. Guztira lurraldeotako biztanleria hiru milioitik hurbil dabil. Hizkuntza komunitate txikia dugu, beraz, euskararena, eta bere jatorrizko lurraldean minoritarioa.

Bestetik, sakonera historiko handiko komunitatea dugu. Hainbat jakintzatako azken datuek bere jatorri aurreindoeuroparra baieztatzen dutela dirudi, euskara Europako hizkuntza komunitate zaharrenetakotzat joz. Badu bere garrantzia gure hizkuntza komunitatearen ibilbideko gakoetan erreparatzeak: sustraiei eusteko erresistentzia, hainbat garai eta testuingurutara etengabe moldatzeko gaitasuna, oreka zailtan izaerari eutsiz. Gako eta jokamodu hauek badute nolabaiteko lotura bertsolaritzaren oraina eta etorkizuna ulertzeko moduarekin eta, oro har, euskararen garabideak bizitzeko moduarekin.

Halakoxea da, beraz, bertsolaritza aterbetzen duen komunitatea, euskararen komunitatea: komunitate koxkorra, biziraupen eta moldaketan esperientzia deigarri bat duena, garaiotan etorkizunera begira bizi-kinka berezia duena, dagoeneko zenbait lurraldetan hizkuntzaren biziberritzea galtze-zorian daukana eta hizkuntza uniformizaziorako indar berrien desafio zailen aurrean dagoena. Desafio honek, nolahi ere, bertsolaritzaren mugimenduarentzat zentzu dramatiko eta etsigarria baino gehiago izaera pizgarri eta ludikoa du.


2 Bertsolaritzaren tokia euskararen komunitatean

Euskal kultur jardunean bizi-bizirik dagoen agerpenetakoa da bertsolaritza. 1993an¹⁵ egin zen azterketa soziologikoak eman diezaguke bertsolaritzak gure hiztun komunitatean duen lekuaren ikuspegi orokorra: euskal hiztunen %15ak oso bertsoaletzat du bere burua, %35ak bertsoa-

¹⁵ Bertsozale Elkartearen aginduz SIADECOK egindako ikerketa

letzat eta beste %28ak nolabaiteko zaletasuna duela adierazten du. Guztiak batuz %78a egiten dute. Esan beharra dago honetaz dugun ikerketa serio bakarra bertsolaritzaren gailurreko boladan egin zela, eta datuak apalduak izango direla urte batzuk geroago, baina bertsolaritzak gizartean duen isla eta onarpenaren erreferentzia bezala balio diezaguke.

Ikerketak dio hiru zirkulu konzentrikotan bana daitekeela bertsolarako zaletasuna euskal komunitatean. Zirkulurik zentralenean, gunerik zaletuenean, badago aski masa kritiko bertsolaritzarako agenteen etorkizuneko harrobia ziurtatzeko (bertsolari, gai-jartzaile, kritiko, epaile, irakasle, antolatzaile, bertsozale engaiatu). Bada, beraz, kultur jardun honen etorkizuna segurtatuko duen muina.



Euskararen komunitatearen bertsozaletasuna. SIADECOK 1993an egin zuen ikerketa soziologikotik hartutako datuak

1. Bertsozale sutsuak 15%
2. Bertsozale moderatuak 35.2%
3. Aldikako bertsozaleak 28,1
4. Kritikoak eta indiferenteak 21,6%
5. Ez euskaldunak

Euskararen komunitatearen baitan gaur egun bertsolaritzak duen sustraitze-maila ez da kasualitatez sortua. Batetik, badu oinarri historikoa, bertsolaritzak euskal herrietan duen tokia ez da oraingoa. Baina, bestetik, azken 25 urteotan bertsolari belaunaldi batek bertsozaintza odolberritzeko egin duten ahaleginaren emaitza ere bada, eta, batez ere, azken 15 urteotan bertsolaritza kolektibo bezala gidatu duten bertsolari, bertsozale eta antolatzaile belaunaldi batek garatu duten estrategia soziokulturalaren emaitza.

Bertsolaritzaren
kokapena: euskararen
komunitatea

Bertsolaritzaren tokia
euskararen
komunitatean

3 Egungo bertsolaritzaren adierazmailak

Egungo bertsolaritza hainbat adierazmaila edo eremutan agertzen da. Saia gaitzen adierazmaila hauei gainbegiratu bat egiten, bertsolaritzaren errealitate soziokulturalaren ikuspegi oso xamar bat izateko. Bost adierazmaila bereiztuko ditugu:

- Ikusgarri edo saio publikoa
- Sariketa eta txapelketa
- Taldeko jardun ludiko ez-formala: bertso-eskola
- Irakaskuntza orokorreko eduki eta ariketa
- Hedabideetako azpi-generoa

3.1 Ikusgarri edo saio publikoa

Gaurko bertsolaritzaren maila gorena, erdigunea, ikusgarri edo ikuskizun moduan duen adierazmaila da. Urtero 1200 bertso-saio inguru antolatzen dira euskararen geografian zehar. Saio hauek ez dute denek formaltasun maila bera: hirietako zinematoki edo antzokietatik hasi eta herriko jaietako plazako saioetaraino doaz, pilotalekuetako saioetatik eta bertso-afarrietatik pasata. Emanaldi hauetan gutxienez bi bertsolarik eta gehienez zortzik hartzen dute parte, antolatzaileek horretan diharduten 100 bertsolari ingurutik aukeratuta (nahiz eta deituenak 20 inguru izango diren).

HERIALDEAK	Jaialdiak	Plaza libre	Lagunartean	Sariketak	Hitzaldiak	Beste ekitaldiak	Saio bereziak	Txapelketak	Didaktikoak	Besterik	Denera
GIPUZKOA	80	147	241	15	9	31	88	3	16	18	648
BIZKAIA	62	66	60	8	1	14	55	24	5	2	297
NAFARROA	11	22	57	4	0	12	7	8	1	0	122
ARABA	9	6	15	6	2	3	8	3	3	0	55
IPARRALDEA	8	15	26	2	0	10	7	2	19	1	90
TOTAL	170	256	399	35	12	70	165	40	44	21	1212

2000. urteko bertso ekitaldiak



Saioa antzoki batean Argazkia: N. Moreno y A. Unamuno / Iturria: XDZ

Egungo
bertsolaritzaren
adierazmailak



Plaza libreko saioa Argazkia: E. Koch / Iturria: Bertsolari aldizkaria



Lagunarte giroko saio Argazkia: A. Elozegi / Iturria: XDZ

Egungo
bertsolaritzaren
adierazmailak

Deituenak diren bertsolarien adina Maialen Lujanbio gazteenaren 25 urte eta Joxe Agirreren 71 artekoa da. Bertsolari multzorik trinkoena 30 eta 45 urte bitartean dagoen belaunaldiak osatzen du une honetan.

Bertsolaritzaren jendaurreko saio hauen artean hainbat mota bereiz ditzakegu:

- Gai-jartzaile batek gidatutako emanaldia.
- Bi edo hiru bertsolariren arteko saio librea, hasi eta buka bertsolariek berek gidatzen dutena aipatu beharreko gaiak proposatzen dituen gidaririk gabe.
- Mahai ondoko emanaldia, espresuki horretarako antolatzen diren otorduen ondoren.
- Bestelako ospakizunetako saio osagarriak: hiletak, ezkontzak, inaugurazioak, ekitaldi politikoak, omenaldiak, beste hainbat gizarte ekitaldi...
Formatu berriak: bertso-tramak (gidariak proposatzen duen nolabaiteko antzerki-gidoi bat garatuz egiten den bat-bateko saioa), eta saio esperi-

mentalak (gai bakar baten inguruko monografikoak, musikak lagunduta egindakoak... .



Joxe Agirre Argazkia: A. Elozegi / Iturria: XDZ



Maialen Lujanbio Argazkia: A. E. / Iturria: XDZ

Egungo
bertsolaritzaren
adierazmailak

3.2 Sariketa eta txapelketa

Jendaurreko emanaldien adierazpen berezi bat bertsolarien arteko sari-keta edo txapelketena da. Puntuaketa baten bitartez sariak banatzen dituen epaimahai baten aurrean lehiatzen dira bertsolariak. Sari-keta eta txapelketa hauek haur mailan, gazte mailan, bailaraka nahiz herrialdeka jokatzeko dira eta lau urtez behin antolatzen den bertso lehiaketa gorena da denen gailurra, Euskal Herriko Txapelketa Nagusia.

Ekintza	Lurraldea	Adina	Maiztasuna
Bertsolari Txapelketa Nagusia	Euskal Herria	Helduak	4 urtez behin
Herrialdeko txapelketa	Bizkaia	Helduak	2 urtez behin
Txapelketa Nagusirako kanporaketa	Gipuzkoa	Helduak	4 urtez behin
Herrialdeko txapelketa	Araba	Helduak	Urtero
Herrialde arteko txapelketa	Iparralde eta Nafarroa	Helduak	Urtero
Eskolarteko txapelketa	Herrialdeka eta gero nazio mailan	< 18 urte	Urtero
Sustapen mailakoak			
- Osinalde (Gipuzkoa)	Eskualdekoa	< 25 urte	Urtero
- BBK (Bizkaia)	Herrialdekoa	< 25 urte	Urtero
- Berriatua (Bizkaia)	Nazionala	< 20 urte	Urtero
- Xalto (Nafarroa)	Herrialdekoa	< 20 urte	Urtero
- Lizardi (Gipuzkoa)	Nazionala	< 25 urte	Urtero
- Manuel Lekuona (Gipuzkoa)	Eskualdekoa	< 20 urte	Urtero
- Orixe (Gipuzkoa)	Nazionala	< 25 urte	2 urtez behin
- Xenpelar (Gipuzkoa)	Nazionala	< 25 urte	2 urtez behin

Bat-bateko lehiaketa eta txapelketak



Bertsolari Txapelketa Nagusia, finala, Anoetako Belodromoa 1997-12-14

Argazkia: A. Gonzalez de Kintana / Iturria: Bertsolari Aldizkaria

3.3 Taldeko jardun ludiko ez-formala: bertso-eskola

Bertsolaritzaren beste adierazmaila bat talde-jolasa da, tokian-tokiko bertso-eskoletan garatzen den ahozko jardun ludikoa. Jardun informala da, sagardotegi, ostatu eta baserrietan tradizio luzea duena eta gaur egun hiri eta herrietan berriaz sortzen diren talde edo bertso-eskoletan egiten dena. Bertsolaritzaren adierazpenik espontaneoena da berau, eta, beste aldetik, bertsolaritzaren biharko eragileak sortuko dituen oinarrizko egitura.

Bertso-eskola esaten denean ez da ulertu behar nagusiki akademia modura, pedagogia funtzioaz gain sarritan eta bereziki talde-bertsotarako guneak izaten baitira ezer baino lehen. Izaera ezberdineko bertso-eskolak ditugu, hala ere: batzuk informala, besteak etorkizuneko bertsolariak zailtzeko eta trebatzeko asmo zehatzagoarekin jokatzen dutenak. Nolanahi ere, hezkuntza arautuan egiten den bertsolaritzaren irakaskuntzatik harago, gune hauek bat-bateko bertsogintza taldean lantzen eta gozaten dute, eta bertsolaritzaren inguruko beste hainbat jardun garatzen dituzte.

Egungo
bertsolaritzaren
adierazmailak

Lurraldea	Bertso-eskola	Ikasle kopurua
Araba	12	70
Bizkaia	22	178
Gipuzkoa	52	478
Nafarroa	6	45
Iparralde	10	69

Bertso-eskolen taula

3.4 Irakaskuntza orokorreko eduki eta ariketa

1981 urtean lehen pausoak ematen hasita, nagusiki azken 15 urteotan lehen eta bigarren mailako irakaskuntza orokorrean sartu da bertsolaritza. Ez da orokorra baina bai aski hedatua bertsolaritza hizkuntza edo literaturaren irakaskuntzarako eduki eta osagarri bezala erabiltzea. Saia-

kera eta esperientzia asko egin izan dira, batzuetan irakasleek bakarka eramanez, beste batzuetan Ikastolen Elkarteetan edota beste eskola-sareetan bereziki gai hori koordinatzeko profesionalen eskutik eginak. Material didaktiko sorta nahiko zabala bada dagoeneko argitaratua (liburu formatuan, kasetetan ala hizkuntza lantzeko testu-liburuetan eduki edo ariketa osagarri gisa). Une honetan eskolako hizkuntza formakuntzan bertsolaritzak egin dezakeen ekarpenari buruzko planteamendu pedagogiko berriak garatzen ari dira, batez ere belaunaldi berrietan nabari diren ahozko adierazpeneko hutsuneak betetzera bideratuak.

Edonola ere, bertsolaritzak hezkuntzan egin dezakeen ekarpenaz eta euskal ikasleen oinarrizko curriculumean txertatzeaz egin beharreko oinarrizko hausnarketa, prozesuan dago oraindik. Argitalpen honetan hausnarketa horren zertzelada batzuk aurrera ditzakegu. Bertsolaritzaren ekarpen bideak oinarrizko curriculumean:

A | *Pertsonaren gaitasunen garapena*

- Inprobisaziorako jarrera eta gaitasunak
 - Autokonfiantza. Autoestima
 - Jarrera probatzaile eta sortzailea
- Komunikazio-ekintza antolatzeke gaitasunak
 - Komunikazioko aldagaiak kontuan hartu eta lantzea
 - . Hartzailearen ezaugarri eta egoeraz jabetzea
 - . Feedbacka esperimintatzea
 - . Ingurunearen baldintzez jabetzea
 - Gaien mamiaren lanketa
 - Gaien tratamendua
 - . Ludikotasuna: umorea, ironia, satira...
 - . Hunkiarazteko estrategiak
 - . Aspektu estetikoak: hoskidetasuna, erritmoa
- Erlazio gaitasunak
 - Kooperazio jarrera, bertso-dialektikaren sakonean dagoena

Egungo
bertsolaritzaren
adierazmailak

—Besteen rolak bereganatzeko gaitasuna.

- Oroimenaren garapena. Kantuzko memoriaren bidez ondare komun batean parte hartzea.

B | *Ikaslea kultur ondarean txertatzea*

- Ahozko inprobisazioa ezagutzea, gizakiaren hainbat gaitasun garatzen dituen kulturbide unibertsal gisa
- Gaurko Euskal Herriko kultur errealitate biziak jabetzea eta partaide izateko bidea eskuratzea
- Gure kultur ondarean modu berezian txertatzea: kantua bidez memorian parte hartuz
- Bertsozko ondarea zeharbidez gure historiako gertaera, ikuspuntu eta izaerak lantzeko tresnatzat erabiltzea

C | *Hizkuntza gaitasunen lanketa osagarria*

- Ahozko espresiorako trebezia eta baliabideak lantzea
- Hizkuntzaren alde ludikoa ezagutu eta lantzea

D | *Musika gaitasunen lanketa osagarria*

- Euskal doinuen ondareaz jabetzea
- Kanturako jarrerak eta gaitasunak lantzea, bertso-kantaeraren bidez

3.5 Hedabideetako azpi-generoa

Bertsolaritzak ikus-entzunezko hedabideetako azpi-genero gisa ere badu bere tokia, irrati eta telebistako programa berezien bidez. Nagusiki bertso-saioetako grabazioak hedatzen dituzten astean behingo programak dira, bilduma komentatuak eskaintzen dituztenak. Jarduera honek tradizio luzeagoa du irratiaren, 30 urte baino gehiago dira bertsoak irrati zabaltzen direla. Telebista duela 10 urte hasi zen frogak egiten. Gaur egun, Euskal Telebistak astero antenaratzen duen *Hitzetik Hortzera* bertsolaritzari buruzko programa klasiko bilakatua da dagoeneko.

Egungo
bertsolaritzaren
adierazmailak

Medioa	Maiztasuna	Programa kopurua	Ordu kopurua urtean
ETB (Televisión en euskara)	semanal	1	30
Rádios de ámbito nacional	semanales	3	115
Rádios de ámbito comarcal	semanales	3	98
Rádios de ámbito local	semanales	7	280

2000. urteko datuak

Bertsozale Elkarteak honela definitu zituen 1998an bertsolaritza hedabideetan emateak bete behar dituen helburuak:

- Bertsogintzaren jarduna hedatzea
 - Telebistak sor dezakeen saturazio-mugaz jabetuz
 - Plazarik plazako bertsogintzari lehentasuna eman, telebistakoaren morroi bihur ez dadin.
- Bertsosaletasuna landu
 - Bertsogintzari buruzko jakintza kritikoa bultzatuz, iruzkin eta kritika-produkzioaren bidez
 - Programak zaleak bertso kontuetan hezteko baliatuz
- Bertsogintzaren aniztasuna islatzea
 - Lurraldetasunari dagokionez
 - Mailei dagokienez (elitearen jarduna soilik emateke)
 - Belaunaldiei dagokienez
 - Gaiei dagokienez (alde politiko eta satirikoak zentsuratzeke)
- Bertsogintzaren erakarmen eta prestigioa bultzatzea
 - Emanaldien duintasun eta kalitatea zainduz
- Bertsolaritzaren mugimendu soziokulturala ere islatuz
 - Bertsolaritzaren mugimenduaren berri jasoz
 - Bertso-eskolen* errealitatea azalduz
 - Bertsozale elkartearen kultur proiektua agertuz
 - Bertso-paperei eta bertsolaritzaren historiari tartea eginez
- Esperimentatzea. Bertsolaritzaren eta ikus-entzunezko nahiz entzunezko hedabideen arteko sinbiosian esperientziak egitea, irekitzen ari den alor baten aurrean gaudela oharturik.

II

**BERTSOLARITZAREN OREKA
ETA DESAFIOAK**
Tradizioa ikuspegi sortzailetik
bizi nahian

1 Hainbat ezaugarri iradokitzaile

Bertsolaritzak baditu hainbat ezaugarri gaur egungo masa-kulturaren norabide nagusiekin guztiz bat ez datozenak. Bereziki iradokitzaileak diren batzuk aipatuko ditugu:

1.1 Serieko erreproduziorik eza

Ekoizpen eta merkatu modernoaren oinarrietako bat serieko erreproduziorik eza da. Lehenago bakarrak eta errepikaezinak ziren ekoizpenak (etxean egindako jantzi bat, postre bat), orain serieko ekoizpenak dira gehienbat. Serieko erreproduziorik eza nonahi ageri da gaur egun: txokolatezko natilletan, disketeetan nahiz galtzetan. *Kultura* deitzen dugun kontsumoaren zati handi bat ere horrelako erreproduzioek osatzen dute. Ohikoenetatik hasi (liburu, disko, bideo, film) eta komunikazioaren teknologiarik berrienari esker hedatzen direnetaraino, oinarrian erreproduziorik eza oso urruti, beste une eta inguru batean sortutako zerbaiten erreproduziorik eza (gero eta maila global eta mugagabeagoan).

Bestelakoak dira jendearen aurrean zuzenean gertatzen diren kultur adierazpenak. Adierazpen hauetan ere, gehienetan erreproduziorik eza

aipagarria dago. Zuzenean emandako kanta bat ez da sekula aurreko aldikotik berdin-berdina, baina kanta bera da, beste noizbait sortutako ekoizpen baten hainbatgarren erreprodukzioa. Eta gauza bera antzerki eta bestelako kultur-adierazpenetan.

Bertsolaritza da –eta honetan datza bere ekarpena eta bere muga ere inolako serieko erreprodukziotan oinarritzen ez diren jendaurreko kultur-adierazpen gutxietako bat. Bertso-saio bat horixe baita bereziki, lehenago *ad-hoc* ekoiztutako ezer ere ez erreproduzitzea. Bere muina bat-batekotasuna da, gunean guneko eta unean uneko originaltasun erradikala. Bertsolarien sorkuntza errepikaezina da: une iragankor batean sortzeko gaitasunak ematen dio zentzia bertsoari. Iragankortasun atzerazinezko horretan, bat-batean ari denaren amildegi txiki horretan du zentzia bertsoak, hor sortzen dira bai lastoaren arruntasuna eta bai alearen miraria.

Hainbat ezaugarri
iradokitzaile

1.2 Entzulearen esku-hartzea eta feedbackaren ezinbesteko garrantzia

Bertsolaritzaren adierazmaila ezberdinak bereiztu ditugu I. kapituluan: jendaurreko ikusgarria, talde-jarduera ludikoa, eskolako jarduna eta hedabideetako. Erreza da talde-jarduera ludikoa eta eskolako parte-hartzaileak direla sumatzea. Baina garrantzitsua da jendaurreko ikuskitzuetako jardunak ere izaera partehartzaile berezia duela azpimarratzea.

Bertso-saioetan entzuleriaren erantzunak, edo erantzun horretaz igorleak jasotzen duen berrelikadura edo *feedback* delakoak leku garrantzitsua du. Ikusgarri publiko guztietan da komenigarria erantzuna edo *feedbacka*. Ikusgarria bat-batekotasunean oinarritzen denean, ordea, une-gune horretako errepikaezintasunean, sortzaile eta entzulearen artean gertatzen denak garrantzi berezia hartzen du. Bertsogintzan ikusle eta entzulearen erreakzioak, begiak, txaloak, barreak, isiltasunak... sortzailearentzat lehenetsutako inputak dira. Ekoizpenaren muinean bertan eragiten

Entzulea saioetan



Argazkia: A. Elozegi / Iturria: XDZ



Argazkia: N. Moreno / Iturria: XDZ



Argazkia: N. Moreno y A. Unamuno / Iturria: XDZ

Hainbat ezaugarri
iradokitzaile

dute, hau inprobisatua eta une-gunean gertatzen denari atxikia baita.

Jendaurreko bertso-emanaldietan entzuleak saioaren emaitzan duen eskuartzea berezia da: sorkuntzaren garapenean entzulearen erantzunak eragin nabarmena du, errokoa. Azken batean, ingurunea sorkuntzarako oinarritzko osagaia da bertso-saioetan.

1.3 Zuzenekotasuna, kalekotasuna, taldekotasuna

Bertsolaritzak, beste hainbat adierazpenek bezalatsu, batez ere zuzenean dihardu, entzulea ekintza publiko batean biltzera eta esku-hartzera bultzatuz. Gure garaiotako masen kulturaren zati handi bat bakar-ka eta pribatuan kontsumitzen da, norbere etxean. *Kultura* deitzen dugun horren adierazpen gehienak, liburuak, diskoak, bideoak, web orrialdeak... horrela jasotzen ditugu. Teknologia berriak interkomunikaziorako eta norabide bakarreko fluxuen eraginak gainditzeko bide berriak urratzen ari badira ere, aitortu beharrekoa da egungo mendebaldeko hiritar-rrak kontsumitzen dituen ekoizpen gehien-gehienak diferituan, bakarka eta parte hartzeko nahiz elkar ekintzarako aukera gutxiarekin kontsumitzen dituela.

Musika, antzerki eta hainbat arte emankizunekin batera bertsolaritzak jendea *kalera ateratzen* du. Bertso-saio batera joatea entzulearentzat zera da:

Etiketetik herriren bateko plaza, pilotaleku, antzoki edo toki publikoren batera ateratzea. Neurri batean interaktiboki inprobisazioaren garapenean partaide izatea, gainerako entzuleekin gertakizun publiko batean esku hartzen aritzearen sentsazioa konpartituz nolabait. Taldearen partehartzea oraindik nabarmenagoa da otordu osteko saioetan, bertso-afari edo bertso-bazkarietan.

Kalekotasun, zuzenekotasun eta taldekotasun hau berezkoa du bertsola-

ritzak, hor sortzen da sortzaileen eta entzuleriaren arteko konplizitatea, bat-bateko bertso-sorkuntzarako ezinbesteko oreka.

1.4 Publikoaren izaera integratua

Bertsolaritzaren publikoa ez da belaunaldi tarte jakin bat edo euskaldun mota berezi bat. Neurri batean euskal komunitatearen heterogeneotasuna zeharkatzen du, adin, kultur maila, lanbide eta joera ezberdineko euskaldunen abaniko zabal xamarra alegia, bai saioen behaketak eta bai egindako azterketa soziologikoen erakusten dutenez.

Entzuleriaren aniztasuna ez da ohikoa egungo kultur kontsumoan. Gizartea segmentatzeko joera du egungo kultur sorkuntzak: gazteentzako musika egiten duen talde baten kontsumitzailea, folk talde batena edo operarena nahiko soslai definitukoak izaten dira oro har, eta bata bestearengandik ondo bereiztuak.

Orokorrean, kultur adierazpen bakoitzak, askotan talde eta artista bakoitzak, neurri handi batean publiko perfil jakin bat izan ohi du. Honek ez du esan nahi horietan denetan abaniko zabalagoetarako lekurik ez dagoenik, baina batez beste publiko multzorik sendoenak soslai jakinekoak izaten dira. Bada tartean bai adinari dagokionez eta bai gizarte mailari dagokionez ere esparru oso zabalak harrapatzen dituen adierazpen kultural zeharkatzaileak, zinema esaterako.

Bertsolaritzari dagokionez nagusiki baserri giroko adierazpen izatetik gizarte industrial edo post-industrialean garatzera iragan da. Etapa berri honetan, hala ere, nolabait komunitateari kantatzearen zentzuetatik zerbait gordetzen duela dirudi. Ez dago hainbesteko banaketarik adinari eta perfil sozialei dagokionez, ez behintzat bestelako hainbat emanaldi eta kontsumo kulturaletan den bezalakorik. Bertsolarien hainbat emanalditan publikoaren osaketak nolabaiteko komunitate zentzu bat iradokitzen du, adin eta izaera guztietako jendea biltzen duen herri-jaien elkarretaratze

sinbolikoaren zentzu zaharraren (eta berriaren) baitan. Hala ere, aspektu hau aldatu egiten da leku batetik bestera eta kontu honi ñabar-durak egin behar litzaizkioke hainbat aldetatik, izan ere, aldaketa-garaian eta joera ezberdin askoren arteko tentsioan bizi den gizartea baita gurea. Nola nahi, esan liteke neurri batean bizirik dirauen ezaugarria dela bertsolaritzan.



Argazkia: N. Moreno y A. Unamuno / Iturria: XDZ

Hainbat ezaugarri
iradokitzaile

1.5 Bertsolariaren eskuragarritasuna. Izaera ekonomiko apala eta autoerregulatua

Bertsolaritzan sortzailea, artista, batez beste pertsona arrunta da, bere bertso-jarduna jasotzen duen inguru sozial berekoa: ez du estatus sozial edo ekonomiko berezirik, ez da bere berezko ingurunetik ez fisikoki ez sinbolikoki ez ekonomikoki urruntzen. Une honetako bertsolaritzaren gailurra, bi irakaslek, hiru ikaslek, elektrikari batek, kazetari batek, komertzial batek, unibertsitateko irakasle batek, baserritar batek eta

(ikasleak salbu) irabazi nagusiak bertso emanaldietatik ateratzen dituen bakarren batek edo bestek osatzen dute. Ekonomikoki jarduera apala da bertsolariena, eskaintza-eskari jokoa kanpoko esku-hartzerik gabe doitzen duena eta, beraz, eragile komertzial edo babes publikoarekiko menpekotasunik gabea.

Bestalde, eta ondorioz, bertsolaria eskuragarria da, bai ekonomikoki eta baita hurbiltze pertsonalerako ere. Adibide bat ematearren, itzalik handieneko bertsolariak Euskal Herriko idazle edo musikaririk onenaren sona beretsua du euskal komunitatean baina, bestetik, erabat eskura du nornahik zuzenean etxera deitze hutsarekin bere ezkontzan kanta dezan eskatzeko, dirurik ez dutelako doako saio bat proposatzeko edo gastu truke eramateko ikastola, herri-elkarte, mugimendu eta abarren aldeko emanaldietara. Disponibilitate edo beti eskura egote hau oraingo bertsolarien ohitura edo ia berezko jarrera moduan jaso dute. Horrek dakar, besteak beste, zenbaitzuen urteko saio kopurua izugarria izatea (badira urtean 150-200 aldiz jendaurrera ateratzen direnak). Martxa horrek figura bitxi bihurtzen du bertsolaria, alde batetik izar mediatikoa da eta bestetik nonahi ia *lagunartekoa*.

Hainbat ezaugarri
iradokitzaile

2 Zer kantatzen du bertsolariak?

Gurea bezalako gizarte batean bertsolaritzak sorrarazten duen erantzun sozialaren gakoetako bat entzuleria heterogeneo eta berriarengana iristen diren edukiak kantatzea da. Entzule nagusiki hiritarra, gazteria unibertsitarioa, jende bidaiatzailea... Entzuleria zabal eta aldakorra. Zer kantatzen du bertsolariak gaurko entzulearengana nolabaiteko arrakastaz iristeko?

Bertsolariak gizarte-bizitzako alderdi orori buruz kantatzen du printzipioz. Horixe da oraingo bertsolaritzaren gako garrantzitsuenetako bat: bizitza kantatzen duela. Ez bakarrik gai bezala printzipioz arlorik baz-

tertzen ez duelako, baizik eta espresuki saiatzen delako bizitzaren arlo oro aipagarri bilakatzen, edozeri buruz inprobisatzen.

Jakina, bizitzaren alderdi askok ihes egiten diote: garai bakoitzean interesgarri ez diren gaiak edo gizariteak inkontzienteki tabu dituenak bertsolariak ere hala ditu. Baina, nolabait esateko, sukaldeko mahaian, tabernan edo irratiko berriketaldietan aipatzen diren gai guztiek izan dezakete lekua bertso-saioetan. Gehiago ere bai, ohiko beste zirkulutan asko jorratzen ez diren gaiak ere badute lekua bertsolaritzan, azken urteotan gai-jartzaileen aldetik gai eta ikuspegi berriak bilatzeko dagoen kezka eta gogoagatik.

Ondoren aurkezten den zerrendan, 1997ko abenduaren 14an Donostiako Belodromoan 8 bertsolari finalistek kantatu behar izan zuten gaien laburpena egiten da, gaiak ematerakoan dituen gainerako azalpenetatik soildurik:

Zer kantatzen du
bertsolariak?

| Alkoholen inguruko gizarite-ohiturak
Erakundez Kanpoko Elkarrekin eta garapen bideak
Ezkonkide edo bikoteak eta lan banaketa
Euskal Unibertsitatea eta bere arazoak
Ama-alaben harremana parrandei buruz
Kubako egonaldi osteko harremanak
Aita-semeen arteko harremanak
Rock taldea Alkatearekin disputan
Antimilitarismoa
Espazioko aeronautika
Sukaldaritza biologikoa
Misiolariaren bizipenak
Herri txikiak eta eskola kontzentrazioa
Aita-alaben harremana gutun baten gainean
Inmigrazioa eta euskal kultura
Himalaismoa

Erretiroa eta denbora librea
Euskal Herria eta Irlandako gatazka politikoa
Gabonetako errepresentazioa
Lesbiana arteko harremanak
Kaleko komun mugikorra
Hil berria eta San Pedroren arteko harremana
Fimosis ebakuntza
Zirkua eta istripua
Artzaintza
35 orduko lan astea
Minbizia eta sendabidea
Modeloa eta loditasuna
Gerrako memoria
Karterista eta ustelkeria

Egun horretan jarri ziren hitz gakoak:

Sukaldea
Etsipena
Gutuna
Erratza
Mende aldaketa
Kartzela
Burua
Gabonak eta kontsumismoa
Astelehena
Basoa
Euroa
Ilargia
Ordenagailua
Guggenheim
Bakardadea
Kalea

Zer kantatzen du
bertsolariak?

Pilotaria
 Izerdia
 Leihoa
 Burgosko epaiketaren urte muga
 Fedea
 Gorbata
 Giltza

Komunikazio zirkuitu alternatibo gisako bat da bertsolaritza, nazio, estatu, eskualde, herri edo mundu mailako aktualitateari hausnarraldia ematen dion eremu bat, poetikoki batzuetan, ironikoki edo umorearen bila besteetan.

Hausnarraldi hitza ez dago gaizki hautatua, iradokitzailea da. Hausnartzeara zera da bere lehen zentzuan: murtxikatu gabe irentsitako belarra urdailetik berriz ahora ekartzen du behiak, eta han lasaiki murtxikatzen du bere ahoko zukuekin ondo nahastuz osteraren irensteko. Gaur egun mendebaldeko hiritarrak hedabide masiboetatik berebiziko informazio kopurua irensten du, eta gizaki (post)modernoaren ezaugarrietako bat informazio interesatu hori guztia digeritzeko ezintasuna da. Informazio horren zati bat umore tonuan edo klabe pertsonal nahiz poetikoan hausnartzeko aukera txiki bat eskaintzen du bertsolaritzak, jarduera artistiko parte-hartzaile kolektibo baten bidez.

Zalantzan jar liteke gaurkotasunezko gai bati edo galdera unibertsal bati bertsolariaren inprobisazioak nolako ekarpena egin liezaiokeen. Eskasa dela argudia daiteke, ekarpen intelektualak gaur egun azterketa zientifiko serioak eta lan literario mamitsuak eskatzen dituela. Bada, beste muturrean, inprobisazioan berebiziko ekarpen bereziak ikusten dituenik ere. Edonola ere, bertsolariak jolastu egiten du, inprobisazio poetiko eta ludikoaren bitartez eskuartean duen informazio multzoa nahasten du, gozatu egiten du, eta asmatzen duenean, gozarazi ere bai.

Zer kantatzen du
 bertsolariak?

Bertsolariaren ekarpena, ekarpenik badu, horixe da hain zuzen, nahastu egiten duela, mailak nahasten dituela: aktualitateko gai sozialak, politikoak, sexualak, entzuleriari egiten dizkion erreferentziekin, guztia aipamen pertsonalez zipriztindurik eta bat-batean ari diren kideen mezuekin lehian. Nahasketa horretan (ardien klonazioaren aipamena aurkezlearen belarriekin, ETArenean suetena bertso-kidearen sentipenekin...) funtzionatzen du inprobisazioaren originaltasunak, eta hortxe sortzen dira, tarteka, ale gogoangarriak ere.

Informazio sozial eta pertsonalari hausnarraldi kantatua ematen dion eremu horretan bertsolariak komunikatzaile eta poetaren arteko papera betetzen du, liderraren eta bufoiaren artekoa, egunkariko zutabegilearen eta marrazkilaria satirikoaren artekoa, aldi berean ingurune sozial horretako partaide arrunt bat izanda. Bertso emanaldi kopuruaren (I.3.1) atalean aipatzen denez urteko 1000tik gorakoa), entzule kopuruaren eta komunikazio mota honek berekin duen konplizitatearen ondorioz, bertsolaria nolabaiteko iritzi-erreferentzia bat dela esan daiteke euskal hiztunen komunitatean.

Zer kantatzen du
 bertsolariak?

3 Orekak eta erronkak. Zertarako dira sustraiak?

Azken bi hamarkadetan bertsolaritza bultzatu duen mugimenduak garai berriek eskatzen dituzten desfioei aurre egiteko intuizio gidariak izan ditu. Funtsean bertsolaritzaren senari jaregin gabe beratu gaurko kultur-bideetan garatzeko oreka dinamikoaren intuizio gidariak. Honela laburbil ditzakegu:

3.1 Norbere tradizioaren balioak aintzatetsi

Kapitulu honetako I. atalean aipatu ditugu bertsolaritzaren hainbat ezaugarri iradokitzaile:

- Serieko erreprodukzioerik eza
- Entzulearen partehartzea
- Feedbackaren erabateko garrantzia
- Publikoaren izaera integratua, zentzu kolektibo eta zuzena
- Bertsolariaren eskuragarritasuna

Ezaugarri hauek baliotsuak izan daitezke, eta hala dira adierazpen kultural honen protagonistentzat. Bertsolaritzari lotutako balioak dira, balio xumeak beharbada. Noizbait masa-kulturak berreskuratu nahiko dituen agian. Ala ez. Zernahi gisaz, balore horiek gure gizarteak *kulturatzat* duen giza-jarduera multzoak izan behar lukeenera hurbiltzen ote diren galdetzen dio bere buruari bertsolaritzaren mugimenduak, kulturak izan beharko lukeenari ekarpenik egiten ote dioten, alegia.

Masa-kulturaren ikuspegi kritikoak adierazten digu ikuskizun-merkatu erraldoiak abiadura handian mugitzeko gai diren merkantziak bakarrik onartzen dituela, zentzurik edo edukirik ez badute ere. Kritika honen kontzeptuez baliatuz, bertsolaritza ziztu handian ibiltzeko gai ez izan arren, zentzurik ba ote duen galdetzen du bertsolaritzaren mugimenduak, edo edukirik transmititzen ote duen.

Esan daiteke, galderaren erantzuna baiezkoa izanik, bertsolaritzaren mugimenduak abiadura biziagoa ematea erabaki duela, egungo kulturbi-deetan bizi dadin. Ez, hala ere, oraingo merkantzia arrakastatsu eta iragankorren ohiko abiadura azkarra, baina bai bertsolaritzaren mugimendua ausartzen den adinako abiadura. Funtsean, bizitzeko adinakoa. Bizi, hori bai, asko kritikatu arren bere baitan gauzkan eta partaide gaituen gizarte eta espektakulu-merkatu honetan.

3.2 Bizi, ez iraun

Bertsolaritzaren mugimenduaren planteamendua ez da masa kulturaren ezaugarri guztiak mespretxagarriak direla eta bertsolaritzaren ezaugarri

idiliko guztiei eutsi behar zaiela kosta ahala kosta. Ez du irudi hainbeste mendetan iraun duen euskaran eta bere kulturaren jarrera hori dagoenik sakonean. Jarrera horiekin seguru asko ez bertsolaritza eta ez euskara ere ez lirateke biziko. Bertsolaritzak gaurkotasunean bizitzeko apustua egin du, gaurko errealitatean eta biharkoan.

Posible ote da, ordea, indarrean dauden joera eta baldintzetan *funtzionatzearen* eta nor izatearen arteko balantzari eustea? Non dago moldatzearen eta nortasunaren arteko oreka puntua?

Sekula agortzen ez den galdera da, sustrai luzedun kultura kokorrek behintzat etengabe erantzun beharrekoa. Moldatzearen eta nortasunaren arteko oreka puntuaren galderak badu erantzun bat bederen: jarrera sortzailea. Oreka zail hori aurkitzeko bidelaguna, norbere tradizioa maitatzeak eta gaurko errealitatera zabaltzeak bien artean sortzen duen tentsio sortzailea da. Bertsolaritzari ere senak hori esaten diola dirudi.

Kapitulu honetako 1. atalean aipatzen diren bertsolaritzaren ezaugarriak eta aipatu gabe utzi diren beste batzuk ondare baliotsuak dira. Gaurko bertsolariak eta bertsolaritzaren mugimenduak jaso dute ondare hori; eta jasotzeaz gain garatzea eta gaurkotzea erabaki dute. Garatzeak eta gaurkotzeak, baina, moldatzea eta aldatzea esan nahi du, zentzua eta arrakasta izaten jarrai dezan (ez, ahal dela, zentzurik gabeko arrakasta) egungo kulturbide erdi-arrotz, konplexu eta aldakorretan.

3.3 Garatzearen arriskua hartu

Bertsolariak, eta orokorki mugimendu honetan engaiatu direnek, gune eta formatu berrietan saiatzearen alde jokatu dute, telebistan sartzearen alde, bertsolaritzak orain arte ukitu ez zituen forma eta eremuak bilatzearen alde.

Honek hainbat kontraesan, arrisku eta distortsio ekarri ditu. Distortsio

horien aurrean adi egoteko jarrera izan du, neurri batean, bertsolaritzaren mugimenduak. Adibidez, asteroko antologia biltzen duen audientzia dezenteko programa batekin telebistan sartzea bertsozaletasuna hedatzeko energia handia da. Baina energia horrek energia nuklearraren ezau-garriak izan ditzake: bere indarragatik, hain zuzen, arrisku handiak ditu, nola erabiltzen den kontrolatu ezean. Audientzia handiak bertsolarien izena eta mailaketa erregulatzeko bide nagusi bilaka dezake telebista. Edo antologiak egiterakoan telebistak dituen ikus-entzunezko arauen baldintzek bertsolaritzaren pertzepzioa alda dezakete. Edo komunikazio zuzenak, *feedbackak*, balekotasunak, izaera partehartzaileak eta ezaugarri interesgarri funtsezkoek indarra gal dezakete. Arriskuak asko dira, eta kezkarriak.

Arriskuak hor direla jakin arren, borroka eremu horretantxe jokatu nahi du bertsolaritzaren mugimenduak. Bertsolaritza biziarazten jarraitu nahi du, bide berriek dakartzaten aldaketei aurre eginez, bat-batekotasun kantatuaren muinari eutsiz eta, ahal dela, muin hori sekula baino sakonago garatuz, bere xumetasunean, bere biluztasunean, inprobisazioaren benetakotasunean.

Zalantza eta kontraizanen artean, 2001. urtean bertsolaritzaren errealitatea interesgarria dela esan daiteke, maila ezberdinetako adierazleei so eginda: emanaldien kopurua eta kalitatea, inprobisazioaren benetakotasuna, antolaketa gaitasuna, harrera soziala, sortzaile gazteen eraberritzea, eskolako zabalkundea.

4 Garapenaren lau gako

XXI. mendeko masa-kulturaren barruan nola jarraitu bertsolaritzaren muina garatzen? Nola mantendu, moldatu eta hobetu bere gizarte-oihartzuna eta euskal komunitateari egiten dion ekarpen kultural, intelektual eta ludikoa?

Orekak eta erronkak.
Zertarako dira
sustraiak?

Garapenaren lau gako

Bertsolaritzaren mugimendua erantzunen bila ari da. Erantzun biribilik ez, beraz, baina beharbada egiten ari den bide honen gako batzuk bereizteko moduan gara. Egungo ingurune soziokulturalean bertsolaritzak lortu duen garapenaren hiru gako aipatuko ditugu:

4.1 Autokonfiantzazko jarrera

Norberarenganako konfiantza beharrezko jarrera da inprobisatzaile, *repentista* edo bertsolariarentzat. Bizitzaren aurreko jarrera baten metaforizatut ere har daiteke *repentismoa*, inprobisazioa; merezi luke gai hori jorratzeak, baina ur sakon horietan sartzea ez da liburu honetako zereginna. Bertsolariak bertsoak sortzen ditu, inprobisatu egiten du. Baina beste maila batean bertsolaritzaren mugimendua ere nolabait inprobisatzen ari da, masa-kulturaren desafioen aurrean kultur-ondare honen bideak asmatzen dihardu. Bide hori inprobisatzailearen autokonfiantza berarekin egin beharrekoa da, eta egin ere hala egin da orain arte, neurri batean. Maila ezberdinetan agertzen da bertsolaritzaren mugimenduaren konfiantza hau. Balio beza horren erakusgarri Dezima eta Bertso Inprobisatuaren Iberoamerikako IV. Jaialdi-Jardunaldietan euskal bertsolaritzaren ordezkariak aurkeztu zuen testuaren zati honek, bertsolaritzak behar dituen autokonfiantza mailak aipatuz:

| —Garenarekiko eta nahi dugunarekiko autokonfiantzazko jarrera. Gure hizkuntza eta kulturaren biziraupeneko desafio zailaren aurreko autokonfiantza.

Kanpoko erreferentziarik gabe, ipartzat hartzeko moduko bide-erakuslerik ezean eta inorekin homologatu ezinik, asmatu beharreko bidean aurrera joateko konfiantza:

| —Ikur ezberdineko presio politikoen aurreko autokonfiantza, gure herriak bizi duen eta kultur zereginetan ere eragina duen ataka politiko luzean.

Ahozkotasunaren hipertrofia eta idatzizko ekoizpenaren parean erdipurdiko izatea egozten diguten intelektual eta literatur munduko ahotsen aurreko autokonfiantza. Inguruko kultura indartsuekin konparatuz ahozkotasunaren garapen ezohiko eta anormala (inguruko *normara* makurtzen ez dena) izanagatik, besteren kanon eta orekak kopiatu beharrik ez daukagula ohartzen baikara, haiek hedapen gaitasunari dagokionez gu baino kultura indartsuagoak izan arren. Azken finean, pertsona eta sortzaile bezala balio diguna estimatzen duen konfiantzazko jarrera, ondareztat jaso dugun adierazpen honetan sumatzen ditugun balioei gozamenaz eutsiz.

Geure apustuek (telebistak, teknologia berriak, formatu berriak...) ekaritzen dituzten arrisku eta distorsioen aurreko autokonfiantza. Arrisku horiek gainean hartuz ere aurrera egin dezakegula pentsarazten digun konfiantza, garbi edukiz helburua ez dela eustea, sortzea baizik, ez dela irautea, bizitzea baizik. Sortuz eta biziz soilik hartzen du bere zentzua gure tradizioak.

Garapenaren lau gako

4.2 Belaunaldien transmisioa

Bertsolaritzaren mugimenduak azken bi hamarkada hauetan belaunaldi gazteenganako transmisioaren aldeko apustu nabarmena egin du. Bertsoa sustatzeko ekintza guztiak etengabe izan dute gogoan bertsolari gazteei bideak ematea.

Bertsolaritza irakaskuntzan txertatzeko lan handia egin da azken hogeitun urteotan. Bertso-eskola eta bertso-talde berriak sustatu dira. Eta, batez ere, aurrera joateko gaitasuna erakutsi duten gazteei arreta berezia jarri zaie. Horrekin guztiarekin entzule gazteen artean zaletasuna ere finkatu egin da, bertsolariek (batzuk eurak bezain gazteak) beren kezka eta gus-tuei erantzuten dietela ohartzen baitira. Ereindako haziak fruituak eman dituela esan liteke.

2001eko Bertsolari Txapelketa Nagusiko bertsolari parte hartzaileak eta bertso-eskolarekiko harremana.

2001eko Bertsolari txapelketa Nagusiko bertsolari parte hartzaileak eta bertso-eskolarekiko harremana

Bertsolaria	Bertso-eskola	Adina24
Amaia Agirre	<i>Tolosako Bertso-eskola</i>	26
Unai Agirre	<i>Hernaniko Bertso-eskola</i>	23
Ainhoa Agirreazaldegia	<i>Leintz bailarako Bertso-eskola</i>	26
Estitxu Arozena	<i>Bortzirietako Bertso-eskola</i>	18
Amets Arzallus	<i>Hendaiako Bertso-eskola</i>	40
Andoni Egaña		40
Bittor Elizagoien		26
Igor Elortza	<i>Durangoko Bertso-eskola</i>	20
Nerea Elustondo	<i>Legazpiko Bertso-eskola</i>	23
Oihane Enbeita	<i>Muxikako Garriko Bertso-eskola</i>	24
Arkaitz Estiballes	<i>Santutxuko Bertso-eskola</i>	28
Arkaitz Goikoetxea	<i>Oiartzungo Bertso-eskola</i>	21
Ekaitz Goikoetxea	<i>Gipuzkoako Goierriko Bertso-eskola</i>	28
Bixente Gorostidi	<i>Tolosako Bertso-eskola</i>	27
Iratxe Ibarra	<i>Markina-Xemeingo Bertso-eskola</i>	29
Jexux Mari Irazu	<i>Hernaniko Bertso-eskola</i>	27
Unai Iturriaga	<i>Durangoko Bertso-eskola</i>	19
Sustrai Kolina	<i>Hendaiako Bertso-eskola</i>	32
Aritz Lopategi	<i>Gernikako Bertso-eskola</i>	25
Maialen Lujanbio	<i>Hernaniko Bertso-eskola</i>	29
Jon Maia	<i>Zumaiako Bertso-eskola</i>	26
Aitor Mendiluze	<i>Hernaniko Bertso-eskola</i>	45
Mikel Mendizabal		29
Joxe Munduate	<i>Gipuzkoako Goierriko Bertso-eskola</i>	19
Igor Muniategi	<i>Gernikako Bertso-eskola</i>	45
Iñaki Murua		26
Iñigo Olaetxea	<i>Bortzirietako Bertso-eskola</i>	30
Asier Otamendi	<i>Gasteizko Bertso-eskola</i>	20
Fredi Paia	<i>Algortako Bertso-eskola</i>	

Garapenaren lau gako

Bertsolaria	Bertso-eskola	Adina
Juanjo Respaldiza		37
Ruben Santxez	<i>Gasteizko Bertso-eskola</i>	26
Aitor Sarriegi	<i>Gipuzkoako Goierriko Bertso-eskola</i>	25
Xabier Silveira	<i>Bortzirietako Bertso-eskola</i>	25
Jokin Sorozabal		34
Arkaitz Ugartetxea	<i>Mallabiko Bertso-eskola</i>	23
Iñaki Zelaia	<i>Hernaniko Bertso-eskola</i>	28
Aritz Zerain	<i>Hernaniko Bertso-eskola</i>	28

Kultur-adierazpen askoren ohiko ezaugarrietako bat da belaunaldien arteko haustura, eta bertsolaritza ere ez dago joera horretatik kanpo. Hala ere, esan liteke transmisioa hausturari gailendu egiten zaiola bertsolariengan. Izan ere, bertsolariak oholtza konpartitzen dute, bertsotan elkarrekin gaiak eta temak partekatzen dituzte, inprobisazioa elkarrekin txirikordatzen dute. Horretan guztian, zaharren edo zaharragoen esperientziak balioa du gazteagoentzat. Bertsolarien artean ohikoa eta benetakoa da beteranoenganako errespetua, nagusiak erreferentzia izatea gazteagoentzat. Sortzaileen artean belaunaldi arteko hartu-eman interesgarri bat bada, gorabeherak gorabehera.

Garapenaren lau gako



X.Zeberio, A.Sarriegi, J.Munduate eta Mañukorta Iturria: XDZ

4.3 Antolakuntza autoeratu: Bertsozale Elkarteak

Liburu honetan deskribatzen den mugimendu hau guztia posible egin duen giltza Bertsozale Elkartearen sorrera izan da. Beronek bildu du bertsolaritzaren inguruko mugimendua eta maila guztietan sustatu du kultur jardun hau.

Izan ere, antolatzeko bide berezi bat hartu zuen bertso munduak 1986 inguruan. Hain zuzen ere horixe: bere burua antolatzeko erabakia, autoeratzeko erabakia. Bertsolaritzaren geroa kanpoko faktoreen esku utzi gabe, bertsolaritzan hala edo hola inplikaturik sentitzen direnen elkar-gunea sortu eta proiektu baten inguruan lan egitea izan du ipar. Hitz gutxitan laburbiltzen da bere proiektua: bertsolaritza biziberritzeko oinarriak jartzea.

A | Erakundearen ezaugarri orokorrak

Bertsozale Elkarteak 1.400 bazkide ditu. Euskal Herriko lurraldeetan deszentralizatu dago: Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Araba eta Iparraldean elkarte federatu bana dago martxan, eta guztien artean osatzen dute Euskal Herriko elkarteak. Bertsolaritzaren inguruko hainbat eragile biltzen ditu (bertsolariak, bertso-jartzaileak, gai-jartzaileak, epaileak, irakasleak, antolatzzaileak, bertsozale engaiatuak), guztien artean estrategiak marraztu eta hainbat esparrutan ekintzak aurrera ateratzeko: Dokumentazio Zentroaren kudeaketa, hedabide eta erakundeekiko negoziazioak, txapelketak, ekitaldi bereziak, bertso-eskolen koordinazioa, ikerketa, argitalpenak, nazioarteko harremanak eta abar eta abar.

Hamabost urteko ibilbidean, pixkanaka kultur proiektu bat marraztu da, erreferentzia argi batzuekin jokatzeko oinarriak jarri dira. Elkartearen iparra, bertsolaritzaren kultur proiektua, hiru ardatzetan marrazten da: belaunaldi-transmisioa, hedapenaren antolaketa eta dokumentazioa-ikerketa. Badu, gainera, hiru ardatzak biltzen dituen laugarren bat:

Garapenaren lau gako

lurraldetasuna. Alegia, proiektua euskararen lurraldetasun osoan gartztea, hizkuntzaren bizitasunaren aldetik unerik zailenetan dauden lurraldeak bigarren mailan utzi gabe.

1986ko hasiera hartatik argi zegoen ez zela bertsolarien elkarte. Elkar-tea bultzatzen eta bertako zereginetan pisuaren zati handia bertsolari ez diren bertsozaleek izan dute eta dute. Hau ikuspegi kualitatibotik hala bada, zer esanik ez kuantitatibotik, elkarteko 1.400 bazkideetatik apenas baitira 200 bertsolariak, eta hauetatik hogeikoren bat une honetan elite-an dabilzanak. Hala ere gizarteak hasieran bertsolarien elkarte moduan ulertu zuen, izenak ere (Bertsolari Elkarte) hartarako bidea ematen bai zuen. Izenaren eta izanaren arteko desoreka hau hausten hasteko izena aldatu zitzaion 1995ean: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.

Garapenaren lau gako



Bertsozale Elkartearen ikurra, Jorge Oteizak elkartearen eskuan jarria.

B | *Bertsogintza eta bertsolaritza: sorkuntzaren esparrua eta antolaketa-aren esparrua*

Urteotako ibilbidean bi aspektu bereizi dira. *Bertsogintza* hitzarekin izendatzen da bertsolarien jarduna, plazaz plazako zeregin artistikoa, sorkuntzaren esparrua. Esparru horretan, bertsolari kolektiboari soilik dagozkien kontuetan, Bertsozale Elkarte ez da sartzen. Sorkuntza bertsolariei dagokie, eta sortzailearen askatasunetik garatu behar dute, erakunde-interesei lotuta egoteke. Zorionez, ekonomikoki autoerregulatzen den jardun artistikoa da bertsogintza, dirulaguntza berezirik behar eta nahi ez duena. Hala, ez dago laguntza publikoak lortuko dituen antolakuntzaren mende, eta bere bidea modu natural xamarrean egiten du gizarteko eskariaren arabera.

Bertsolaritza, aldiz, bertsoaren inguruan sortzen den kultur proiektua izendatzeko erabiltzen da: transmisioa zaintzea, irakaskuntzan egin leza-keen ekarpena aztertzea, ikerkuntzarako bideak jartzea, kulturgintza honen hedapen bideak jorratzea, bertso-eskolak koordinatzea, hedabide politika finkatzea, nazioarteko harremanak jorratzea eta beste hainbat funtzio.

Bertsolaritzaren kultur proiektua Bertsozale Elkarteak hartzen du bere gain bete-betean. Kultur proiektu honek forma hartu du 15 urteko esperientzia eta eztabaiden ondoren. Euskal Herri osora begira egindakoa da, epe luzerakoa eta bertsolaritzan inplikaturik sentitu nahi duten guztien artean eramana, hau da, Elkartearen inguruan gorpuztua.

C | *Bertsolaritza kultur proiektuaren ardatzak*

Elkartearen ibilbidean, hasierako 'bertsolaritza bultzatu nahi' hartatik proiektu sendoago bat mamituz joan da pixkanaka. Gorago esan den bezala, hiru ardatz ditu proiektu horrek: transmisioa, bilketa-ikerketa eta hedapena. Eta sentsibilitate osagarri bat: lurraldetasuna.

Aletu ditzagun laburki bertsolaritzaren proiektuko ardatzak edo, beste era batera esanda, Bertsozale Elkartearen lan-ildoak:

- **Transmisioa:** Belaunaldi berrietara bertsolaritzaren transmisioa ziurtatzea du ipar. Bi lan-ildo nagusi ditu alor honek: batetik, irakaskuntza arautuan txertatutako bertsolaritzaren jarraipena egitea eta, bestetik, bertso-eskolak. Euskal Herriko hezkuntzan bertsolaritzak eta, zabalago hartuta, bertsolaritzak eta ahozko sorkuntza artistikoek egin behar duten ekarpena ikertzea eta sekuentzia didaktikoak eskaintzea da Elkarteak esku artean duen lanetako bat. Bestetik, eskola arautuaz kanpoko bertso- eskolen koordinazioak ahalegin berezia eskatzen du, izan ere, euskal herrietan zehar hedaturik dauden bertso-eskola hauek baitira gaurko eta biharko bertsolaritza mugimenduaren gune eta hazitoki.

Garapenaren lau gako

■ **Hedapena:** Bertsolaritzaren hedapen eutsia eta orekatua lortzea du ipar lan-ildo honek. Kontua ez da besterik gabe eta ‘zenbat eta gehiago, hobe’ lelopean bertsoa hedatzea, baizik eta modu eutsigarri batean zale-tasuna sendotzea. Hainbat fronte kontuan izatea eskatzen du: hedabide-etan bertsolaritzak izan dezakeen presentzia zaintzea, lurraldean lurraldeko bertsolaritza sustatzea, saio bereziak antolatzea, txapelketak egitea, argitalpenak ateratzea eta, oro har, hedapenarekin zer ikusia duten ekimenak martxan jartzea.

■ **Bilketa-ikerketak:** Hirugarren ardatzaren iparra bertsolaritza ikerketaren eta dokumentazioaren alorrean txertatzea da. Bertsolaritzaren emaitzak modu ez orokor baina bai sistematikoan biltzen eta kultur-arlo hau gaur eta biharko ikerbideetan sartzen hasia dago. Bertsolaritza jakingai eta aztergai izan dadin oinarritzko tresna nagusia Xenpelar Dokumentazio Zentroa da. Elkartearen apustu estrategikoa da, zalan-tzarik gabe. Une honetan hiru profesional ari dira bertako lanetan buru-belarri, eta oraingoz 20.745 dokumentuko bilduma osatu du. Azken 10 urteotan bai antolakuntzan eta bai dirutan ahalegin handiak egin ditu Bertsozale Elkarteak Xenpelar sortu, eutsi eta garatzeko. 1997tik aurrera, Elkarteak bidearen zati bat bakarrik eginda gero, hainbat erakunde publikok ere parte hartzen dute beronen finantziazioan. Xenpelar dugu, gainera, atzerriko beste zentro, ikerlari eta esperientziekin harremanak bideratzeko plataforma egokia. Bestetik, hirugarren ardatz nagusi honetan sartzen dira bertsolaritzaren inguruko ikerketa eta gogoeta bultzatzeko beste hainbat ekintza: Bertsolamintza Jardunaldiak, UEU eta EHUko Udako Ikastaroetan egindako Topaketak, ikerketa bereziak eta abar. Bertsolaritzaren ikerketa-politika marraztea, oro har, lan-ildo honi dagokio.

■ **Lurraldetasuna:** euskararen lurraldea da bertsolaritzarena. Hasieratik Euskal Herri osoko jendea inplikatu da Bertsozale Elkartearen. Iparraldean, Gipuzkoan, Araban, Bizkaian eta Nafarroan antolakuntza bana sortu da. Une honetan EHBE bost elkarte horien bilgunea da. Izan

ere Bizkaiko Bertsozale Elkarte, Arabako Bertsozale Elkarte, Nafarroako Bertsozale Elkarte, Iparraldeko Bertsularien Lagunak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak federazio bidez gorpuzten dute EHBE. Antolakuntzaz aparte helburuetan ere lurraldetasuna beti presente dago: euskararen osasuna ahulen dagoen lekuetan ahalegin eta inbertsio bereziak egitea dagokio Bertsozale Elkarteari.

D | *Bertsolaritzaren autoeraketa: gizartegintza modu bat kultur arloan*

Beren esparrua autoeratzearen aldeko apustua egin du bertsolaritzaren mugimenduak. Autoeraketa honen oinarriak hauek izan litezke, guztiak ere elkartearen ibilbidean intuizio mailan garatuak:

- Inplikatuaren borondatezko partaidetza.
- Arrazoi ideologikoengatik mugarik eza eta barne aniztasunaren aitortzea.
- Antolakuntza partehartzaile eta demokratikoa.
- Tokian-tokikoaren errespetua edo subsidiaritate printzipioa: lurraldekako eta taldekako estilo eta erabakiak lehenetsiz zentralismo demokratikoaren aurretik.
- Eztabaidaren kultura eta jarrera desberdinen garapena: adostasun umotu eta landua, gehiengo-gutxiengo jokoaren gainetik.
- Borondatezko lanaren eta lan profesionalaren arteko konbinaketa. Lan profesionalari dagokionez, merkatuko maila duina erreferentziazat duen ordainketa-politika.

E | *Kanpo-harremanetarako politika*

Bertsozale Elkarteak harreman-bideak irekita ditu euskalgintzako erakundeekin, Euskal Herriko erakunde publikoekin, euskal gizarteko alderdi politiko, mugimendu eta beste eragileekin eta nazioarte mailako inprobisazio esperientzien protagonista nahiz ikerlariekin.

Administrazioari dagokionez, EHBEak interes publikokotzat jotzen dituen proiektuetan finantziazioa eta elkarlana eskatzen eta eskaintzen die Euskal Herriko administrazio desberdinei. Neurri batean, bertsolaritzaren kultur proiektuak badu autonomia maila bat administrazioen kultur-politikekiko; izan ere, oinarri duen sorkuntza-jardunak, bertsogintzak, autoerregulazio ekonomiko handia baitu bere izaera apalagatik, eta ez du administrazioaren laguntzekiko menpekotasunik. Hala ere, egia da Bertsozale Elkartearen lan-ildoetan (transmisioa, hedapena, bilketa-ikerketak) badela administrazioekiko elkarlanerako esparru zabal bat.

Garapenaren lau gako

Hori horrela, Bertsozale Elkartek bere gorabeherak izan ditu administrazioekiko harremanetan, eta hainbat aldiz bere desadostasuna adierazi izan du zenbait administrazioek kultur-politika planteatzeko izan duten moduaren aurrean. Horretan, Bertsozale Elkartek, gizarte zibileko mugimendua den aldetik, agertu izan du eskubidea duela administrazioaren jokoerak baloratzeko eta kultur-politika baterako bere ikuspegia azaltzeko. Era berean, Bertsozale Elkartek aldarrikatu izan du bere eskubide eta betebeharrak demokratikoa gizarteari jakinarazteko administrazioekin dituen harremanen nondik norakoak (bai onerakoak eta bai txarrerakoak), nahiz eta horrek arazo bat baino gehiago ekarri, eta dirulaguntzaren bat edo beste arriskuan jarri.

Azken urteetan elkarlea nazioarteko harremanak lantzen ari da bereziki, ahozko inprobisazioaren inguruko nazioarteko topaketetan parte hartuz. Une honetan topaketa horiek Iberoamerika eta penintsulako esparrura mugatzen dira. Ikuspegi zabalagoko harremanak sortzen hasia da Bertsozale Elkarlea, nazioarteko sare zabalago bat indartzeko asmoz, bost kontinenteetako ahozko inprobisazio kantatuaren protagonista eta ikerlariak bilduko dituen topaguneak sortzeko ametsa ipar hartuta.

III

BAT-BATEKO BERTSOAREN SORKUNTZA PROZESUA

Bat-bateko bertsoa, izenak berak ere hala dio, bat-batean sortzen da.

Inprobisazioa —daitekeena da Euskal Herrian eta hain zuzen ere bertsolaritzaren eraginez horrelakorik ez gertatzea—, ez dago beti ongi ikusia egungo gizartean. Bat-batean ari dena, aldezturik ezer planifikatu eta taxutzeko gaitasunik izan ez duelako ari liteke bat-batean. Horrelakoetan, bat-batean aritzea azken orduko irtenbide baino ez da, eta bat-batekoaren emaitza beti izango da eskasa eta iragankorra. Hori da, beharbada, bat-batekotasunari buruzko ikuspegirik hedatuena.

Inprobisatzearen alde ona ere aipatzen da ordea askotan. Bat-batean honako edo halako jokaldi sumatu duen futbolaria edo edozein arazoren aurrean bat-batean konponbidea asmatzen jakin duen teknikaria, pertsona talentudun, argi eta injeñiotsutzat hartua izango da.

Bertsolarien kasuan bat-batekotasunak ez du zerikusirik aldezturik zerbait taxutzeko gaitasun faltarekin eta pertsona bereziki talentudun eta argia izatearekin ere ez. Bertsolariarentzat bat-batean aritzea bere sentimenduak eta ideiak azaltzeko era bat da. Eta era hori aspalditik datorren kultur ondarearen zati gisara jaso du gaztetxotatik. Bertsolariarentzat bat-batean jardutea, bere buruarekin eta inguruarekin duen harremana

ulertzeko modua da; joko-arauak dituen modu jolastia.

Bat-bateko bertsoak badu magia itxurarik baina ez da magia. Entzuleak adi egongo dira bertsolariak kapelatik untxi txuria noiz aterako. Baina badakite kapelak ez duela ezkutuko atalik; gehienez ere bertsolariaren arrazoiketarako eta kanturako gaitasuna. Bertsoak bat-batean botatzen dituenak ez du erabiliko inolako tranpa edo trukurik. Ez da injenio izugarri baten edo talentu neurritz gaineko baten emaitza ere.

Paradoxa badirudi ere, bat-batean aritzea oso ongi planifikaturiko ekintza da bertsolariaren kasuan. Aldez aurretik trebatu da une jakin batean sor daitezkeen antzeko egoeren aurrean bat-bateko erantzun bat emateko. Bat-bateko bertsogintzaren arauak bereganatu ditu oso (doinuak, errimak, neurriak...) eta bereganatze horren ondorioz zenbait arau gale-
ra eta zailtasun gertatu beharrean, askeago sortu ahal izateko erabiliko ditu. Ohitu da inguruko orori begia eta belarria itsasten, ikusia eta entzuna buruan gorde eta buruan ordenatzen, bat-batean aritu behar duen unean baliagarri gerta dakion.

Azken batean, bertsolariarena, pilatze eta hornitze lana da lehenik eta behin. Almazena bete eta ordenatu egin beharko du, unerik egokienean erakusleihu txukun eta erakargarria atondu ahal izateko. Jakineko kontua da erabat bat-batekorik ez dela. Hutsetik abiatutako berbaldirik nekez osatuko du inork. Orduan zertan datza bat-bateko bertsogintzaren erakargarritasuna? Gainerako arte-ekimenetan ez bezala, bat-bateko bertsogintzan aldi berean egiten da sortu eta sormenaren emaitza erakutsi. Bertsolaria sortuz doan ahala ari da entzulea sormenaren emaitza jasotzen. Hartara, igortzailea eta jasotzailearen arteko harremana askoz ere estuagoa da.

Duela zenbait urte itsasoaren beste aldetik azken orduko hitzak iristen hasi eta purian jarri zirelarik, “performance” hitzak harritu gintuen, zer-

bait berri, handi, bitxi, harrigarrietan harrigarriena zelakoan. Halako batean, ordea, hitz dotore horrek adierazten duena bat-bateko bertsolariek betidanik egin izan dutena baino ez zela jabetu ginen.

1 Formari dagozkionak

Bat-bateko bertso bat osatzeko badira zenbait forma alderdi eta horiei buruz arituko gara datozen orrialdeetan. Bertsoa berbaldi bat da, kantatuz, errimatuz eta neurtuz burutzen dena. Berbaldi bakoitzak, edukiak eduki, beti izango du doinu bat, errima bat eta neurri bat. Kantatzen, errimatzen eta neurtzen dakienak, bat-bateko bertsogintzaren gutxieneko arau teknikoak betetzen ditu beraz. Hori ez da ordea, bertsogintzaren alderdi teknikoa baino. Bertsoari kalitate maila bere arrazoibidearen indarrak edo bere balio poetiko-erretorikoek emango diote.

1.1 Doinua

Munduan zehar ezagutu ditugun beste inprobisatzaile gehienek (kubarrak, mexikarrek, kolonbiarrek, mallorkarrek...) musika-tresnaren baten laguntzaz egiten dute beren lana. Bertsolaria musika-tresnarik gabe aritzen da. Baina bere berbaldia beti da berbaldi kantatua.

Erabiltzen dituen doinuak gehienetan, usadiotik datozenak dira, autore jakinik gabeko doinuak, mendez mende herriak gorde dituenak. Badira beste doinu batzuk bertako kantariei ikasiak, edota kanpoko kantariei hartuak, beti ere neurritz parera baldin badatoz. Eta badira bertsolarien eskariz musikariren batek propio sortutako doinuak ere. Hiru dira beraz, bertsolariek beren doinutegia osatzeko darabiltzaten iturri nagusiak:

- Usadiozko doinu herrikoiak.

- Neurritz parera datozen doinu berriak.
- Propio osatutako doinuak.

Bertsolariek darabiltzaten doinu kopuruari dagokionez, Juanito Dorron-sorok, arlo honetan dugun ikertzailerik behinenak, 2.775 bildu eta sailkatu ditu. Egia da ordea, garaian doinu jakin batzuk jartzen direla purian eta bertsolariek ez dituztela bi mila eta zazpirehun doinu horietatik ehunkadaren batzuk baino erabiltzen jendaurreko ekitaldietan.

Musikaren laguntzarik gabeko berbaldi batean, bertsolariaren ahotsa garrantzitsu bihurtzen da bere berbaldiaren edukiak adierazteko orduan. XX. mendearen erdi aldea arte bertsolariak nahitaez behar zuen ahots sendo indartsua edozein plazatan aritu nahi bazuen. Gerora, bozgorailuen iritsierarekin, baldintza horri leundu egin zitzaion ezinbestekotasuna.

Formari dagozkionak

Egun, ahots indartsu edo ahots ona baino garrantzia handiagoa du une bakoitzean, leku bakoitzean eta eduki jakin bakoitza adierazteko kantara egokia erabiltzen asmatzeak. Komunikazioaren arrakasta edo porrota ez dago bertsolariaren ahotsaren kalitatearen baitan, aukeraturiko doinuaren eta hura kantatzeko moduaren egokitasunean baizik.

Izan ere, aipaturiko 2.775 doinu horietan, batzuk badira sentimendu epiko indartsuak adierazteko egokiak; beste batzuk sentimendu dramatikoa adierazteko dira pare-parekoak; kontaerarako egokiak direnak badira; eta baita deskripziorako aukera ematen dutenak ere. Esan nahi den hura esan-indarrez adierazi ahal izateko doinuaren aukeraketa da alderdirik erabakigarrietakoa bertsotako komunikazio harremanean.

1.2 Neurria

Bertsolariak bertsoa neurri jakin bati atxikia osatzen du. Edo neurri jakin batzuei, zehazkiago esanda.

Bertso bakoitzak oin kopuru jakina du, eta oin hauek berriz, silaba kopuru jakina. Ez gara hemen sartuko bertsolaritzaren ikertzaile handi izan diren Lekuona osaba-ilobek bertsolariek silaben kontzepturik bazuten edo ez zalantzan jarriz iradoki zuten eztabaida tentagarrian. Koldo Mitxelenaren hitzak ekarriko ditugu gogora: “Antzina-antzinako kantuak albo-ra utzita, metrika aldetik oso gorabeheratsuak baitira horiek, gainerako estrofa moldeek silaba kopurua eta errima dute oinarri, ‘mester de clerecía’ koek bezala”.

Bertsolariak, bat-batean ari delarik, ez du sekula silaba kopurua zenbatzen. Lan eskerga litzateke, eta esker txarrekoa. Bertsolariak badaki kantuan hasi aurretik aukeraturiko doinua ze neurritakoa den. Doinua luze-laburtu gabe ari bada, badaki zenbatu gabe ere zenbat silaba sartzen ari den oin bakoitzeko. Doinua behartzen badu, luzatzeko edo laburtzeko, bertso horren neurrietatik kanpora ari da, eta, beraz, bertsoaren osagai bati ez zaio ari men egiten.

Formari dagozkionak

Neurria da bertsolariari buru-hausterik gehien sortzen dion alderdietariko bat. Doinuak eta errimak laxotasun handiagoa dute (kantatu edo errimatu daiteke oso ondo, ondo, ez hain ondo, erdipurdi, gaizki, oso gaizki..., baina neurriak ez du inongo eskalarik onartzen. Ongi neurtuko dugu edo gaizki. Ez da erdibiderik. Badira halere, doinu jakinen batzuk, ohituraren poderioz 7/6 egin ordez 8/6 egiten dena. Baina doinu gutxi dira eta inork ez dauka oso argi horrelakoetan legeak edo ohiturak hartu behar lukeen gaina.

Bertsolariaren alde zuretik prestakuntzarako ere, neurria da alderdirik gaitzena. Errimak, doinuak eta edukiak berak ere har daitezke buruan, gorde, ordenatu, egokitu... une jakin batean erabili ahal izateko. Neurriarekin ez da horrelakorik gertatzen. Neurrian ondo jarduteko jardun egin behar du. Beti jardunean aritzeak ziurtasun handia ematen badu ere, bat-batean ari denak beti izango du neurrian huts egiteko arris-

kua. Eta neurri akats batek izugarri itsustuko du bestelakoan ederra eta pindartsua izan zitekeen edozein bertso.

Bat-bateko bertsogintzan gehien erabiltzen diren neurriak honako hauek dira:

Zortziko handia

----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A.

Formari dagozkionak

Zortziko handia beraz, lau puntutako ahapaldia da. Lerro bakoitzean hamar silaba ditu eta zortzi bikoitzetan, errima-hitza ere azken hauetan doalarik. Errima, berriz, beti sail berekoa izango da.

Aipatzekoa da ezagutzen ditugun kanpoko inprobisatzaile gehienek ere zortzi silabako lerroetan burutzen dutela euren bat-bateko lana. “Décima” deritza, besteak beste, kubatarrek, alpujarretakoek, edo kanariarrek darabilten ahapaldiari eta “décimak” zortzi silabako hamar lerro ditu.

Hamarreko handia

Zortziko handiaren egitura bera du baina puntu bat (edo bi lerro) erantsiko dizkiogu. Horrek esan nahi du zailtasuna gehitu dugula bosgarren errima-hitza ere aurkitu beharko baita. Ahapaldi mota hau, oro har, lehengoa baino egokiagoa izan daiteke berbaldi landuagoak adierazteko, testuak berak leku gehiago baitu zortziko handian baino.

----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A.

Zortziko txikia

Zortziko txikian, zortziko handian bezala, lau puntu eta zortzi lerro izango ditugu, eta errimak lerro bikoitzen bukaeran jarriko. Baina lerro bakoitzaren silaba kopurua aldatuko da. Silaba kopurua urriagoa izatean, berbaldia laburtu egin beharko dugu eta ondorioz neurri-mota hau egokiagoa izango da gehienetan temako egoera bizi eta umoretsuetarako, berbaldi luze dramatiko eta epikoetarako baino. Baina zer-zertarako gai honetan ez dago erabateko baieztapenik egiterik.

----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 6 A.

Formari dagozkionak

Hamarreko txikia

Aurrekoaren egitura bera du, baina puntu bat eta errima bat erantsirik.

----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 6 A.

Formari dagozkionak

Bestelako zenbait egitura

Arestian aipaturiko ahapaldi-motak dira plazaz plazako jardunean maizen erabiltzen direnak. Badira ordea beste egitura batzuk ere bat-bateko bertsogintzan erabiltzen direnak. Ahapaldi laburragoak edo luzeagoak dira, puntu kopuruari dagokionez aurrekoen desberdinak, baina halere gehienez berdinak silaba kopuruari eta lerro bikoitzetan errimatzeari bagagozkio.

Bestelako ahapaldi-mota hauen artean **koplak** dauzkagu. Koplak, nagusiki eskerako eta errondarako erabiltzen dira eta aspaldikoa da euren jatorria. Honako egitura dute:

. Kopla handia

----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A.

Kopla, txikia ere izan daiteke, egitura hau badu:

. Kopla txikia

----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 6 A.

Koplak, handiaren kasuan Zortziko Handiaren erdia, eta txikiaren kasuan Zortziko Txikiaren erdia dira beraz.

Formari dagozkionak

Badira egitura berriagoak ere, askotan bertsolariak beraiek sortuak, txapelketetarako gehienez. Zailtasun teknikoaren gailurra topatu nahi izaten da horrelakoetan. Bertsoa luzeagoa, errima gehiago... arrisku handiagoa estropozo egiteko, baina arrakasta nabarmena bidea ongi burutuz gero. Baina ez da hori egitura berri hauen sorkuntzaren arrazoi bakarra. Egungo bertsolaritza modernoaren ezaugarrietariko bat da, testu luzeagoaren beharra. Bertsolariak bere originaltasuna azaltzeko, bere arrazoi-bidearen konplexutasuna kokatzeko, gaiarekiko distantzia hartzeko... lekua behar du testuan. Testuak berak hartzen du bertsoaren zama, testuingurua ez delako garai batean bezain gotorra. Hargatik sortu dira azken urteotan egitura luze-zabalagoak.

Hona hemen horietariko adibide batzuk:

. Zazpi puntukoa

----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A
 ----- 8 A
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A.

Formari dagozkionak

. Itsaso hori dago zatarra

----- 10 A
 ----- 10 A
 ----- 10
 ----- 8 A (bis)
 ----- 8 A
 ----- 8 A
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A
 ----- 10
 ----- 8 A (bis).

. Bederatzi puntukoa

----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 5 A
 ----- 7
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 6 A
 ----- 6 A
 ----- 6 A
 ----- 6 A
 ----- 6 A
 ----- 7
 ----- 5 A.

Formari dagozkionak

Badira egitura berezi gehiago ere, baina azaldu ditugun hauek baliagarri izan daitezke ondorioren batzuk ateratzeko.

- Gero aipatuko dugun salbuespenen bat izan arren, errima beti talde berekoa da (A) eta beti kontsonantea. Zailtasunik handiena beraz, errima-hitz aski aurkitzean datza, hitz horietako bakar bat ere errepikatu gabe. Errima-hitza errepikatuz gero, **poto** egingo du bertsolariak. Eta **potoa** da, alderdi teknikoen artean, bai epaimahaiak eta bai entzuleak gehien “zigortzen” duten akatsa.
- Egituraz neurri desberdina badute ere, bertso-molde hauetan esaldia-
ren luze-laburra beti da beretsua. Hamar silaba, edo zortzi edo zazpi edo sei... Horrek esan nahi du bertsolaria ohitua dagoela bere pentsamen-
duak 10, 8, 7, 6, 5... silabatara ekartzen. Esaldi luzeago edo laburrago-
ek ez diote balio bere lanerako.
- Errima gehiago sartu nahiak askotan testu luzeagoa dakar berekin. Txapelketatan arriskatu nahiak gero eta bertsolari gehiagori sortu die

egitura zail eta luzeetan ekiteko irrika. Baina arriskuak ez du beti merezi izaten. Testuak berbaldi bakoitzak behar lukeen luzera hartu behar du. Eta berbaldiaren luzerak ipinitako gaiak sorrarazi duen ideiarekin araberakoa izan behar du. Une jakin batean eta gai jakin baten aurrean zer esanik asko ez duen bertsolariak bereak eta bi ikusi beharko ditu aukeratu duen egitura luzea itxuraz betetzeko. Eta teknikoki lana zuzen burutu arren, bere testuak desorekaren bat izango du, hartara bere eta entzulearen arteko komunikazioa hautsiz.

Lehen aipatu dugunez, oso bakanak dira errima-familia bat baino gehiagoz osatutako bertso moldeak. Hain bakanak eta ezohikoak izanik, doinu bakarrek egiturak dira errima nahasiko bertso moldeok.

. *Iparragirre abila dela*

Formari dagozkionak	-----	10
	-----	8 A
	-----	10
	-----	8 A
	-----	7 B
	-----	7 B
	-----	8 A
	-----	10
	-----	8 A.

. *Nagusi jauna hauxe da lana*

-----	10 A
-----	11 A
-----	10 B
-----	10 B
-----	5 C
-----	10 C
-----	10 C.

Neurriari buruzko atal hau amaitzeko, aipagarria da egungo plazaz plazako jardunean bertsoen ehuneko laurogeita hamarra, hasieran azaldu ditugun lau egituretan egiten dela. Hots: Zortziko Handian eta Txikian eta Hamarreko Handian eta Txikian.

Koplak eskerako eta errondarako erabiltzen dira gehien (nahiz eta azken hiru-lau urtean jaialdietan ere sarri entzuten diren), eta gainerako egiturak txapelketa eta jaialdietan.

Molde handiko bertsoetan, bertsolariak neurriari dagokion beste arau bat ere bete behar du: etena. Hamar silabako lerroak bosna silabako bi multzotan antolatu beharko ditu bertsolariak, doinu gehien-gehienek hala eskatzen dutelako (bizpahiru doinu baino ez dago etena horrela agintzen ez dutenak). Ez dauka hitz bat bost silabako bi multzo horien arteko etenean zangalatrau uzterik. Horrek zailtasuna erantsiko dio bertsogintzari. Bertsolariak ez du aski bere ideiak 10/8 egiturara tolestearekin. 5+5/8 egiturara tolestu behar ditu. Doinua bera izaten da etenhausteen salatzailekin behinena. Eta neurriarekin eta errimarekin oro har gertatzen den modura, bertsolariak etena egin beharra muga baino abantaila dute beren sorkuntza prozesuan. Hartaraino dago trebatua bertsolaria bere ideiak eten eta guzti hitzetan jartzera! Askotan, etenean akatsen bat egiteak teknikoki dakarren galeraz gain, bertsolariari ideia bera galaraziko dio, etena huts egitean bere alde aurretiko esamoldea eta egitura aldatu beharko baititu, eta, aldatzean, egindako lan guztia narrastuko du.

Ongi egindako etenaren adibide, honako hau:

| Gure etxean (5)/ bizi garenak (5)
aita, ama ta lau ume (8).

Oker egindako etena berriz, honakoa litzateke:

Formari dagozkionak

| Gure etxeraino (6)/ heldu ziren (4)
aita, ama ta lau ume (8).

1.3 Errima

Askorentzat errimak osatzen du bertsoaren alderdi teknikoaren ardatza. Errimatuz ari bagara (nahiz eta errima guztiz aberatsa izan ez), bertsoa osatzen ari gara.

Errima, arestian aipatu dugun bezala, beti da sail berekoa eta errima-hitzen arteko kontsonantziari balio handia ematen zaio. Adibide bat jarritz, *burua* eta *ordua* hitzek errimatu egiten dute. Baina bien arteko hoskidetasuna ez da handiegia. Bi azken bokalek baino ez dute errimatzen () eta ondorioz errima pobrea litzateke bi hitz horien artean osatzen dena. *Elizan* eta *gerizan* hitzekin ere egin genezake errima. Baina kasu honetan elkarren arteko hoskidetasuna askoz ere beteagoa da. Atzizkian dira errima kide (*an*), baina baita aurreko kontsonantean (*z*), honen aurreko bokalean (*i*) eta hasierako bokalean ere (*e*).

Gure artean, hoskidetasun maila izan da sarri errima txarra eta ona bereizteko irizpide bakarra. Adibidetzat hartu ditugun errimen kasuan, honelatsu:

Burua / Ordua errima pobrea.

Elizan/ Gerizan errima aberatsa.

Baina errimaz ari garelarik hoskidetasun maila ez da aintzat hartu beharreko alderdi bakarra. Litekeena da bertsolariarentzat errima, alderdi teknikoaz gain beste zerbait izatea bertsoak osatzerako orduan. Azal dezagun hau astiro: balirudike bertsolariarentzat neurria eta errima bete beharreko baldintza teknikoak direla. Eta, izan, hala dira. Baina horrek ez du esan nahi bertsolariak testu hobeak, osatuagoak, sakonagoak... egingo litzuzkeenik joko-arau horietara makurtu behar ez balu. Are gehia-

go: bertsolari ez den batentzat muga eta zailtasun dena, laguntza-bide izan daiteke trebatua dagoenarentzat. Araupean sortzen trebe den hura baita bertsolaria. Eta erosoago sentitzen da sorkuntza unean joko-arauek hesiturik, erabateko askatasunak ekarriko liokeen hustasunean baino.

Bertsolariak ez baitu sekula nahi duen huraxe esaten. Esaten du, neurri batzuen barruan eta buruan bildu dituen errima-hitzekin une jakin batean esateko gai dena. Ez da bertsolaririk nahi duena esan eta gainera neurtu eta errimatu egingo duenik. Badira bertsolariak aldiz, neurtu eta errimatzeaz gain, argitasun une batzuetan esan nahi luketenera asko hurbiltzen direnak.

Ikuspegi horretatik errimak ez dira aberats eta pobreak beren hoskidetasun mailari begira bakarrik. Bertsoa osatzen hasteko unean, bertsolariak kontu handiz aukeratuko du zer errima-hitzekin amaituko duen berbaldia. Sail bereko beste errima-hitz mordoska bat topatu beharko duelako, eta aldeztatik jakin behar du gai izango den edo ez. Errimak beraz, formalki aberats, erdi-berats, erdi-pobre edo pobre izateaz gain bertsoaren edukari berari eragingo dio, bertsolariak zer eta zerekin esan dezakeen neurtu beharko baitu bertso bakoitza hasi aurretik. Bertsolariak esan behar duenaren edukia une hartan buruan dauzkan errima-hitzei egokitu beharko dio. Eta hori errimen almatzen eta ordenatzen sekulako garrantzia hartzen du. Bertsolari batek izan ditzake X errima-hitz sail jakin batekoak. Demagun INA amaitzen diren hogeitaka hitz badauzkala gogoan. Baina nahas-mahasean badauzka lanak izango ditu berbaldia taxutzen, nekez aurkituko baititu esan nahi duena esateko errima-hitzik egokienak. Errima-hitz desegokion bidez, ordea, arrisku handia du bertsolariak, esan nahi duena erdi esanda uzteko, zehaztasunik batere gabe.

Adibidez, honako hitzak ditu buruan: *sorgina*, *egina*, *ahalegina*, *grina*, *ezina*, *panpina*, *zina*, *osina*, *kriskitina*, *okina*, *jakina*, *bina*, *zezina*, *erregina*, *mina*, *arina*, *dotrina*, *irina*, *latina* eta *pinpirina*.

Begiratu batera bertsolari horrek baditu nahikoa errima-hitz egiturarik luzeenetarako ere. Eta zer esanik ez Zortziko Handian edo Zortziko Txikian aritzeko, egitura hauetan aski baita lau errima-hitzekin.

Eta egia da errima hitz kopuru hori (20) buruan izanda, eta zehazki errima-hitz horiexek baditugu, dena ez bada ere, ia dena esan daitekeela. Baina bertsoari egokitasun eta ontasun maila emango dio, dena delarik ere gaia, gai haren inguruan esan nahi dugun huraxe esateko baliagarrien diren errima-hitzak aukeratzeak.

Ondorioz, errima-sail bakoitzaren ordenamendu on batetik baino ez daiteke etor berbaldi zehatz eta arrakastatsua. Lehen aipatu dugun nahas-mahas horrek ez dio bertsolariari mesederik egiten. Errima-hitzak ordenaturik ez badauzka, beti gutxi-gorabeherako jarduna izango da bertsolari horrena.

Formari dagozkionak

Buruan errima-sail bakoitzaren ordenamendu lan hori bertsolari denek egiten dute, bakoitzak bere erara, jakinean edo ohartu gabe. Bertsolari bakoitzak buruan dauka errima-sail bakoitzaren “bere” ordenamendua. Ordenamendu hori ez da behin betikoa izaten. Aldatu egiten da. Aldakuntzaren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke: hitz berriak erantsi dizkiolako ikasi ahala, lehengo hitz batzuk ahaztu egin zaizkiolako edo ez erabiltzea erabaki duelako edota garaian garaian errima-hitz jakin batzuk izaten direlako purian jartzen direnak.

Ordenamendu era bat, ez bakarra eta are gutxiago eraginkorra izan daitekeen bakarra, honako alderdien baitan legoke:

- Erabilpen maiztasuna.
- Zenbait errima-hitzen balioaniztasuna.
- Gramatikaren araberako sailkapena.
- Hoskidetasun handi edo txikiagoa.
- Beste hizkuntzetako hitz eratorriak.

Bost faktore horiek aintzat harturik, errima-sail bakoitzaren ordenamenduak bitxi-lore irudia hartuko luke. Gunean erabilpenik sarrieneko eta balioaniztasunik handieneko hitzak jarriko genituzke. Eta gero, orri bakoitzean, gramatikaren arabera, hoskidetasunaren arabera, edo jatorriaren arabera kokatuko genituzke gainerako hitzak.

Ordenamendu adibide bat hau litzateke INA amaitzen diren hitzekin osatua:

1
Grina
Ahalegina
Ezina
Egina
Atsegina

Formari dagozkionak

2
Panpina
Erregina
Sorgina
Krabelina
Pinpirina

3
Arina
Duina
Fina

4
Dotrina
Latina
Jakina

5

Zina

Osina

Zezina

6

Liftina

Puentina

Pierzina

7

Mina

Samina

Sumina

Formari dagozkionak

8

Kriskitina

Irina

Okina

Errima-hitzak modu honetara sailkaturik, bertsolariak badaki maizen eta errazen erabiltzen dituenak 1. multzoan dauzkala. Badaki 2. multzoan izen-lagun ere bihur daitezkeen substantiboak dituela. 3.ean izen-lagunak dauzkala. 4. multzoko hitzak arlo semantiko berekoak direla. 5.ekoak elkarrekiko hoskidetasun handia dutela. 6.ekoak erdaratik eratorritako hitzak direla...

Bertsolariak egingo duena da, orri bateko eta besteko hitzak txandaka hartuaz joan. 7 multzotik *mina* hartuko du hasteko. Gero 6 multzotik *puentina*. Ondoren 4 multzotik *jakina*. Eta azkenerako utziko ditu 1 multzoko *atsegina* eta *egina*.

ANA amaitzen diren hitzen bitxi-lorea honakoa litzateke:

1

Plana

Lana

Afana

Dana

Norengana

2

Laztana

Bakana

3

Iragana

Joana

4

Portzelana

Aduana

Patxarana

Diana

Porlana

5

Dama

Fama

Xarma

Narama

Zarama

6

Harremana

Esana

Izana.

Formari dagozkionak

Errima-hitzen ordenamenduak (proposaturiko honek bezala beste edozein ordenamendu-motak) bi abantaila dakarzkio bertsolariari. Batetik, sail desberdinetako hitzak txandaka hartzeak, gramatikalki ere desberdinak diren hitzak erabiltzera bultzatuko du, hartara hitz horien aurretik datozen esaldiak ere desberdinak direlarik formaz. Osaturiko testua biziagoa izango da, eta berbaldia landuagoa.

Eta bestetik, ez du hain erraz errima-hitz bera erabiliko. Hots: ez du poterik egingo. Lehentxeago aipatu dugunez, bertsolaritzan errima denak sail berekoak dira (A), eta bertsolariaren trebetasuna sail bereko errima-hitz asko topatzean datza, bakar bat ere errepikatu gabe. Errepikatze hau, potoa, arrazoi desberdin askorengatik egin daiteke. Horietako bat ezina da. Bertsolariak hain epe laburrean ezin du aurkitu buruan gorde-ta zeuzkan hitzen artean, erabili gabekorik. Beste arrazoi bat deskuidua izan daiteke. Bertsolariak ez du zehatz-mehatz gogoan zein errima-hitz erabili dituen eta zein ez. Goian ikusiriko ordenamenduak edo eitekoren batek, urritu egiten du poto arriskua. Hitzak orriz orri hartuz joatean, zein erabili dugun eta zein ez errazago “ikusten” baita buruan. Eta hitzen bat falta zaigularik non bila hasi badakigu gainera.

Potoaz ari garelarik, argitu dezagun ez dela pototzat hartzen errima-hitzak formaz berdina izan arren, adiera desberdinak dituzten kasuan. Ezaguna da oso, behin Florentino Goiburuk Lasarte bertsolariari buruz bota zuen bertsoa:

Formari dagozkionak

| Leitzan jaiotako Orion
bizi dana *herriz*;
parekorikan ez du
rimaz eta *neurritz*.
Denok txoratzen gaitu
bere bertso *berriz*;
Aho sapai ederra,
eztitsua *berriz*
ez dakit holakorik
sortuko dan *berriz*.

Errima-hitzen formari soilik begiratuko bagenio, bertso honetan poto pare bat balegoke, bi aldiz ez ezik, hirutan erabiltzen baitu *berriz* hitza. Halere, *berriz* hitzaren adierak oso desberdinak dira hiru kasuetan, eta Goiburuk ongi baliatu du *berriz* hitzaren polisemia, poto egin gabe hoshoskidetasun bete-betea lortzeko.

Formari dagozkionak

Esan dezagun erabat bestelako kasurik ere eman daitekeela. Bertsolari batek bota dezake:

Horrek badu *garrantzia*... badauka *inportantzia*...

Kasu honetan bi errima-hitzak desberdinak dira formaz, nahiz eta elkarren artean hoshoskidetasuna izan. Baina esanahiari dagokionez guztiz dira parekoak. Poto itxurarik ez duen potoa litzateke hori.

Orain arte ikusi dugunez, kantuak, neurriak eta errimak osatzen dute bertsoaren alderdi teknikoak. Neurtuz eta errimatuz kantuan ari den hura bertsotan ari da. Baina hori baloiari ostikoa jotzen dakienaren kasu bera da. Handik futbolari bat egitera tarte handia dago, nahiz eta futbolari orok jakin behar duen baloiari ostikoz ematen.

Bertsolariengan gaitasun teknikoak ez dira gaitasun tekniko baino. Adie-

razten dituen edukietan datza entzulearengana iristeko ahalmena. Eta edukiak sortzerako orduan bertsolari bakoitza mundu bat da. Zenbat eta hizkuntz gaitasun, kultur jakintza eta usadioaren ezagupen handiagoa izan, orduan eta samurrago lortuko du jarritako gaien inguruan eduki erakargarriak adieraztea. Baina edukien azterketak ikerkuntza nekezeko arlo batera eramango gintuzke.

Bertsolariek, denek, badute ordea edukiak, direnak direla, adierazterako orduan estrategia bat. Estrategia hori azaltzea da gure asmoa.

2 Bat-bateko bertsoa osatzeko estrategia nagusia

Bat-bateko bertsoak 20 segundotik (koplak) minutu baterako iraupena du (bederatziko nagusia) hor nonbait, beti ere bertsolari bakoitzaren kantamera desberdina dela kontuan harturik.

Entzulearentzat berbaldi laburrak dira bertsoak. Bai bertsolariak eta bai entzuleak berbalditzat hartzen du bertso bakoitza. Hau da: bertso bakoitzean, 40 segundoko ekinaldi batean, bertsolariak testu bat sortu behar du, berez autonomoa, entzulari zirraren bat sortzeko modukoa. Zirrara horren arrazoiak desberdinak izan daitezke: arrazoibide paregabea, ateraldi umoretsua, sakontasuna...

Bertsolariak gehienez beste batekin teman egiten du bere lana. Bere arrazoiaren alde ez ezik bestearenaren aurka ere egin behar du, beraz, bertsolari bakoitzak. Txandaka kantatzen dituzte bertsoak (hiruna, launa edo hainbana bertso), bakoitza saiatzen delarik bere arrazoia aurrera ateratzen eta saioa bere osotasunean menperatzen. Bien arteko jarduna berbalditzat har liteke: bertso-berbaldiz osatutako berbalditzat, alegia.

Era berean, bertsolaria bakarka ari delarik, eta hiru bertso bota behar

baditu kasurako, ahaleginduko da hiruen artean harremana eta lotura lortzen, batean esandakoa bestean jarraituz, batean esana bestean gaitzetsi gabe... Baina bai sortzaileak eta bai entzuleak berbalditzat bertsoa hartuko dute, bertso bakoitza. Berbaldi oinarritzotzat behintzat bai.



Argazkia: E. Koch / Iturria: Bertsolari aldizkaria

Bat-bateko bertsoa osatzeko estrategia nagusia

Formari dagozkionak

2.1 Estrategia nagusia: kolpea bukaeran.

Berrogei segundotan nola lor daiteke entzulearen arreta erakartzea? Bertsolariak badu helburu hori erdiesteko estrategia bat, bertso erabiliko duena: lehenik bukaera pentsatu.

Pernandoren egia dirudi, baina ez da hala. Zenbat aldiz entzun izan ditugu esatekoak hurrenkera egokian ez esateagatik arrakastarik lortu ez duten berbaldiak?

Bertsolariak, gai bat entzutearekin bere burua lanean jarriko du. IV. atalean ikusiko dugunez, Erretorika klasikoan kontuan hartzen ziren urratsen antzekoak egingo ditu gainera. Zer esango duen pentsatuko du lehenik eta zer hurrenkeratan esango duen erabakiko gero, arrazoibi-

derik indartsuen eta landuena bukaerarako gordez. Kantuan hasiko da eta bere edukiak modu poetikoan, dramatikoan, epikoan... adierazten ahaleginduko da. Memoria izango du biderako makulu, nora doan ez ahazteko eta bere ahots gorabeherak eta gorputz-aiderapena ere lagun-garri izango zaizkio adierazi nahi duen hura eraginkortasun handiagoz adierazteko.

Lehenengo pentsatzen den hura bukaerarako gordetzeak bi onura mota ekarriko dizkio bertsolariari:

- Prozedurazkoa: nora joan nahi duen argi badauka, bidea samurrago gertatuko zaio.
- Komunikaziorakoa: ongi amaitutako berbaldia arrakastatsua da zuzeneko emanaldi orotan. Hobe da indarge hasi eta indartsu amaitzea, batekoz besterakoa baino. Gainera, entzuleak bertsoa, bertsolariak pentsatu duenaren atzekoaz aurrera jasotzen du. Bertsolariak badaki non bukatuko duen, eta bukaera gogoan abiatzen da; entzulea, berriz, bertsolaria non hasiko dago irrikan. Bukaera zein den igarri nahi luke... Ez da magia. Baina badu magiarekin antzekotasunik. Gakoa da bertsolariaren eta entzulearen arretagunea, une jakin batean erabat desberdina izatea. Bertsolariak, ahoa irekitzen hasten den unean, burua bertsoaren bukaeran dauka. Entzuleak bere arreta, ordea, bertsolariaren ahoari eta lehen hitzei eskainiko die. Horregatik harritzen da hainbeste, eta gozatzen du hartaraino, bertsolaria apurka, gero eta indartsuagoa den testu bat osatu eta bukaeran erremate bortitz eta argia ematen diolarik. Bertsolariak bazeken hori. Argi zeukan bakararra horixe zen: non bukatu nahi zuen.

Bertsolariak, prozeduraz, kantuan hasi baino lehen dauzkan segundo gutxi horietan, arrazoi bat pentsatuko du, doinu bat aukeratuko eta pentsatu duen arrazoi hori aukeratu duen doinuaren neurrietara tolestuko du. Edo alderantziz; neurri jakin bateko doinua aukeratuko du, ordurako

bere arrazoibidea silaba kopuru jakin batera tolestu duelako. Hori du beti lehen urratsa: bukaerako arrazoa pentsatu eta silaba kopuru jakin batera tolestea.

2.2 Lehen adibidea: “Diseinuzko drogak bai edo ez”

Demagun honako gaia ematen digutela: “Ustez lagun mina zenuen batek diseinuzko pilula batzuk eskaini dizkizu. Hartuz gero izugarri hobetuko omen dira zure ahalmenak hainbat arlotan. Zalantzan zaude hartu edo ez”. Aitor Mendiluzeri jarri zioten gai hau 1997an Elgoibarko San Migel auzoan. Hiru bertso bota behar zituen bakarka. Hemen, urratsez urrats ikusiko dugu Aitorrek lehen bertsoa osatzeko erabili zuen estrategia.

Aitorrek, gaia entzun orduko, bere pentsaera islatuko zuen arrazoi bat aurkitzeari ekin zion.

Bere burura etorri zen lehen arrazoa honakoa izan zen: “*Hobetuko naiz baina neu izan gabe*”.

Ondoren, arrazoi hori 10/8 silabatako neurrira tolestatu zuen:

	Hobetuko naiz, baina orduan	10
	ni izan gabe ordea.	8 A.

Oso kontuan hartzekoa da, Mendiluzek gauza bera esateko eta neurri berean esateko beste esamolde aukera asko zituela. Adibidez:

	Hobetuko naiz, baina tamalez	10
	neu izateai utzita.	8 A

Edota:

	Hobetuko naiz, baina orduan	10
	ni neroni izan gabe.	8 A

Gauza bera hitz desberdinez esateko modu asko zeuzkan eskura. Baina Aitorrek bat aukeratu zuen, arrazoi bat baino gehiagorengatik. Lehenik formulazio indartsua irizten dio bereari. Eta bigarrenik erabakitzen du aukeratu duen azken errima-hitza (*ea*) izaki, badauzkala buruan sail horretako aski errima-hitz berbaldia behar bezala atontzen lagunduko diotenak. Bestelako intuizioaren bat izan balu, alegia, formulazioa ez zela nahikoa indartsu edota formulazio horri eutsiz ez zeuzkala buruan behar adina errima-hitz egoki bertsoa taxuz osatzeko, bigarren aukera, hirugarrena edo besteren bat hobetsiko zukeen.

Aitorrek orain arte egin duen lana laburbilduko dugu: arrazoi bat aurkitu du. Arrazoi hori neurri jakin batera tolestu du. Esaldiari buelta pare bat eman dizkio behar hainbat errima-hitz egoki topatzeko moduko sail bateko hitzarekin bukaera eman dion arte. Eta doinua aukeratu du, azken esaldiaren neurriak eskatzen duena eta adierazi nahi dituen edukiak adierazteko eraginkorra.

Hamabost-hogei segundo pasatu dira gai-jartzaileak gaia eman dionetik. Entzulea adi dago, zain. Ez du hamabost-hogei segundo horietan Aitorren burutik pasatu denaren berririk batere. Aitor kantuan hasiko da... Berak badaki nora heldu nahi duen. Badaki bere buruko almazenean zer errima bitxi-loretan hasi behar duen bila. Badaki zer bide egin behar duen, pentsatu duen bukaera indartsua are indartsuago gerta dadin.

Kantuan hasi baino segundo erdi lehenago, argi-izpi batek *hobea* hitza ekarri dio burura. Ongi etorriko zaio pentsatua daukan azken esaldiari aurrealdetik lotzeko. Memorian gordeko du, kontuz, bukaera samarrera-ko. Eta kantuan hasiko da. "Ene laguna... Une horretatik aurrera, bere berbaldia inprobisazio hutsa izango da, harik eta hasieran pentsatu duen bukaerara iristen den arte.

Ene laguna- - - - - 10
 - - - - - 8 A
 - - - - - 10
 - - - - - 8 A
 - - - - - 10
 - - - - - 8 A
 - - - - - 8 A
 - - - - - 8 A
 - - - - - 10
 - - - - - hobea 8 A
 hobetuko naiz, baina orduan 10
 ni izan gabe ordea!!! 8 A

Aitorrek kantuan hasi aurretik pentsatu dituen berbaldi-txatalak hitzez datozen horiexek dira. Kantuan ari den ahala inprobisatu beharko dituenak dira marratxoekin adierazitako horiek.

Mendiluzek badaki bukaeran zer esango duen. Baina horretarako bidea egin behar du, berbaldia osatu, bukaerak distira handiagoa izan dezan. Bere errima bitxi-lorean bila hasiko da. *Noblea* hitza aurkituko du. Balia-garri zaio. Kantuan ari da jadanik...

| Ene laguna uste zintudan,
 jatorra eta noblea...

Entzuleak erne segitzen du. Aitorrek bere balizko lagun horri zuzenean hitz egitea erabaki du. Indar gehiago du hartara pilulen eskaintzari emango dion erantzunak. Zer erabakiko du? Nora doa? Aitorrek badaki. Entzuleak ez. Gehienez ere berbaldiak ematen dizkion arrastoetatik bukaeran zer esan dezakeen asmatu nahian ari da.

Bere almazenetik hurrena aterako duen hitza *gordea* izango da. Ez dator-kio gaizki. Bere berbaldia osatuz segituko du.

| Ene laguna uste zintudan
jatorra eta noblea...
zuk ere alde ilun, triste bat
nonbait bazendun gordea.

Aurkeztu du, dagoeneko, kantuan eta neurtuz eta errimatuz, zer atakatan aurkitzen den. Lagun bat badu ustez jatorra eta noblea baina lagun horrek badu ezkutuko aurpegi bat ere. Kontraesana bistaratu du. Eta lagunari berari esan dio aurpegira! Baina nora doa? Zer erabakiko du Aitorrek? Bitxi-loretik hartzen duen hurrengo hitza *dotorea* da. Hitzak berak beharturik hein handi batean, lehenengo balorazioa egingo du: “*Egin didazun eskaintza ez da uste bezain dotorea*”.

| Ene laguna uste zintudan
jatorra eta noblea
zuk ere alde ilun, triste bat
nonbait zenukan gordea
egin didazun eskeintza ez da
uste bezain dotorea...

Bat-bateko bertsoa
osatzeke estrategia
nagusia

Hasierako kontraesana aurkeztu digu. Egin du lehen balorazio bat ere. Hurrengo urratsa balorazio hori indartzea izango da, adibide batzuen bidez. *Umorea* hartuko du bitxi-loretik lehenik, eta *doblea* gero. Oso parera datozkio bi hitzok bere berbaldiaren trinkotasunerako.

“*Emango dit umorea*” botako du lehenik. Eta “*Ta abildade doblea*” ondoren.

Puntu honetan aipatzekoa da bitxi-loreko orri desberdinetatik txandatuz hitzak hartzeak dakarren onura. Orri bereko bi hitz hartu izan balitu, esaterako bi izen, *umorea eta adorea*, gauza beretsua esango zukeen baina testuak oreka eta bizitasuna galduko zituzkeen.

| Emango dit umorea
ta abildade doblea

egokiagoa eta indartsuagoa da beste honako hau baino:

| Emango dit umorea
baita ere adorea...

Kontuak kontu, Aitor ari da, pixkana, pentsatua zeukan bertso-zatira iristen. Eta ondo doa. Honaino adierazi dituen edukien zerrenda hau genuke:

- 1- Lagun zintzo eta leialtzat hartzen zintudan.
- 2- Baina zuk ere baduzu alde bat iluna.
- 3- Egin didazun eskaintza ez da dirudien bezain dotorea.
- 4- Nire umorea hobetuko du.
- 5- Nire ahalmenak bikoiztuko ditu.

Berbaldi ongi taxutua eta interesgarria da. Inork ez daki nora garamatzen ordea. Aitorrek bai. Bere memoria ohitua dago alde aurretik pentsatua buruan ongi gordetzen. Eta nahiz eta buru-indar handia xahutu duen inprobisazio hutsaren garaian (almazenetik errimak ateratzeko, ongi neurtzeko, hizkuntza akatsik ez egiteko... oraindik gogoan du 40 segundo atzera pentsatu duen esaldia, eta pentsatu bezalaxe du gogoan gainera.

| Hobetuko naiz, baina orduan
neu izan gabe ordea!

Badaki horra iristen bada, eta bukaera pentsatu duen bezala esateko gai bada, bertsoak arrakasta ziurra duela. Eta gogoan du gainera hobe erri-ma-hitza, azken arrazoiari lotzeko erabiltzeko hasieratik gorde duena. Azken aurreko esaldia osatzea baino ez zaio geratzen. Hobe horri esker

Bat-bateko bertsoa
osatzeke estrategia
nagusia

lortuko du bertsoak distira. Eta bota egingo du:

| Hartu ezkerro izan naiteke
naizena baino hobea...

Osatu du berbaldia. Lagunari aurrez aurre esan dio zintzotzat zeukala. Baina baduela ezkutuko aurpegi bat ere. Eskaintza ez dela dirudien bezain ona. Hobetuko diola umorea. Bikoiztuko dizkiola ahalmenak. Pilulak hartuko balitu dena baino hobea litzatekeela...

Entzuleak orain arte jaso duena honakoa da:

| Ene laguna uste zintudan
jatorra eta noblea
zuk ere alde ilun triste bat
nonbait zeneukan gordea.
Egin didazun eskeintza ez da
uste bezain dotorea...
Emango dit umorea
ta abildade doblea...
Hartu ezkerro izan naiteke
naizena baino hobea...
----- 10 A
----- 8 A

Bat-bateko bertsoa
osatzeke estrategia
nagusia

Entzuleak ezagutzen duen berbaldi zatia da bertsolariak kantuan hasi den unean ezagutzen ez zuen huraxe. Eta ezagutzen ez duena da hain zuzen ere, bertsolariak (eta orri hauen irakurle saiatu horrek) hasiera hasieratik ezagutzen zuen bakarra.

Aitorrek bere berbaldiari “*hobetuko naiz baina orduan neu izan gabe ordea!*” josten dionean, bertsolari-entzule komunikazioak goia joko du.

2.3 Zenbait salbuespen

Bertsolariak bertsoa bukaera pentsatu eta hasieratik hasita egiten du beraz, gehien gehiengan. Bat-bateko bertsolariak bukaera pentsatuko du eta gero hara iristeko urratsak egingo ditu, lehen aipatu bezala, Erretorika klasikoaren oso antzera. Gehiengan hala da. Baina ez beti. Badira jorera hau apurtzen duten salbuespenak ere. Bitan banatu ditugu:

- a) Barne-baldintzak.
- b) Kanpo-baldintzak.

A | *Barne baldintzak*

■ Estrategia orokorra ez jarraitzeko baldintzetariko bat bertsolariaren ezinetik sortua da. Bertsolaria bakarka ari da, edo lagunarekin teman. Eman diote gai bat. Ez du asebetetzen duen inongo arrazoirik aurkitzen. Ez du lehengorik errepikatu nahi. Topikoak gogora ekartzeko ere ez da gai. Denbora aurrera doa. Entzulea urduritzen hasita dago. Denbora badoa... ta nahiz ez dagoen bertsolaria segundo edo minutu kopuru jakin batean hasiera behartzen duen inolako araurik, berak badaki hasi beharra daukala. Bukaerarik ez dauka eta hasi beharrean aurkitzen da. Ohiko estrategia nagusia erabiltzerik ez dauka. Horrelakoetan ezinbestean arriskatzea tokatzen zaio bertsolariari; nora doan jakin gabe hasi beharra. Ohiko estrategiak zekartzan onurak oro galdu ditu. Sarerik gabeko jauzia egitera doa. Bertsolari denak aurkitu izan dira egoera honetan behin baino gehiagotan. Entzuleak gainera, ez daki bertsolariak ez duela ezer pentsatzeko sosegurik eta trebetasunik izan. Berbaldi ongi taxutua eta hobeto bukatua espero du. Bertsolaria, entzulea bere gabeziak ohar ez dadin ahaleginduko da. Baina oso zaila da nora doan jakin gabe bidea ongi egiten. Planorik gabe eraikin bat altxatzea ez da samurra; eraiki ahala planoak egitea are zailagoa da. Kasu hauetan bai, inprobisazioa erabatekoa da. Ez ordea bertsolariak hala nahi izan duelako!

Bat-bateko bertsoa
osatzeke estrategia
nagusia

Kantuan hasi aurretik bukaera bat pentsatzeko gai ez izateak eraman du bertsoa nola edo hala osatzera.

- Beste salbuespen bat memoriak huts egiten duenean gertatzen da. Bertsolariak pentsatu du amaiera bat. Hasi da kantuan, bukaera horren errima-hitzari men eginez. Badaki nora joan nahi duen eta eroso samar doa. Baina bertsoa osatzen ari dela, eta pentsaturiko zatia eranstea baino falta ez zaionean, bukaerako arrazoia edo arrazoiaren formulazioa ahaztu egin zaizkiola konturatuko da. Bukaera hura gogora ekartzen ahaleginduko da, baina hori ez da erreza aldi berean bertsoa osatuz doanarentzat. Memoriaren bidez pentsatu duen bertso bukaera “ekartzea” lortzen ez badu, une horretan bertan inprobisatu beharko du beste bat. Tamalgarria izaten da bertsolariarentzat kasu hau. Gaia entzun eta kantuan hasi bitarteko segundoak bukaera on bat pentsatzeko erabili baititu. Eta bukaera hori ahaztean, nekez asmatuko du bat-batean beste bat, lehen patxada handiagoz pentsatu ahal izan duen hura baino hobea. Kasu honetan ohiko estrategia darabil bertsolariak, baina une jakin batean huts egiten diolarik, kalte handiagoa sortuko dio mesedea baino.

Orain arte ohiko estrategia erabiltzen ez den bi salbuespen mota aipatu ditugu. Bietan apurtzen da “pentsatutako zatia” eta “inprobisatutako zatia”ren arteko oreka. Baina bietan “inprobisatutako zatia”k pisu handiagoa hartzen du. Esan daiteke estrategia ohikoa erabiltzerik ez dagoenean, gehiago inprobisatzen dela erabiltzen denean baino. Baina ez da beti horrela gertatzen. Bada bestelako kasuren bat ere.

- Bertsolariak bertsoa bere osotasunean pentsa dezake, horretarako nahikoa asti badu. Gero, kantuan hastean, ez du egingo pentsatua ahots ozenez esan baizik. Agurretan, omenaldi-bertsoetan, elizakoetan... horrelako zerbait gertatzen da. Gaztetxoari gertatzen zaio, bere buruarengan konfiantza aski ez duenean. Goitik beheraino, edo behetik goraino pentsatzen du bertsoa lehen hitzak jaurti aurretik. Baina baita puntaneko bertsolarietako ere. Elizkizun batean, omenaldi batean, agurra egitera-

ko orduan... nahi beste asti izango du bertsoa aurrekoz atzera eta atzekoz aurrera pentsatzeko. Kasu hauetan, “pentsaturiko zatia” “inprobisaturiko zatia” baino askoz ere handiagoa da. Eta entzuleak ere badaki hori. Ondorioz, bertsoaren kalitate mailak ere handiagoa behar luke. Paradoxa badirudi ere, ordea, arriskua ere handiago da pentsatutik asko eta bat-batekotik gutxi duen bertsoan. Bertsoa erabat pentsatu eta kantuari ekiten dion bertsolaria arrisku handitan sartzen ari da. Irristada bat-batean ari denarena baino handiagoa izan daiteke. Bertsoa egin ahala kantatzen da ondoen. Egina badago, entzuleen aurrean kantatzeko unean buru-indarra guztiz emana dago gogoratzera eta edozein memoria huts egitek bertsoa bera jarriko du kolokan, bertsolariak ez baitauka bere gogoia sorkuntzak dakartzan uneoroko arazoei aurre egitera jarria.

B | *Kanpo-baldintzak.*

- Bertso-jardunean askotan erabiltzen den ariketa da “**Puntuari erantzun**” deitzen duguna. Bertsoa eraikitzearen ikuspegitik ez du zerikusirik bertso gintzako gainerako ariketekin. Entzulearentzat ez da akaso hain lan berezia izango, baina bertsolariak oso lan berezitat hartzen du. Ariketa modu honetan, gai-jartzaileak hasiko du bertsoa, puntua jarritz, eta bertsolariak amaitu egin beharko du. Beraz, gai-jartzailearen esku dago gaiaren aukeraketa eta errima-hitzarena ere bai. Bertsolariak bat-batean, gai horri eta errima horretan erantzun beharko dio. Bertsolariak ez du orduan denborarik aski bukaera pentsatu ahal izateko. Braustakoan erantzun behar izango dio gai-jartzailearen galdera edo iradokizunari. Bukaerarik pentsatzerik ez duenez, ezin izango du bertsoa ohiko estrategia erabiliz taxutu. Zeribait erantzun, segi, eta ahal bada indartsu bukatu beharko du gainera. Ariketa honetan ez da lagungarri gerta daitekeen estrategiarik. Hemen, inprobisazio hutsa beste inon baino beharrezkoago da.
- **Puntuak** aritzea da bertso plazatan maiz egiten den beste ariketa bat. Bertso bat osatzen da bi, hiru edo bertsolari gehiagoren artean, bertso-

ri bakoitzak puntu bana txandaka boteaz. Berbaldia bi lagun edo gehiagoren artean osatzen denez, eta lagunak zer bide hartuko duen sekula jakiten ez denez, ariketa honetan ere ohiko estrategiak ez du balio. Bukaera pentsa daiteke, baina askotan alferrik izaten da: aukeratutako errima-hitza aurretik lagunak erabiltzen badu, esaterako, pentsatua pentsatu bezala esatera pota egingo luke bertsolariak. Puntuka ari dela, inprobisazio ahalmena eta erreflexu bizkortasuna ditu bertsolariak ezinbesteko.

Bukaera pentsatzeko ezinarenatik, memoriak huts egin duelako, puntuari erantzun behar zaiolako, puntukako ariketan... askotan aurkituko ditugu beraz, ohiko estrategia erabili gabe atondutako bertsoak. Orain arte, eta estrategia hori zertan datzan argiago azaltze aldera bertsolariak bakarka ari diren saioak izan ditugu gehiengan aipagai. Baina bertsolaritzan, gainerako bat-bateko eta ahozko jardunetan bezalatsu, modurik zaharrena eta berezkoena teman aritzea da. Datozen orrialdeetan landuko dugun gaia da hori.

Bat-bateko bertsoa
osatzeke estrategia
nagusia

3 Temako jarduna, bertsolaritzaren sustrai

Teman aritzea deitzen diogu bi bertsolarik bertsoak txandaka boteaz elkarrekin egiten duten jardunari. Litekeena da gai-jartzailerik ez izatea, eta bi bertsolarien lana da orduan saioa nondik nora eraman eta zer gairen inguruan aritu erabakitzea ere. Gai-jartzaile bat bada, bertsolari bakoitzari paper bat edo pertsonaia bat emango dio, eta bertsolariak arrazoiak aurkitu beharko ditu bereari eutsi eta aldi berean aurkariari eraso egiteko.

Teman aritzeko lehen bakarkarako aipatu dugun estrategia nagusia ez da aldatzen. Hots: bertsolariak bertsoaren bukaera pentsatuko du lehenik, bukaerarako gordeko du, eta hasieratik ekingo dio bertsoari. Bakarka ari denean bezalaxe eraikiko du bertsoa teman ari delarik. Baina teman beste bertsolari batekin egiten da, eta denbora gehiago izaten da bertsoa

pentsatzeko. Bakarka ari denean bertsolariak ahalik eta azkarren pentsatuko du bukaera bat eta ahalik eta azkarren hasiko da kantuan. Bertso bat bota eta bigarrenarekin gauza bera egingo du. Ahalik lasterren pentsatu bukaera eta ahalik lasterren bota. Eta berdin hirugarrenarekin... Gainera bertso-saioaren haria bere kargu baino ez dago eta hiru bertsoen arteko koherentziari eustea beste lanik ez du izango. Zer esan duen badaki eta zer esango duen sumatzen ari da.

Teman ordea bi aritzen dira. Eta biak txandaka aritzean, orain artean aipatu ez ditugun bi alderdirekin egingo dugu topo:

- Aurkariaren arrazoibidea.
- Aurkaria kantuan ari dela norberak pentsatzeko duen denbora-tartea.

Teman, bertsolariak aurkariak esan dionari erantzun behar dio. Jakinekoa da hori. Aurkariaren arrazoiari jaramonik egin gabe ari den bertsolaria ez da ongi ari. Baina ez da aski ordea defentsarekin. Eraso ere egin behar da. Eta, aurkaria kantuan ari delarik, aski denbora izaten du bertsolariak hurrena kantatuko duen bertsoa pentsatzeko.

“Bertsoa pentsatuz joan” idatzi dugu eta baleko esamoldetzat daukagu. Aurkaria kantuan ari dela ezer ez pentsatzea ez da estrategiarik zuzenena. Baina ezta aurkaria kantuan ari delarik zerbait pentsatu eta aurkariak esan duenari jaramonik egin gabe, kosta ahala kosta, lehen pentsatu dugun hura botatzea ere! Askotan erdibideko aukera egiten du bertsolariak: lehenik, braustakoan aurkariaren bertsoari erantzun (puntu batean, bitan edo hirutan) eta ondoren horri aurkaria kantuan ari zela pentsatutakoa itsatsi.

3.1 Temako saioetarako estrategia nagusiak

Ez da samurra aldi berean defenditu eta eraso behar hori. Norberak arrazoiitu eta aurkariaren arrazoiari aldi berean erantzutea oso da zaila. Hiru

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

joera daudela esango genuke:

A | Aurkaria kantuan ari dela arrazoi bat pentsatu eta huraxe bota aurkariaren arrazoia dena dela ere.

B | Aurkariaren bertsoa osorik entzun eta gero oso segundo gutxitan hari erantzuna prestatu eta bota.

C | Arrazoi bat pentsatu aurkaria kantuan ari delarik, honen arrazoia entzun eta bertso bakarrean nahasi, hasieran erantzuna eta bukaeran lehen pentsatutakoa.

A. bertso motak badu alderdi makur bat: eztabaida ez da behar bezala txirikordatzten. Beti bakoitzak nahi duen huraxe esaten badu, aurkariaren arrazoia inoiz aintzat hartzen ez bada, elkarri nola edo hala jositako adabaki mordo baten itxura mordoiloa hartuko du bertso saioak. Ez du soinekoaren tankerarik ere izango. Eta bertsogintzan teman aritzea azken batean elkarlana osatzea da, itxura oso bestelakoa badu ere. Nekez egingo du teman saio ona batek, besteak oso gaizki jarduten badu.

Bertso mota honek duen abantaila da bertsolari bakoitzak bere arrazoiak argi eta garbi azaltzeko aukera izango duela behinik behin.

B. bertso motak duen alderdirik makurrena denbora urritasunetik dator. Bukaerari bukaerarekin erantzuteko txaloen tartea baino ez du bertsolariak. Gainera aurkariaren arrazoia ahula edo zentzurik gabea bada, erantzuteko adina ere ez badu ematen, bertsolariak bere arrazoia korrika eta presaka bilatu beharko du. Eta sakonean, beti erantzuten ari den bertsolariak bere ideia gutxi atera ahal izango ditu eztabaidara. Eztabaidak beti aurkariak aukeraturiko bidetik egingo du aurrera.

Halere, askotan gertatzen dena da bertsolariak aurkaria kantuan ari dela bertso bat pentsatu izan arren aurkariaren bertsoari erantzutea erabakitzea, nahiz eta bertso horrek ez duen izango segur aski (denbora-tarte urriagoan eginga delako) lehen pentsatuaren distira mailarik. Baina disti-

ran galtzen duena bat-batekotasunean irabazten du. Bertsolari ezagun bat kexu zen sarritan tema-lagun izaten zuen beste bertsolari baten jorraz. Bertsolari honek beti espero ez zitezkeen arrazoi moduak plazaratzen zituen, bitxiak, bereziak, parera etorri edo ez. Bertsolari ezagunaren hitzetan “horrekin ari naizela sei bertso pentsatu behar izaten dizkiat hiru botatzeko!”. Halaxe da: hiru bertso aurkaria kantuan ari zela pentsatzen zituenak. Eta beste hiru lehengo hiruak albora utzi eta aurkariaren xeblekerieie erantzuteko bat-batean eginak. Sei bertso egin behar hiru botatzeko!

Teman ari den bertsolariak egin behar izaten duen buru-lanaren lekuko da bertsolari ezagun horren esaera. Maila batetik gora bertsoa osatzea da lanik samurrena. Noiz pentsatua bota eta noiz arrazoiketari erantzun erabakitzea askoz lan zailagoa bihurtzen da. Nolanahi ere, **B** mota honetako bertsoak bata bestearen segidan datozenean lortzen da temako saioen gorena. Arrazoi on bati erantzun onak segitzen badio eta erantzun on honi beste arrazoi on batek eta ...

C bertso mota da askotan erabiltzen dena. Erdibideko formula da. Ez da guztiz alde arretik pentsatua botatzen eta ez zaio guztiz aurkariaren arrazoiari erantzuten. Bi lanak nahasten dira bertso bakarrean. Aurkaria kantuan ari dela arrazoi bat pentsatuko du bertsolariak. Entzungo du aurkariarena eta gero biek (lehen pentsatuarekin eta bat-batean otuarekin) osatuko du bertsoa, hasieran erantzun moduko bat txertatuz eta bukaeran lehen pentsaturik zeukana sartuz. **C** bertso mota hau bertsogintzaz asko ez dakienarentzat **B** motakoen antzekoa izan daiteke. Baina adituentzat edo bertsolariantzat ez da ongi moztururiko **A** bat baino.

Zein da bertso-motarik egokiena teman ari garelarik? Erantzun zaileko galdera da. Inprobisazio hutsezkoena **B** da zalantzarik gabe. Baina saio bat ez daiteke **B-B-B-B-B-B** eginez osatu. Bertsoaldiari hasiera ematen dionak **A** egin beharko du behintzat! Eta gainera oso zaila da hainbat

arrazoi-erantzun-arrazoi-erantzun korapilatzen asmatzea. Horrek bertso-lari bakoitzak eta bertso bakoitzean aldi berean erantzuten eta arrazoizten asmatzea eskatuko luke. Gehitxo.

Temako saio baterako ez dago alde zuretik zer bertso motarekin jokatu behar litzatekeen aholkuak ematen hasterik. Litekeena da lau bertso bota behar badira **A** bat, bi **B** eta **C** bat eginez oreka polita lortzea. Hartara **A** bat eginez gure ahotsa eta gure arazoiketa ziurtatuko genuke eztabaidaren baitan. Bi **B** eginez aurkariaren arazoiketak apurtuko genituzke. Eta **C** horrek bietarako balioko liguke neurri batean.

Baina bi **A**, **B** bat eta **C** bat sartu behar direla esaten duenari aurre egiteko ez dago arazoirik. Eta beste edozein konbinazio ere izan daiteke ona eta baita onena ere. Zalantza asko sortzen dituen alorra izan daiteke nolana ere.

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Zailtasunik handiena non datzan erabakitze orduan errazagoa da ados jartzea. Temako lanean zailena da **A** bat edo **B** bat noiz egin behar den aukeratzeko jakitea. Demagun badaukagula ideia bat, indartsua, aurkaria kantuan ari delarik. Baina aurkariaren ideia ere indartsua da. Eta une horretan aurkituko da bertsolaria atakan: zer egin? Aurkariari erantzun beharrean dago. Baina bere ideia distiratsua ez du ahanzturaren saskira bota nahi. Aurkariaren arazoiak zenbateraino behartzen duen erabaki beharko du segundo erdi batean. **B** aukera dezake eta bat-bateko bertso batez erantzungo dio, ziurrenik distira izugarririk gabe. **A** hautatzen badu, bertso distiratsua botako du, baina aurkariari zuzenean erantzuteke. Segundo erdi horretan hartutako erabakiak behin baino gehiagotan sortuko du bertsolarien damua.

Temako saioez ari garelarik, joera desberdinak ulertzeko moduan azaltze aldera, izugarri teknifikatu dugu gure kontaera. Bertsolariak ez du **A**, **B**, **C** eta horrelako kontzeptu teorikoekin lan egiten. Unean uneko senari eta bere arazoiketa indarrari begiratzen dio bide bat hartu edo besteari ekin

hautatzerakoan. Gainera, egin dugun azterketa hau jaialdi eta txapelketatan egiten diren temako saioak ikertzeko egokiagoa da (han gaiak eman egiten baitira) gairik gabeko temako saioak ulertu eta aztertzeko baino.

3.2 Bigarren adibidea: “Langilea eta etxeoandrea”

Honako gaia eman zitzaien bi bertsolariri: “**X**, zu etxeoandrea izango zara. **Y**ri deitu diozu, sukaldean lan txikiren bat egin dezan. **Y**k Xen etxean darama aste bete eta gehiago, baina lanak ez doaz behar bezain bizkor”.

Xk hasi behar zuen eta launa bertso bota behar zituzten zortziko txikian.

|X: Nahiz ta faktura pasa
handi ta astuna
ez da lanean asko
mugitzen zaiguna.
Dexente motela da
honexen jarduna
nere gonai begira
pasatzen du eguna.

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Xk **A** motako bertso bat osatu du. Bere arazoia pentsatu du (langilearen begirada lizunak), eta iradoki du gainera, langile alferrak bidal diezaiokeen faktura handiari dion beldurra. **A** motako bertsoa egin beharra zeukan, ofiziolako gaia hasten duenak beti egiten baitu **A** motako bertsoa, nori erantzunik ez dauka eta.

|Y: Aizu, señora itxoin
pare bat segundo,
zer diozu zuk gona
eta gonakondo?
Horrelakorik ez dut
egin nik egundo...
Nik lana egiten dut
mantxo baina ondo!

Yk C motako edo bietariko bertso bat osatu du. Bere bukaera pentsatu du laguna kantuan ari den bitartean: mantxua naiz baina ona. Baina emakumearen salaketa gordina eta zuzena izatean, (nire gonei begira...), zuzen erantzun beharra dauka. Horretarako, lehen hiru puntuak erabili ditu, eta azkenean lehendik pentsatuta zeukana josi. Bertso honek badu bere alderdi ona: nahikoa ongi erantzuten diola andrearen salaketari. Bere alde ahula ere bai ordea: lehen hiru puntuen eta azkenengoaren arteko lotura ez dela behar adinakoa logikaren ikuspuntutik.

Xren bigarren bertsoa honakoa da:

|X: Hola konsuelorik
ez dago neretzat
ez dira oso nabarmen
obraren emaitzak.
Etxekoandrerik ez du
honek hartzen aintzat
neuri obratxoren bat
egidazu behintzat!

Xren bigarren bertsoa ere **A** sailekoa da. Ez du **Yren** erantzuna aintzakoz hartu eta aurkaria kantuan ari zela pentsatu duena bota du, “obra” hitzaren adiera bikoitza ongi aprobetxatuz. Bertso honen alderdirik indar-

tsuena horixe da. Ahulena aldiz, lehenago bertsoetik hona eman duen jautsiaren handia. Lehen bertsoan kexu zen langilea gonetara begira zeukalako. Orain, bat-batean, berari ere *obratxo* bat egiteko eskatu dio.

Yren bigarren bertsoa da hau:

|Y: Ustegabe atera
hainbeste istori
sexu aldetik nonbait
ez zabilta lodi
nik horretan badaukat
nahiko kategori
bestea baino lehen
egingo dut hori.

Hau da **B** saileko bertsoen adibide bat. Ez dakigu **Yk** zer pentsatu zuen **X** kantuan ari zen bitartean. Baina pentsatu zuena pentsatu, aldatu egin behar izan zuen andrearen eskaintza zuzen zehatzari erantzuteko. Lehen pentsatua alde batera utzi eta lagunak bertsoa amaitu eta gero pentsatu zuen berria. Horretan datza bertso honen meriturik handiena. Ahulguneren bat ere badu ordea: erantzuna bortitzagoa izan zitekeen “*nik horretan badaukat nahiko kategori*” kantatu ordez, “*obra hoietan badut nahiko kategori*” erantzun izan balio. Hartara entzuleak argiago jabetuko ziren “obra”ren eskaerari “obra”tan duen esperientziak erantzuten ari zela. Askotan, bertso baten arrazoia aurreko arrazoien erantzun zuzena denean, azken aurreko puntuan edo, aurkariak zer esan duen “gogoraztea” komeni izaten da entzulea behar bezala jabetu dadin.

Honakoa da **Xren** hirugarren bertsoa:

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

|X: Hemen egin itzazu
 zuk obra majuak
 ta ez ikusi nere
 goi eta bajuak
 Titiak dizkidazu
 begiz ondo juak
 baina ez doaz zuzen
 horko azulejuak.

Xk A motako bertsoa egin du oraingoan ere. Konturatu da bigarren bertsoaren bidetik ez daukala ezer, bere arerioak bizkor eta lotsagabeki erantzun baitio. Atzera egitea beste irtenbiderik ez du, lehen bertsoko arrastoari eustera. Bertso honen dohainik behinena, bere izaera “bisual”ean datza. “Ikusi” egiten dugu, azulejoen aipamen konkretuari esker, langilea azulejoak oker jartzen ari dela, obran behar zukeen arreta etxeakoandrearengan jarririk.

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Yren hirugarren bertsoa hau da:

|Y: Honek adarra jotzen
 badauka eskola
 barrutikan ez dakit,
 ederra eskola.
 Bietatik bakar bat
 hautatu, potxola...
 biak egiterikan
 ez daukat inola!

B motako bertsoa da hau. **Yk Xren** bertsoa osoki entzun ondoren erabaki du zer eta nola erantzun. Langileak ezin du andrearen joera aldarra ulertu. Lehenik “obratxoa” egiteko. Gero azulejo ilara oker doala titietara begiratzen diolako... Zertan gara? Bat edo bestea! Eta horixe da

hitzez hitz erantzuten diona.

Alderdi ahula errima aukeraketatik datorkio bertso honi. Horko *Oskola* hori ez dator pare parera, bertsoaren konkretutasunak ez baitzuen horrelako irudirik eskatzen. Testuaren desoreka lehen errimari buruz ari ginea ikusi dugun alderdi batetik dator gainera: bitxi-loreko orrietan ez du behar bezala egin bere errima-hitzen aukeraketa. *Eskolatik* beste orri batera jauzi egin orde, *oskola* sartu du segidan, orri berean ibiltzea ero-soagoa gertatu zaiolako. Baina erosotasun horrek ekartzen ditu gero testuaren desorekak.

Honakoa da **Xren** azken bertsoa:

|X: Ez zara ondo ari
 igeltsero gazte...
 besteek azkarrago
 egiten dituzte.
 Hor bi lan doaztenik
 ez zazula uste...
 zuk ez duzu egiten
 ez bat ta ez beste!

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Xk bere azken bertsoan egin du **B** motako ahapaldi bat. Aurkariaren bukaerari bere bukaerarekin erantzun dio. Eta ez nolana gainera! Bi lanetatik bat aukeratzeko esan didazu? Zuk ez dituzu ez bata eta ez bestea egin eta! Langilearen kexua bidezkoa bazen, emakumearen erantzuna atzera bueltarik gabea da.

Yk botako du temako saioaren azken bertsoa:

|Y: Andre hau mintzatzen da
sorginen modura
titiak direla ta
a zer kalentura!
Ez dut lanik galdu nahi
nik honen kontura...
korreotik pasako
dut lanen faktura.

A saileko bertso bat eginez bukatu du saioa **Yk**. Ez zaio emakumearen epaiari erantzuteko moduko arrazoirik otu. Aldez aurretik pentsatu zue-
na kantatzearekin amaitu behar du. Bertso honen alde on bakarra faktu-
raren aipamenean egon daiteke. Emakumeak lehen bertsoaren lehen
hitzean aipatu duenera itzuli da langilea bere azken bertsoaren azken
hitzean, eta, hartara, temako saioari borobiltasuna eman.

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Temako saioan bertsoz bertso egin duten ibilbidea honela laburbil gene-
zake:


X---- Estrofa 1 **A** Estrofa 3 **A** Estrofa 5 **A** Estrofa 7 **B**
Y---- Estrofa 2 **C** Estrofa 4 **B** Estrofa 6 **B** Estrofa 8 **A**

Temako saio honetan **Xk** arrazoiak aurkitzearen lana hartu du bere gain,
eta **Yk Xk** uneoro asmatzen zituen arrazoiari erantzutearena. Saioaren
bukaera aldera paperak aldatu dituzte, ordea. **Xk Yren** arrazoiari eran-
tzuteko zirrikitu egokia aurkitu du, eta **Yk**, berriz, aurkariari erantzute-
rik ez, eta ateraldi batez (arrazoibidetik aterata, alegia) amaitu behar izan
du saioa.

Laugarren bertsozik zazpigarrenerako saio zati hori (**B-A-B-B**) edozein
bertso-eztabaidatarako eredugarri den sekuentzia izan daiteke, bukaera-
ri bukaeraz erantzundako bertso asko baitator elkarren segidan.

3.3 Hirugarren adibidea: “Energia eolikoari buruzko eztabaida”

Lujanbio eta Peñagarikano bertsolariei honako gaia jarri zieten behin
Arrasaten: “Lujanbio mendizalea da, inguruko mendietan urteetan
zehar sarri ibili izan dena. Elgea mendikatean laster batean parke eoli-
ko bat jarri behar dutela eta ingurumari hartara azken txangoa egitea
erabaki du. Joan da mendira eta han hamaiketako beste mendizale
batekin banatuko du. Hasi dira hizketan, eta orduan ohartuko da Lujan-
bio, beste mendizalea, Peñagarikano, parke eolicoa eraikitzen ari den
ingeniarria dela”.



AM. Peñagarikano Iturria: XDZ



M. Lujanbio Iturria: XDZ

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Lujanbio hasiko da kantuan:

| Ez nuen uste, a ze sorpresa
holakoa zinenikan!
diru mordo bat ta proiektu bat
ei dezu zure patrikan;
Bizi guztian mendirik mendi
gabiltzanak hain pozikan,
ez degu ulertzen, ta ez degu nahi
burdinezko zuhaitzikan.

Lujanbiok **A** motako bertsoa egin du. Nahitaez; bera baita eztabaidari hasiera eman diona. Eta era sotilean hasi da. Energia eolikoak sortzen duten zutabeak “burdinazko zuhaitzekin” alderatzea oso da parekoa eta egokia gai honetan eta mendizale baten ahotan.

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Peñagarikano ingeniariaren txanda da:

| Aizu neskato, postura hortan
hizketan ez zaitetz hasi;
honek pagoa eta haritza
ezin bait ditu berezi.
Eolikoak jarriko dira,
inork ezin galerazi...
edertasunik ez du galduko
ta gauza asko irabazi.

Peñagarikanoren lehen hau **C** erako bertsoa da. Lujanbioren bukaerako arrazoiari erantzun dio baina bi lehen puntuetan, ez azkenean. Erantzuna gainera, bortitza eta berezia da, konkretua oso: “pagoa eta haritza bereizten ez daki”. Gero, Lujanbio kantuan ari zela pentsatu duen arrazoa erantsi dio erantzunari: “Edertasunik ez da galduko ta gauza asko irabazi”.

Bi lan egiten ditu beraz Peñagarikanok. Aurkariari erantzun eta berea esan. Baina **C** motako bertsoetan maiz gertatzen denez, bi atalak ez daude ongiegi josiak.

Lujanbioren bigarren bertsoa honakoa da:

| Itxuraz gure mendi kaskotan
mila errota egoteak
utziko ditu gutxi batzuren
patrikak ondo beteak.
Gogoan daukat ze amets zitun
La Manchako arloteak...
amets gutxi ta interes asko
oraingo Don Quijoteak!!!

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Lujanbiok oraingoan ere **A** motako bertsoa egin du. Izan duen ideia izanda ez du merezi bestelako bide bat hartzea. Badaki bere ideia aski distiratsua dela eta ez da hasiko aurkariaren bertsoari hitzez hitz erantzuten. Burura dator kio zutabe eolikoak eta ingeniariak Don Quijote eta haize-errotekin konparatzea. Hemen antonomasiak berebiziko garrantzia hartzen du. Aski baita La Manchako arlotearen aipamena entzule gehien gehienek nori buruz ari den ulertzeko. Eta denok dakigu gainera zein den Don Quijotereren ezaugarri nagusia: amesti interesik gabearena.

Hainbat ideia txirikordatzea ez da erraza. Baina Lujanbiok lortu egin du, bertsoan zehar kontraste desberdinak erabiliz:

—Gutxi batzuk/diru asko

—Don Quijote: amets ugari/interes gutxi.///Egungo Quijoteak (ingeniariak) interes ugari/ amets gutxi.

Peñagarikano:

| Ekolojista omen zara zu
eta guztiz nabarmena
inolaz ere ez duzu onartzen
eoliko ta antena.
Ni Quijotekin parekatu nahi
horrek ematen dit pena...
ni Quijote bat izan ninteke
baina Panzaik ez duena.

Peñagarikanok **B** erako bertsoa osatu du oraingoan. Lujanbioren azkenari bere azkenarekin erantzun dio. Lujanbioren arrazoiketa distiratsua ez zion bestelako biderik uzten. Eta erantzuna bat-bateko jardunetan sarri erabiltzen den teknika batez baliatuz eman du, gainera: pertsona eta pertsonaia nahastuz.

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Peñagarikano bertsolaria argala da berez. Entzuleak oso ongi daki Peñagarikano argala dela eta Peñagarikanok ere badaki entzuleak bera argaltzat daukala. “Argal” izenlaguna Peñagarikano pertsonaren estereotipoaren zati da beraz. Horretaz baliatu da Peñagarikano bestelakoan oso erantzun zaila zuen bertso bati buelta emateko.

Ingeniaria eta Peñagarikanok, pertsonak eta pertsonaiak bat egin dute bertsolariak hala nahi izan duelako. Gainera, Panza hitzak gazteleraz duen adiera bikoitzak (batetik sabela eta bestetik Quijoteren laguntzaila) irtenbide bat eskaini dio Peñagarikanori.

Lujanbio:

| Don Quijotea zarela esan det
itxuraz Panzarik gabe,
Panza beharrik ez daukazu zuk,
ederki beteta zaude!
Holako gizon interesdunik
maiz izan det parez pare
dirua atera nahi liokeena,
baita haizeari ere!

Lujanbiok **C** motako bertsoa egin du. Bi lehen puntuetan erantzun dio bere aurkariari. Eta gero bere arrazoia bota du, alde zurretik pentsatu eta nekez tolestu duena. Hiperbolea gogoangarria da: ingeniaria hain da diruzale, haizeari ere sosak aterako lizkiokeela ahal balu!

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

Harira ez datorren iruzkin bat egiteko garaia da. Gazteek ahozkotasunean galera handia dutela begi-bistakoa da. Ez da ordea gauza bera gertatzen bertsolari gazteei dagokienean. Bertsotan inoiz baino maizago erabiltzen dute gazteek ahozko hizkera. Eta horren adibide Lujanbioren bertsoaren azken bi puntuak dira. Usadiotik jasotako esamoldea du hori. Baina ez bertso usadiotik, ahozko hizketaren usadiotik baino.

Peñagarikano:

| Txakurrarekin ibiltzen zara
sarri hona eta hara
ta txakurrari eman diozu
hemen kristoren pasada;
Ta diozunez hondatu leike
mendi hontako patxada
Aizu! papel hoi jaso lurretik
hain garbizale bazara.

Peñagarikanorena **A** motako bertsoa da. Lujanbioren arrazoiak ez zuen ordainik eta ihesbide bat aurkitu behar izan du. Gaian ez zetorren txakur egurtua asmatu du eta baita mendizaleak lurrera jaurti omen duen paper bat ere. Literaturan, jakinekoea da, gezur tankerako egiak baino gehiago balio du egia tankera duen gezurrak. Eta bat-bateko saio batean edozeri heltzea zilegi da asmamenak hainbesterako ematen badu.

Lujanbioren laugarren bertsoa da honakoa:

| Bere morala ukitu det ta
harrotu egin da berriz,
proiektuaren defentsan ozen
hitzegin du mila aldiz.
Orain papera jaso dezadan
harrosko egiten dit hitz
asko esan gabe jasoko zuen
bilete bat baldin balitz!

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

B motako bertsoa da. Peñagarikanok lurrean dagoen paper bat “asmatu” du. Lujanbiok asmazio horri erantzun dio bete betean. Eta gainera asma-zioa gaian kokatu du. Ingeniariari diruzale hutsa dela gogorarazteko erabiliko du papertxoa. Aurkariaren bertsoaren indarrak baliatu, eta, beste koxka bat estuago eginez, arrakasta nola lor daitekeen erakutsi.

Peñagarikano:

| Zuk diozunez lasaitasuna
laister izango da murriz
ta ez omen da hemen izango
ez pago eta ez haritz;
Ta orain berriz hain lotsagabe
zergatik egin dezu hitz?
berak lurrera ez zun botako
biletea izan balitz!

Peñagarikanoren azken bertsoa ere **B** motakoa da. Eutsi egin dio Peñagarikanok Lujanbioren arrazoiari. Bere terrenoan eutsi ere, errimak ere Lujanbiok erabili dituenaren sail berekoak erabiliz. Gainera, edozein eztabaidatan baliagarri gerta daitekeen estrategia bat darabil. Aurkariaren ahotan jartzen du aurkariak inoiz esan ez duen zerbait: “Ta ez omen da hemen izango ez pago eta ez haritz”. Hori Peñagarikanok berak esan zuen eztabaidaren hasieran, baina entzuleak segur aski ez dauka gogoan nork esan zuen ere. Eta Lujanbio ez da hasiko berak ez duela esan horrelakorik eta tema nahasten, azalean ez baitu zer kateaturik sakonean arrazoi duenak.

Temako saio honen egitura hau litzateke:

A-C-A-B-C-A-B-B.

Aipatzekoa da saio honetan bertsolari bakoitzak nola heltzen dion bere paperari. Lujanbioren pertsonaia esker-hobekoa zen itxura batera. Mendizale batek mila arrazoi izan ditzake energia eolikoa sortzen duten zutabe horien aurka egoteko. Peñagarikanok, ingeniariak, paper latzagoa zeukan. Ez da samurra egoera horretan (mendian hamaiketako egiten ari dela) obra horren beharra zurituko duten arrazoiak aurkitzea. Eta saioak alde zuzenetik espero genuenari erantzun dio. Lujanbiok arrazoi bortitz eta distiratsuak ekarri ditu eztabaidara. Eta Peñagarikanok berriz, jakin du aitzakiak aski topatzen arrazoiketa horren pisuari eusteko.

Binakako saio guztiak ez dira, ordea, ikusi ditugun bi horien erakoak. Bertsolarien lana ez da eztabaidara mugatzen. Ez da beti norbere arrazoiketarekin aurkariarena hautsi eta haren gainetik geratu beharrik izaten. Bertsotan, askotan, binakakoa elkar-lana izaten da. Elkar-lan horretan bertsolarien egitekoa da elkar hartu eta bien artean saio erakargarri eta koherentea osatzea, batak bestearen gainetik geratu beharrik izan gabe.

Temako jarduna,
bertsolaritzaren sustrai

3.4 Gairik jarri gabeko binakako saioak

Inork gairik eman gabeko saio hauetan bertsolariak oholtzara igo eta beraiek aurkitu beharko dute gaia. Horretarako non dauden, entzuleria nolakoa den, zer egun den, bilkuraren arrazoia zein den... hartu beharko dituzte kontuan.

Horrelako saioetan nabarmentzen da ongien bertsolarien binakako lana zenbateraino den elkar-lan. Oholtzatik jaitsi ahala nekez entzungo diogu bertsolari bati berak saio ona egin duela. Ongi aritzea, entzuleekiko lotura lortzea... biren lana da. Biek egingo dute ongi edota biek probatuko dute porrotaren mingotsa.

Era honetako saio bat ongi irten dadin, ezinbestekoa da bertsolariek oholtzara igo aurretik zer ibilbide egin behar duten erabakitzea. Gairik inork ez jartzeak ez du esan nahi gairik gabe aritu behar dutenik. Baina gai horiek pentsatu, asmatu eta adostea komeniko litzateke lanean hasi baino lehen.

Adibidez: herri honi buruz hasiko gara. Gero Santua aipatuko dugu eta mezetara ez garela etorri eta hor kateatuko gara. Gero honako eta halako arazo ukituko ditugu hemen bertakoak, herrikoak. Hurrena doinua aldatuz egoera politikoari buruz jardungo gara eta horren ondoren, kontrastea handiagoa izan dadin, elkarri adarra joko diogu udako oporretan non ibili garen aipatuz. Azkenean, doinua berriro aldatu eta zure ezkontzaren gaiari helduko diogu, puntutan.

Eskema hau adibide soila baino ez da. Herriaren eta bertsolarien arabera beti aldatuko da ibilbidea. Eta eskema gainera, behar lukeena da, baina ez beti egiten dena. Puntaneko bertsolariek, hain zuzen ere sarri dabiltzalako, astirik eta gogorik ez dute izaten saioaren aurre-hezurdura ñimiño hau egiteko ere. Eskarmentuak eta kalitateak konfiantza eman die nonbait, eta saioaren egitura ere bertsoak bota ahala osatuko dute.

Lan moeta honetan bertsolarien funtzioen banaketak garrantzia handia du. Batek saioaren gidaritza hartuko du. Gaiak aurkituko ditu, bideak irekiko, doinuak aldatuko... Besteak bertsolari-gidari horri segituko dio leial hark jarritako gai, bide eta doinuetan. Atzetik doanak leialtasun hori zor dio aurretik doanari, honek hartzen baitu saioaren nondik norakoaren zama.

Eskarmentuak zerikusi handia du horrelako bertso lanetan. Ez dago gairik, baina bai kantagai ugari. Begiak erne eta belarriak adi ibiltzea da gakoa. Zer gai ateratzea komeni den jakin behar du bertsolariak. Gai bat noiz zukutu duen eta beste bat hartzea noiz komeni den antzeman behar dio. Entzulea zerekin gozaten ari den eta zerekin aspertzaren epaitu behar du bere kabuz. Lagunarekin ongi-esanka noiz jardun eta gaizki-esanka noiz hasi erabaki behar du, bien arteko lana hobea izan dadin. Gauza asko. Bertsolari izatea ez baita bertsoa osatzen jakitea bakarrik!

Elkarlaneko binakako saio hauetan bertso bakoitzak ez du bestelako bertso-jardunetan duen adinako garrantzirik. Saioa bera da, bere osotasunean, berbaldi. Horregatik, ez da harritzekoa bertsolari batek bertsoaren batean “paso” egitea, dituen denak ez ematea. Aurreranzko bideak zein izan daitezkeen pentsatzen ari den seinale izan daiteke. Badaki saioak izan behar duela ona, ez bertso bakoitzak.

IV

**MARKO TEORIKO BERRI
BATERANTZ**

Bat-bateko bertsolaritzaren ezaugarri sozio-kulturalik behinenean azalpen kritikoa egin dugu lehen eta bigarren ataletan; hirugarren atalean, berriz, bat-bateko bertsoa sortzeko prozeduren deskripzio zehatza egin dugu. Aztergaia horrela zehazturik, bat-bateko bertsolaritza aztertu eta ulertzeko marko teoriko bat proposatzea da laugarren eta azken atal honen xedea. Bertso-munduan ibili garen urteotan apurka-apurka, geure jarduna arretaz behatuz, eraiki dugu hemen handika-handika aurkezten dugun marko hau.

Sarreran esan dugun bezala, marko teoriko baten premia ez da apeta hutsez sortua. Aitzitik, jardunak sortzen zizkigun galderei erantzuteko orain arteko teoriak gauza ez zirelako jo behar izan dugu marko teoriko berri bat eraikitzen. Bertso jardunaren behaketak galderak sortzen zizkigun, eta ohiko teorietan ez genuen erantzun egokirik aurkitzen. Horregatik eraiki behar izan dugu bat-bateko bertsolaritza aztertzeko marko berria, eta ez, inola ere, aldezturik teoriaren baten edo besteren zale ginelako.

Iritsi garen lekura iristeko, ordea, bide luzea egin behar izan dugu, hainbat eta hainbat teoriatan barrena. Eta hala, iruditu zaigu onena genukeela bidean ezagutu eta aldezturik bazterrerara utzi behar izan ditugun

teoria horietako batzuen berri ematetik hastea. Izan ere, osorik onartu ez baditugu ere, denetan aurkitu dugu alderdi baliagarriren bat edo beste. Ez gaituzte nahi genuen lekura eramán, baina bideak aberastu egin gaitu.

1 Poetika idatziaren bide itsua

Nonahi aurki daitezke bat-bateko bertsolaritza genero berezia dela diotenen aipuak. Bat-batekotasuna aipatzen da horrelakoetan, horrek egiten baitu bertsolaritza berezi. Denak ezin, eta honako bi hauek aipatuko ditugu, gisa horretako aldarrikapenen ordezkari:

| Euskarazko aho literaturaren barruan, inprobisazioa da, dudarik gabe, gauzarik deigarriena. Batetik, prozeduren aldetik perfektua baita inprobisazio hori, eta, bestetik bizi-bizirik baitago, nola hedapenari hala lurralde bakoitzean zaion estimuari dagokionez ere.¹⁶

Jendaurreko bertsolaria, poeta eta kantaria ezezik, hizlaria ere badela esan dugu gorago. Horregatik, bapateko ihardunak utzi-ezinezkoa du erretorikaren teknika hau. Baina hau da harrigarria: plazan bertsotan ari denak eginkizun hauek guztiak —batez ere gaia asmatzea, ordenu batean jartzea eta esaera ederrez ematea—, tarterik gabe egin behar dituela, segundu batzuren barruan.¹⁷

Aldarrikapenok, ordea, bere horretan geratzen dira sarri: aldarrikapen hutsean, alegia. Antza denez, bat-bateko bertsolaritzan ere Homerori buruzko ikerketetan gertatzen dena gertatzen da. Ikus, bestela, zer dioen horretaz, Albert Lord aipu duela, Rainer Friedrich-ek:

| Homero ahozkotasunetik ulertu behar dela aldarrikatzen badute ere, kri-

¹⁶ LEKUONA, Manuel. *Idazlan guztiak I: Ahozko literatura*. Tolosa: Gráficas ESET-Seminario de Vitoria, 1978, 270 or. Kardaberaz bilduma, 22.

¹⁷ LEKUONA, Juan Mari. *Ahozko Euskal Literatura*. Donostia: Erein, 1982, 125 or.

tika literarioaren ohiko bidetik egiten dute homeristek Homeroren obraren azterketa. Horregatik zioen Lord-ek homeristek hobe luketela “ahozko poesia ulertzen saiatzea” eta “beste herrialdeetako ahozko poesiatik ikastea”, hori egin ezean “ahozkotasuna” etiketa hutsa, eta “tradicionala” zentzurik gabeko hitza baino ez dira-eta. Bi hitzon elkartea, berriz, idatzizko poetika aplikatzen segitu ahal izateko itxurakeria akademikoa besterik ez da¹⁸.

Beste hainbeste gertatzen da, gure aburuz, bat-bateko bertsolaritzan ere. Nahiz eta haren izaera ahozko eta bat-batekoaren garrantzia sarri aipatu, kontua da bertsolaritzari buruzko azterketa gehienak poetika idatziaren ikuspegitik egiten direla.

Horren emaitza jakina da: bat-bateko bertsoa nekez gertatzen da baliozko ezer. Izan ere, poetika idatziaren ikuspegitik begiratuta, maila poetiko kaskarrekoak dira bat-bateko bertso gehienak.

Poetika idatziaren bide itsua

1.1 Testuaren ingurua: testu ingurutua

Bat-bateko bertsoaren balioa ukatzea baldin bada kontua, Matias Mujika dugu txapeldun. 1997ko udazkenean, Mujikak, euskal kulturari buruzko libelo bat (hala deitzen dio egileak berak) eman zuen ezagutzera, Interneten bidez. Libelo horretan, euskarazko kultur produktuen kaskartasuna aldarrikatzen du Mujikak, eta bat-bateko bertso bat erabiltzen du, besteak beste, horretarako.

Lehenik eta behin, kritikatu nahi duen bertsoa aurkezten du Mujikak; edo, hobeto esan, bertso horren gaztelaniazko itzupena. Honako hau, hain zuzen:

¹⁸ FRIEDRIECH, Rainer. The Problem of an Oral Poetics. *Oralité et littérature/Orality and Literature. Proceedings of the XIth Congress of the International Comparative Literature Association (Paris, August, 1985)*. New York: Peter Lang, 1991, 19-28 or. Aipua, 22. or.

| Una paloma blanca se me ha acercado
esta mañana al amanecer
¡Qué alegría me han producido,
queridos señores, sus palabras!
Y yo ahora estoy ante ustedes
lleno de contento.
Lo primero, buenos oyentes,
buenos días a todos de corazón.

Bertso hori txarra dela, eta, besterik gabe, bertsolaritza osoa deskalifikatzen du Mujikak. Ez hori bakarrik: baita, prezio berean, euskarazko literatura idatzia eta euskarazko kultura bere osotasunean ere. Aurrena, bertso hori ez dela aukera zezakeen txarrena dio Mujikak; aitzitik, “mende honetako bertsorik goraiapatuenetako bat” dela, ez dela saiatu propio bertso txar bat bilatzen. Horrenbestez, frogatua geratzen da, Mujikaren hitzetan, “zenbaterainokoa izan den, eta den, bertsolaritza ofizialaren erdipurdikeria”. Azken ondorioa, berriz, honako hau ateratzen du libelogileak: ezinezkoa da gisa horretako piezek inorengan plazerrik eragitea. Bertsoak entzutean batzuek jartzen duten gozamen aurpegia, beraz, “itxurakeria hutsa da”¹⁹.

Matias Mujikaren jarrera muturrekoa da, jakina, baina ez uste daitekeen bezain ezohikoa. Ez dago gaiztoz jokatu beharrik antzeko ondorioetara iristeko: bat-bateko bertsolaritza poesia idatziaren ikuspegitik aztertzen bada, libelogilearen ondorio berera iritsiko gara, borondaterik onenaz jardunda ere. Hori, ordea, XX. mendeko teoriarik emankorrenei muzin egitea ere bada: ahozkotatzen teoriari, hizketa-ekintzen teoriari, edo erretorika berriei, besteak beste. Azken batean, izan nahi ez duen zerbait izatea eskatzen bazaio bat-bateko bertsoari, emaitza etsipengarria izango da beti.

Ikerlari batzuek, puntu horretara iritsita, testu aldetik ere maila bikaina

¹⁹ MUJIKA, Matias, “Euskal Kultura. Libelo” 1997. Internet

duten bat-bateko bertsoen bila ekiten diote, eta, horrelako bertsorik ere bai-baitago, bertso horiek erabiltzen dute bertsoaren balioa ukatzen dutenen kontrako polemikan. Hori, ordea, halamoduzko irtenbidea da, honako bi arrazoiengatik: batetik, aurkariaren ikuspegia onartu egiten da horrela jokatu, eta, bestetik, bat-bateko bertso gehienak pobre samarrrak baitira ikuspegi horretatik begiratuta.

Matias Mujikak aipatzen duen bertsoa hartzen badugu, esaterako, onartu beharko diogu bertsoa (bertso horren testua) ez dela bikain horietakoa. Poetika idatziaren axioma nagusiak dioenez, testu batek hartzailearengan nola edo halako emozioen bat sortuko badu, poetikoki landua behar du, nahitaez, testu horrek (hots: baliabide poetiko-erretorikoz osatua behar du, gutxi-asko). Axioma hori aintzat hartzen bada, arrazoia eman beharko diogu Mujikari, bertso horri dagokionez behintzat.

Hortik horrelako bertso batek gozamenik ez dezakeela eragin, edota gozamen hori itxurakeria hutsa dela esatera, ordea, jauzi handia dago. Poetika idatziaren ikuspegitik ari da Mujika, eta teoria horren arabera ezinezkoa da horrelako testu batek inorengan ezein emozio eragitea. Kinka horretara iritsita, libelogileak teoriari eustea erabaki du, eta hortik atera du bere ondorio nagusia: horrelako bertsoekin emozionatzen direla diotenak planta egiten ari dira, ezinezkoa baita horrelako memelokeriekin emozionatzea. Gu, ordea, sarri emozionatu izan gara maila horretako testua duten bertsoekin, eta ezin dugu inola ere egin Mujikak egiten duen aukera bera. Batetik, emozioa daukagu, guk eta gure ingurukoek sarri bizi izandakoa. Bestetik, berriz, emozio hori ezinezkoa dela dioskun teoria. Libelogileak, kinka berean, emozioa jartzen du zalantzan. Guk, berriz, teoria.

Izan ere, bat-bateko bertsolaritza poetika idatziaren ikuspegitik aztertzen denean, baita munduko federik onenaz egiten bada ere, honako okerrok egiten dira, gutxien jota:

- Bat-bateko bertsoa testu hutsera mugatzen du. Alegia, ez dira kontuan

hartzen bertsoaren gainerako alderdiak, hala nola prosodikoak, paralinguistikoak, extralinguistikoak eta musikalak. Bat-bateko bertsoa, bestalde, testuinguru jakin batean eta testuinguru horretarako sortzen da, eta hori ere ez da aintzat hartzen. Poetika idatziak, beraz, ez du bertsoa bere osotasunean kontsideratzen. Libeloan aipatzen den bertsoari dagokionez, esaterako, libelogileak aztertzen duena ez da bertsoa, bertsoaren zati txiki bat baizik: haren testua, eta hori ere nola-halako itzulpen baten bidez emana. Bertsoa, ordea, ez da testuan agortzen. Kantua ere bada bertsoa, eta, emozioa sortzerakoan, testua bezain garrantzitsu izan litezke doinua, ahotsa eta kantakera. Horien berri ez ematea barkagarri izan liteke, zaila baita horrelako kontuen berri idatziz ematea. Baina, hala ere, badira beste kontu batzuk libelogileak nahitaez aipatu behar zituzkeenak, bere azterketa lau hankatatik herren geratzea nahi ez bazuen behintzat. Izan ere, bat-bateko bertsoa ia ezer ez baita, sortu zeneko testuingurutik erazuta. Hala, bada, esan behar zuen, esaterako, bertso hori Donostian kantatu zela, 1935eko urtarrilaren 20an, San Sebastian egunez, beraz; Poxpolin antzokia jendez mukuru zegoela saio hartan; hogeit bertsolari agertu zirela oholztan, eta horietako askok estreinako zapalztzen zutela antzoki baten oholztza, plaza eta sagardotegia baitziren ordu arteko bertso leku ohikoak; zorioneko bertso hori kantatu zuen bertsolaria 20 bat urteko gazte korbatadun bat zela: Inaki Eizmendi, “Basarri”, bertsolarien ordu arteko irudi topikotik guztiz bestelako irudia ematen zuena. Entzuleen artean, berriz, euskal intelektualik ospetsuenak han ziren, estreinako: bertsolaritzari iseka egiten ziotenek, euskal kulturaren berpizkundearen ardatz moduan ikusten zuten orain bat-bateko bertsolaritza. Testuinguru horretan, egoera horretan, uste izatekoa da hara bertaratuak bazekitela, ondotox jakin ere, garrantzi handiko ekitaldi bateko partaide zirela. Intelektualitatea han zen, eta bertsolari gazteen presentziak, nolabait, artearen iraupena segurtatzen zuen. Are gehiago: euskararen beraren iraupena segurtatuta ikus zitekeen han. Kontu horiek guztiak albora uzten —edo ezkututzen— badira, testu hutsera mugatzen da bat-bateko bertsoa, eta testu hutsa, ikusiko dugunez, bertsoaren

Poetika idatziaren
bide itsua

alderdietako bat baino ez da, eta ez nahitaez garrantzitsuena. Han bilduek, izan ere, ez zuten testu bikainen beharrik emozioz gainezka egiteko; une historiko haren partaide izateak sorrarazten zien emozioa, eta bertsoak emozio hori katalizatu, bideratu baino ez zuen egin behar.

■ Berez ez duen xedea ezartzen zaio bat-bateko bertsoari, bertsolariaren asmoa ez baita maila estetiko-literario handiko testuak sortzea. Jakina, noiz edo behin horrelakoren bat ere sortzen du bertsolariak, eta poz hartzen du horrelakoetan, baina bere xedea ez da hori. Zein da, orduan, bat-batean ari den bertsolariaren xedea? Bada, Jon Sarasuak egokiro azaldua duen honako hau:

| Berez hori duk, eta horrek eskatzen dik, batetik, saioaren arnas luzea, nondik hasten haizen, gero nola harritzen dituan [entzuleak], gero nora hoan, nola pertzibitzen duan haien mundua, nola eragiten dioan haien [entzuleen] munduari... eta horretarako ez zagok punta-puntako bertsoak kantatu beharrik, jardun osoa duk, bere osotasunean, kontuan hartu beharrekoa, gauza asko zagok hor.²⁰

Poetika idatziaren
bide itsua

1.2 Testua bere testuinguruan: inguru-testua eta egoera

Ez gintuzke Sarasuaren baieztapen horrek harritu behar, bat-bateko bertsoaren ezaugarri berezkoenaren ondorio zuzena baita. Izan ere, sortu, igorri eta jaso, aldi berean, kolpe bakar batez, egiten baita bat-bateko bertsoa, bertsolaria eta entzuleak une berean eta gune berean aurrez aurre daudela (*performance*). Literatura idatzian, testua da idazlearen eta irakurlearen zubi ia bakarra. Bat-bateko bertsolariarentzat, aldiz, bere xedea iristeko dituen baliabideetan bat baino ez da testua. Xede hori, diogun berriro, entzuleengan emozioa eragitea da. Bat-bateko bertsogintzaren baitan ere ez du testuak beti garrantzi bera, testuaren garrantzia aldatu egiten baita entzuleek eta bertsolariak partekatzen duten testuinguru trinkotasunaren arabera: zenbat eta partekatutako testuinguru hori,


²⁰ GARZIA, Joxerra. *Jon Sarasua bertso-ispiluan barrena*. Irun: Alberdania, 1998, 61 or.

trinkoago, orduan eta testuaren garrantzia txikiago.

Testuari dagozkion baliabide eta estrategiak zehatz-mehatz aztertu eta sailkatu izan dira historian zehar. Testuz kanpoko baliabideak, ordea, bat-bateko jardunean berealdiko garrantzia duten arren, apenas aztertu diren orain arte, bertsolaritzaren alorrari dagokionez, behintzat. Orekarik eza begi-bistakoa da. Testuz kanpoko zer horiek guztiak “testuingurua” deritzon zakuan sartu ohi dira, baina zaku horren edukia nahasiegia gertatzen da azterbide moduan erabili nahi denean.

Hala, bada, eta orain arte esana gogoan, bizpahiru zehaztapen metodologiko egingo ditugu, bat-bateko bertsogintzaren azterketa doitzen lagunduko digutenak.


Aurrerantzean, beraz, “testu” diogunean “bertsoaren hitzak” ulertu behar da, nahiz jakin badakigun ez dela hori beste ikerbideetan (Testuaren Zientzietan, kasu) “testu” hitzari ematen zaion adiera. “Testuinguru”, berriz, usadioaren arabera erabiliko dugu, testuz kanpoko zer guztien multzoa adierazteko. Testuinguruaren barruan, ordea, “inguru-testua” eta “egoera” bereiztuko ditugu. Horrenbestez, honelatsu osa genezake bat-bateko bertsogintzan daragiten alderdien mapa:



Poetika idatziaren bide itsua

Testuinguruaren alderdiak (nola inguru-testuarenak hala egoerari dagozkionak ere), lehen mailako baliabide-iturri dira bat-bateko bertsolarientzat. Testuz kanpoko alderdiok gutxiestea —edo are halakoei batere jaramonik ez egitea— bat-bateko bertsogintzaren izatea bera ukatzea da.


Testuinguruaren alderdiak, egia esan, beti dira garrantzitsu, edozein modutakoa delarik ere komunikazio ekintza. Literatura idatzian, esaterako, igorlea eta hartzailea elkarrengandik urruti daude, nola denborari hala espazioari dagokionez, eta, hala eta guztiz ere, gutxieneko testuinguru komunik gabe ez litzateke komunikazioa zertuko. Bat-bateko bertsogintzan, ordea, testuingurua bera da gauza guztien erdigune eta neurri. Honako diagramotan irudikatu nahi izan dugu komunikazio mota bataren eta bestearen arteko aldea:



Komunikazio-ekintza ez bat-batekoaren diagrama²¹

Poetika idatziaren bide itsua

21 GUTIERREZ ORDOÑEZ, Salvador. *Introducción a la Semántica Funcional*. Madrid: Síntesis, 1992.

Ahozko eta bat-bateko komunikazio-ekintzen grafikoa²²

Diagramotan ikus daitekeenez, bat-bateko komunikazio ahozkoan, bestean ez bezala, igorlea eta hartzailea egoera bat berean murgilduta daude, egoeraren osagarri dira biak ala biak; ekitaldi bakoitza errepika ezina da, eta egoera osatzen duten alderdien aipamenek lotura berezi bat sortzen dute bertsolariaren eta entzuleen artean. Lotura edo konplizitate hori handiago, eta errazago zaio bertsolariari bere xedea iristea.

A | Inguru-testuaren osagarriak

Inguru-testuaren kohesio edo trinkotasun mailak sekulako garrantzia du bat-bateko bertsogintzan, eta, aurrerago ikusiko dugunez, bera da, orobat, bat-bateko bertsolaritzaren historian mugarriak jarri eta aldiak bereizteko irizpiderik egokiena. Inguru-testuari dagozkion kontuak,

²² GARZIA, Joxerra, 2000, Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa, Bilbo, EHU-doktore tesiak, 210. or.

ordea, bihurriagoak dira egoerari dagozkionak baino. Inguru-testua, berriz, bertsolariak eta entzuleek partekatzen dituzten balio eta erreferentzien multzo hori, aldakorra da. Geure diagraman **A+B** izango litzateke igorlearen erreferentzia multzoa, eta **A'+B'**, berriz, hartzailearena. Aldi batzuetan (frankismoan, esaterako), oso inguru-testu trinkoan, homogeneoan kantatzen dute bertsolariak. Alegia, bertsolariaren mundu-ikuskerara eta entzuleena bat datoz ia ehuneko ehunean, eta **B** zein **B'**, partekatzen ez diren balioei dagokien puskak, alegia, oso txikia izango litzateke, hutsaren hurrengoak. Bestetan, berriz (azken urteotako bertsogintzan, adibidez), partekatutako balio eta erreferentziak gutxiago izaten dira, entzuleria bera ere zabalagoa delako, besteak beste. Ez bakarrik bertsolariaren eta entzuleen artekoak, baizik eta baita entzuleen artekoak ere. Horrelakoetan, B eta B' horiek handiago lirateke. Kontua da B eta B' horien handi-txikiak garrantzia itzela duela bertsolariaren komunikazio-ekintzan. Are gehiago, gaur egungo bertsogintza eta aurrekoa, ezagutzen dugun neurrian, inguru-testuaren trinkotasuna mailarengatik bereizten dira nagusiki. Hots, **B** eta **B'** txikia izan edo handia izan, bi bertsokera elkarren guztiz bestelakoak aurkituko ditugu: soila eta inguru-testuaren balioei estu-estu atxikia **B** eta **B'** txikiak direnean, testu landuagokoa **B** zein **B'**, edo biak batera, handiak direnean. Euskararen egoera ez-normaldua dela-eta, kodeak ere antzeko arazoak sortzen ditu, bertsolariak eta entzuleak kode bera darabilte batzuetan (edo ia bera), eta beste batzuetan, berriz, sekulako amildegia ageri da bataren eta bestearen kodeen artean.

Zenbat eta inguru-testua trinkoago, orduan eta testu-lan gutxiago behar du bertsolariak entzuleengan emozioa pizteko:

| Publikoa homogeneoa denean, bertsotan egitea errazago duk, alde bate-tik. Sentimendu homogeneoak zaudek, eta sentimendu horietako bat ukitzen baldin baduk bertsotan, besterik gabe lortzen duk jendearengana iristea. Bertsotan alderdi asko zaudek: teknikoak, errima eta neurria

bezala, eta beste. Baina azkenean, hik dioan bezala, emozioa sortzea duk garrantzitsuena. Eta hik emozioa eragin badezakek publikoaren artean dagoen sentimendu bat ukituz, ez daukak filigranatan hasi beharrik.²³

Honako hauek dira, bestalde, inguru-testuaren homogeneitate maila erabakitzen duten alderdirik aipagarrienak:

- Egoera sozio-politiko-kulturala. Azken urteotako kontuetara mugatze-arren, esan dezagun, eta horrela aitortu izan dute bertsolariek sarri, bertsolaritzaren inguruko jendea (bertsolariak, entzuleak eta gainerakoak) ia guztiz bat eginda zegoela frankismoaren garaian. Alegia, orain ez bezala, oso talde trinkoa osatzen zuten, ikuspegi, balio eta erreferentzia bere-tsuei atxikita. Hori dela eta esan ohi dute bertsolariek “Frankoren garaian errazago —eta erosoago— zela bertsotan jardutea”.
- Entzuleriaren handi-txikia. Zenbat eta handiago entzuleria, txikiago homogeneitatea.
- Bertsolarien eta entzuleen ikasketa maila. Ikasketa maila handiak areagotu egiten ditu erreferentziak, homogeneitatearen kaltean.

Jakina, inguru-testuaren hiru alderdiok batera kontsideratzekoak dira, elkarri eragiten baitiote etengabe. Jon Sarasuak honela ikusten ditu kontuok:

| Zer gertatu da guri tokatu zaigun entzulerian? Ba homogeneotasun hori apurtu egin dela, eta ez bakarrik zirkunstantzia historikoak aldatu dire-lako. Bertsolaritza biziberritzeko apustu horretan, jende berria asko era-karri duk. Horrek berak ekarri dik publikoaren aniztasuna. Sentsibilitate politiko desberdinak zaudek, zaharrak eta gazteak zaudek, unibertsitate-an ikasitakoak, hiri eta baserriko girokoak... horrek guztiak zaildu egiten dik ikaragarri bertsogintza. Orain publikoa daukak, edo publikoak. Lehen ez, lehen herriari kantatzen ziotean.²⁴

²³ Jon Sarasuak, in GARZIA, 1998, *Jon Sarasua bertso-ispiluan barrena*, Irun, Alberdania/Zerberri, 50. or.

²⁴ Ibidem.

Kontuan harturik 1960 baino lehenago bat-bateko bertsolaritzatik pasadizo pare bat eta beste hainbat bertso besterik ez dugula ezagutzen, onena litzateke, gure ustez, data hori baino lehenagoko guztia bat-bateko bertsolaritzaren historia-aurretzat jotzea. Hala, bada, 1960tik honako tartera mugatuko dugu bat-bateko bertsolaritzaren historia, eta honako aldiok bereiztuko genituzke:

A) Inguru-testu trinko eta oihartzun sozial apaleko bertsogintza (1960-1979).

A.1 **Biziraupeneko bertsogintza (1960-1973)**. Basarri-Uztapideren jiran, Azpillaga, Lopategi, Lazkao Txiki, Xalbador eta abarren aldia litzateke honako hau. Bertsolaritza gero eta indartsuago agertzen da, Euskaltzaindiak antolatutako txapelketei esker, hein handi batean (1960, 1962, 1965 eta 1967).

A.2 **Erresistentziazko bertsogintza (1973-1979)**, Lopategi eta Azpilagak ordezkatzeko dutena.

B) Inguru-testu ezpalduko bertsogintza (1980-1998).

B.1 **Berrikuntza aroa (1980-1990)**. Euskadiko Autonomia Erki-degoko Autonomia Estatutuaren ostean, bertsozaleria estrategia politiko kontrajarrietan banatzen da. Zatiketa lehendik ere bazegoen, baina urte hartatik aurrera maila pertsonalean ere nabari da. Bertsogintzaren euskarri nagusi txapelketak dira oraindik. Hedabideek ez diote, salbuespenak salbu —eta eragin txikiko salbuespenak dira gainera— gerora eskainiko dioten tokia eskaintzen bertsolaritzari. Amuriza litzakete, Jon Enbeita eta Jon Lopategirekin batera, aldi honetako erreferentzia behinena.


B.2 **Bertsomaniaren aroa (1991-1993)**. Euskal Telebistan, *Hitzetik Hertzera* programak, nahiz 1988n hasi zen, audientzia polita izatera hel-

tzen da. Euskarazko irrati guztiek toki zabala eskaintzen diote bertsolaritzari. Euskarazko kulturaren pertsonaia nagusietakoa bilakatzen da bertsolaria, sasoi beteko bertsolari batzuen jiran: Egaña, Sebastian Liza-so, Jon Sarasua, Euzkitze, Peñagarikano... Gazteago batzuk ere indartsu plazaratzen dira, hurrengo aroko protagonista izango direnak. Hortaz gainera, bertsolari beterano batzuk ezin hobeto egokitzen dira bertsogintza honetara: Lopategi, Amuriza, Enbeita, Mañukorta, eta abar. Faktore horiek guztiek “bertsolaritzaren boom”a deitu izan dena eragin zuten, 1991an bere goren gradura iritsi zena: bertso-plazen kopurua izugarri handitzen da, urtean 1.000 saio baino gehiago egitera iritsi arte. Bertso-saioetara sekulako jendetza inguratzen da gainera.

B. 3 Bertsomaniaren osteko belaunaldiak (1994-2000). Aurreko atalean aipatutako bertsolari gazteek hartzen dute, Egañaren belaunaldi-koekin elkarlanean, bertso-plazen zama: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Maialen Lujanbio, Jesus Mari Irazu, Estitxu Arozena... Ez dago bakar bat bakarrik aipatzerik, multipolarra bihurtu da bertsolaritza. Bertsomaniaren aparra jaitzirik, bertsolaritzak modan darrai, baina ez hamarkadaren hasierako suhartasunaz. Beherakada horretan izan dezake zerikusirik Bertsozale Elkartearen eta ETBren arteko etenak (1994-1997: hiru urte *Hitzetik Hortzera* gabe). Hamarkadaren erdialdera, Ajuria Eneako mahaiaren eta Oldartzen estrategiaren arteko tentsioak goia jotzen du. Desgiroaren unerik bortitzena, 1997ko uztaillean izan zen, Miguel Ángel Blanco zinegotziaren heriotzarekin. Ikusteko dago zer bide hartuko duen belaunaldi honek, baina, literaturan-eta bezala, badirudi bideen aniztasuna izan litekeela, hain zuzen, bidea.

Aldi jakin baten inguru-testua nolako, halako izaten da, beraz, aldi hartako bertsogintza. Jakina, inguru-testuaren nolakotasuna *continuum* moduan kontsideratu behar da. Bere bi muturretan, honako bi egoerok jar genitzake, inguru-testuaren arabera:

Poetika idatziaren bide itsua



Poetika idatziaren bide itsua

Bertsozale gehienek buruz dakiten Uztapideren bertso honetan ikus daiteke argienik inguru-testu trinkoko estrategia nagusia. 1962ko txapelketakoa da bertsoa; gaia, berriz, “ama”; eta bertsoaren testua, honako hau:

| Hauxe da lan polita
orain neregana
alboko lagunendik
etorri zaidana.
Bertsoak bota behar
dira hiru bana
hortan emango nuke
nik nahitasun dana:
beste ze-esanik ez da
esatian “ama”²⁵.

Poetika idatziaren
bide itsua

Bertsoa, arretaz aztertuz gero ikus daitekeenez, ez da baliabiderik gabea. Emozioa sortzeko, ordea, hamarreko txikiaren 65 silabatatik 63 soberan ditu Uztapidek. Bai-baitaki bi silabok bertso-saioko giro bildu hartan egoki eta ozenik ahoskaturik eragingo duen emozioaren pareko emoziorik ez lukeela lortuko Adan eta Ebaz geroztik asmatu diren metafora guztiak erabilia ere. Bi silaba horiek dira bere baliabide nagusia: “ama!” esan, eta “beste ze-esanik ez” du, egin du egin beharreko guztia. Ama, izan ere, garai hartako bertsolari eta bertsozaleentzat, baliarik baliotsuenetakoa baitzen, eta haren aipamen hutsa aski zitzaion harako hartan Uztapideri. Uztapideren “ama” hori, berriz, edozein ama da, ama arketipokoa. Bertsoa osatu egin behar izaten da, ordea, silaben moldeak aho-tsez bete. Eta zeri heldu, “ama” esanik gaiak besterik ezer esatekorik ez baldin badu? Inguruan duenari, noski, unearen liturgia areagotuz: “hauxe da gai polita”, “alboko lagunendik”, “bertsoak bota behar”... Poetika idatziaren ikuspegitik ezin esango dugu noski bikaina denik Uztapideren bertsoaren testua. Bertsoa, ordea, bere osotasunean, bikaina da: egoera

²⁵ *Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962)*. Tolosa: Auspoa, 1963, 145 or. Auspoa, 22.

hartan eta inguru-testu hartan asma zitekeen egokiena, seguru asko. Gaur egun inork ez luke horrelako bertsozik kantatuko, egoera eta inguru-testua ere ez baitira gaur egun orduko hartakoak.

1980ko txapelketako azken saioan, hamazortzi urte lehenago Uztapideri jarri ziotenaren pare-pareko gaia jarri zioten Amurizari: “aita”.

| Aita izena kanta beharrak
jarri dit bihotza bero,
aukera eder hau izango zenik
ez nuen asko espero;
preso nengoen Zamoran eta
han gelditu ia ero,
joan nintzen ta bertan nengola
aita hil zitzaidan gero,
nahiago nuke edozer baino
hemen bizirik balego²⁶.

Poetika idatziaren
bide itsua

Aita hil berria zuen Amurizak, eta seguru asko berari aski izango zitzaion aitaren aipamen soil hori, barruan zirrara sentitzeko. Hala ere, Amurizak bazekien ezin zuela bi silabon aipamen hutsez entzuleengan emoziorik eragin. Ezin zuela, alegia, bertsozik honela bukatu: “Beste ze-esanik ez da esatean `aita””. Berehala sentitzen du arketipoaren orokortasunetik zirkunstantzia historiko konkretuetara jauzi egiteko beharra. Egia esan, amaierako “nahiago nuke edozer baino/hemen bizirik balego” hori ere Uztapideren “beste ze-esanik ez da / esatian ama” haren oso parekoa da. Aldea, izan ere, Amurizaren hirugarren eta laugarren puntuetan dago. Amuriza ez zaio ari, Uztapide ari zen bezala, “aita” arketipokoari kantari, bere aita konkretu eta bakar horri baizik: Xabier Zamorako espetxean zela hil zitzaion harexi, hain zuzen. Lehen bi puntuak, hori bai, Uztapideren bidetik osatu ditu Amurizak, egoeraren elementuak erretorikoki baliatuz: “gai hau hemen ez nuen espero”.

²⁶ *Bertsolari txapelketa nagusia (Donostia, 1980-I-6)*. Tolosa: Auspoa, 1980, 97 or. Auspoa, 141.

Bigarren bertsoan, berriz, are zehatzago azaldu beharra dauka berea baino izan ez daitekeen aita horren izatea. Saileko bertsorik onena da hau, gure ustez, eta aitarena ez ezik maisuaren gradua aitortzen dio aitari, bere iragana eta txapelketako egoera bikain uztarturik:

| Aita nuen nik umoretsua,
inoiz geza ta gazia,
harek agertu zidan bidea
baitzen bertsoz ikasia;
oi, nere aita, nire egunak
ere aurrera doaz ia,
baina zugandik hartua baitut
bertsotarako grazia,
nik egingo dut arbola haundi
zuk emandako hazia.²⁷

Poetika idatziaren

bide itsua

Azken bertsoa aitari hitz eginez hasten du Amurizak, baina azken puntuan entzuleei hitz egiten die zuzen-zuzenean, haien konplizitatea bermatzeko:

| Gai hau kolpera jarriko zenik
ia ametsa dirudi;
baserri hartan izan genduen
hainbat harri eta euri;
zu, aita, zinen hain on niretzat,
ez gogorra, baizik guri;
Euskalerria nola dagoen
orain Donostin ageri,
niri jotako txalo guztiak
bidaltzen dizkizut zuri.²⁸

²⁷ Bertsolari txapelketa nagusia (Donostia, 1980-1-6). Tolosa: Auspoa, 1980, 97 or. Auspoa, 141.

²⁸ Ibidem.

Azken bertso honetan ageri da Amurizaren beste baliabide erretoriko nagusi bat: ekitaldiaren eta fikzioaren planoen nahasketa, alegia, Amurizak inor gutxik bezala darabilen baliabidea. Nori jo behar dio txalo entzuleak? Aitari? Amurizari berari? Bi-bioi? Nolanahi ere, final hartako unerik hunkigarrienetako bat izan zen hura. Testu aldetik, gure ustez, bertsoaldiko eskasena da hirugarren bertso hau. Estrategia erretorikoari dagokionez, ordea, hiruretan onena, edo eraginkorrena behintzat.

Ikusi dugun bezala, bai Uztapidek amarenean eta bai Amurizak aitarenean, elementu ber-berak darabiltzate: testua, inguru-testua, egoera. Elementuon kudeaketa, ordea, eta elementuotako bakoitzak hartzen duen garrantzia, oso bestelakoak dira Uztapide eta Amurizarengan.



1997-12-12 Bilboko Bidebarrieta liburutegian: J.Kortazar, M.Trapero, F.Munar, D.Blanco eta JR.Garzia.

Argazkia: J. Manterola / Irurria: XDZ

Poetika idatziaren

bide itsua

B | Egoeraren osagarriak

Gogoan izan behar da, ordea, aldi jakin bateko inguru-testuaren trinkotasunik eza gauza erlatiboa dela. Alegia, inguru-testurik pitzatuenean ere (90ko hamarkadakoan, esaterako), egoerak eman diezaioke saio bati bestela faltako lukeen testuinguru trinkoa. Izan ere, saiorik informalene-

tan (saio libreetan, gai-jartzailerik gabekoetan, afalosteko saioetan, edo saio tematikoetan) bertsolariak ez du izaten testu bikainen beharrik entzuleengan emozioa eragiteko, bertatik bertarako egoerak ordezkatzeko baitu inguru-testu orokorrean falta den trinkotasuna.

Gisa horretako saioetan inprobisatzen diren bertsoek asko galtzen dute hedabideetan. Hain zuzen ere, egoerari estu-estu lotutako bertsoak baitira, eta egoeraren erreferentzia hori galduta, ia grazia guztia galtzen baitute horrelako bertsoek. Alferrik saiatuko da telebista bertsolariak zirikatzen ari diren sukaldariaren irudia erakusten: saioa etxetik ikusentzuten duenarentzat aurpegi soil bat da hori, eta bertsoak, hamarretik bederatzitan, ez dio graziaz egingo. Bertsoa kantatu zeneko unean eta gunean zeuden entzuleek, aldiz, sekulako barre algarak egingo zituzten bertso hori entzunda, unean uneko eta gunean guneko bizipena medio. Bizipen partekatatu hori izan ohi dute horrelako bertsoek bere emozio bide nagusi.

Esan dezagun, bidenabar, ulertzekoa dela hedabideen joera, eskaintzen dituzten bertso gehienak jaialdietatik eta saio formaturik formalenetatik hartzekoa. Ulergarria da hori, baina bere arriskuak ditu. Jokaldirik onenak telebistaz ikusten ohitutako futbolzalea, esaterako, aspertu egingo da, seguru asko, zelaira joan eta partida bat osorik ikustean. Bertsotan ere beste hainbeste gerta liteke: irratiz edo —batez ere— telebistaz bertsozaletu den batek bertso bakoitzean kolpea beharko du, aspertuko ez bada. Afalosteko saio batean inoiz egokitzen bada, ez du horrelakorik jasoko, horrelako saioetan saioa bera baita axolakoa, eta ez bertso bakoitza.

Gai hori ere behar bezala aztertu gabe daukagu, tamalez, baina, azterketa sakonagorik ezean, zera esan liteke: horrelako saio informaletan bertso bakoitzak ozta-ozta eusten diola berbalditasunari. Hobeto esan: nahiz bertso bakoitza berbaldi izan, bertsoz gaindiko berbaldiek bestelako saioetan ez duten garrantzia hartzen dute horrelako saioetan (ikus III, 3.4).

Bestalde, egoerari dagozkion alderdiek saio informaletan duten garrantzia azpimarratu badugu, ez da bestelako saioetan alderdiok garrantzirik gabeak direlako, ez hurrik eman ere. Gorago aipatu ditugun Uztapideren eta Amurizaren bertsoak, esaterako, litekeen saio motarik formalenean inprobisatutakoak ziren, txapelketan alegia, eta, ikusi dugunez, egoerari buruzko erreferentziaz josita zeuden halere bertsook. Komunikazioaren gainerako gauza gehienak bezala, egoeraren garrantziarena ere ez da zuri edo beltzeko kontua, continuum moduko zer bat baizik.

Txapelketetan erabili izan diren irizpideei erreparatzen badiegu, bestalde, badirudi egoeraren aipamenok sormen eskasari egozten zaizkiola. “Bertsolariak harira joan behar duela” esan ohi da, egokitu zaion gaia hartu eta hura “garatu” behar duela, alegia, eta gainerako guztia “haria galtzea” dela, adarretatik ibiltzea. Zorionez, 2001eko txapelketarako landu diren irizpideetan dezente aldatu da ikusmolde hori, baina garbi geratzen da zentzueraino izan garen denok (bertso munduan buru-belarri gabiltzanok barne) poetika idatziaren morroi. Izan ere, “haria galtzea” esaten denean, “testuaren haria” esan nahi da jeneralean. Egoeraren haria, ordea, testuarena bezain zilegi zaio, gure ustez, bertsolariari, bat-bateko bertsoa, behin eta berriz esan dugunez, testu hutsa baino askoz areago baita.

Izango da, hala ere, amari buruzko Uztapideren bertsoari balio gutxiko iritziko dionik ere. Uztapidek bertso horretan “gaia garatzen” ez duela esango du halakok, eta, gaia alhora utzita, egoerari buruzko erreferentziaz osatzen duela bertsoa. Esan beharrik ez dago ez gatzela ikusmolde horrekin bat. Bat-bateko bertsogintzan berdina zilegi dira hari biak: testuarena eta testuinguruarena. Bata zein bestea hartu, kontua da entzulea hunkitzeko moduko mataza osatzea.

Uztapideren bertso hori 1962koa da, baina eztabaidak lehenean dirau. 1997ko txapelketan, esaterako, Unai Iturriagak eta Jon Maiak zer esana ugari sorrarazi zuen bertsoaldi bat egin zuten. Honako hau zuten gaia:

“Zuek bi neska zarete. Lagun minak izan zarete orain arte, baina orain iruditzen zaizue adiskidetasuna baino areago ote den zuen artekoa”.

Unai Iturriagak ekin zion bertsoaldiari, eta hasiera-hasieratik utzi zuen garbi normaltasun osoz hartu nahi zuela gaia:

| Eskolatik batera
gabiltz pausuz-pausu,
toki beretan topo
egin dugu usu.
Baina zerbait arraro
darabilgu, aizu!
Lagun gisa gehiago
neri ez eman musu,
titi-muturrak tente
jartzen dizkidazu.

Poetika idatziaren
bide itsua

Bertso hori entzunik, marmarra sortu zen entzuleen artean. Antza denez, gaia bera irrigarri gertatu zitzaion zenbait entzuleri. Gauzak horrela, Jon Maiak honako bertso hau kantatu zuen bere lehen txandan:

| Batetik muxua ta
bestetik fereka,
berotzen ari gara
gu biok uneka:
ni ez naiz harrituko
normala da eta.
Gaia esandakoan
hara zer iseka!
ez dakit zertan hasi
zareten barreka!²⁹

²⁹ *Bertsolari Txapelketa Nagusia 97*. Donostia: EHBE; Elkarlanean, 1998, 279 or.

Orotariko erreakzioak eragin zituen bertso honek. Zenbait entzuleren ustez, epaileen zigorra merezi zuen Maiaren jokabideak, ez omen ziola-ko gaiaren hariari heldu. Epaileen artean ere bazen, antza, iritzi horretakorik: Maiaren bertsoak 17,5 puntu jaso zituen, eta Iturriagarenak, aldiz, 20. Ez dago esan beharrik, baina esan egingo dugu berriro ere: guretzat balio bereko dira Iturriagaren “ateraldi” testuala eta Maiaren “ateraldi” kontestuala. Bertsoa, diogun berriro, ez da testu hutsa, eta bertsolariari ezin zaizkio debekatu bat-bateko jardunak bere-bereak dituen beste baliabide-iturriak. Gainerakoa, gure ustez, bertsoaren izatea bera ukatzea da, bertsogintza erro-errotik mugatzea.

Azken urteotan, zenbait bertsolarik (gazteenek, jeneralean), bertso-saio formatu berri batzuk sortu eta esperimentatu dituzte. Direla saio tematikoak (erotikoak, umore beltzezkoak, pasotak, rockeroak...), direla antzerki gisako “tramak”, formatu txikiko saioak izan ohi dira, hirietako pubetan eta egiten direnak. Saio horietako entzuleek, beraz, aski entzuleria homogeneous osatzen dute. Kontu berriegia da taxuzko ezer esan ahal izan dezagun, baina iruditzen zaigu gisa horretako ekimenen oinarri-oinarrian bertsolaririk gazteenen komunikazio premia bat dagoela: entzuleria zabalagoen —eta, beraz, heterogeneoagoen— aurrean nekez landu litezkeen bertso gai eta estiloak jorratu ahal izatea, alegia.

Poetika idatziaren
bide itsua

2 Teoria oralistaren gozoa eta gazia

Aurreko epigrafean genioen bezala, bertsolaritzaren ahoko izaera ahan-tzi egiten dugu maiz hari buruz ari garenean. Saiatu ere saiatu gara por-taera horren araberrako disfunkzioak zertan diren azaltzen.

Idatzizko poetikak bertsolaritza zehazten erakutsitako ezinaren aurrean, teo-ria oralista jo dute aditu batzuek hura aztertze bide bakartzat. Lan hone-tan, Homeroren lana zuzenean edo zeharka aztertu duten ikerketak hartu

ditugu "teoria oralista" horren osagarri nagusizat. Teoria oralista horren lehen oinarriak 1928. urte aldean bilatu beharko genituzke, garai hartan hasi baitzen Milman Parry Homerori buruz eginiko ikerketak argitaratzen.

Batzuk besteak baino ortodoxoagoak badira ere, teoria oralistaren jarraitzaile nagusien artekoak ditugu, besteak beste, Adam Parry, Lord, Noto-poulos, Havelook, Ong, Zumthor eta Finnegan.

Euskal Herriko ahozko literaturari buruzko ikerketei dagokienez, esan dezagun Walter J. Ongen obra dela, dudarik gabe, erreferentziarik garrantzitsuena, eragin handiena eduki duena. Behin eta berriro aipatu eta ohar-menara ekarri dituzte ikerlari gehienek haren lanak. Lehen mailako erreferentzia horren ondoan, gogoan har bedi Marcel Jousseren³⁰ eskolako antropologia-tradizio frantsesak omen handia eduki duela halaber gure artean, maisu handiaren ikasle Ives Beaupérinen ekarrien bidez bereziki.

Erraz ulertzekoa da teoria oralistak idatzizko tradizioetik datozenengan lehendabizikoz sorrarazten duen xarmaren zergatia. Bestalde, ezinbestekoa eta, aldi berean, onuragarria da aurkikunde hori, ahozkotasanaren izate eta nortasun bereziaren berri ematen digun aldetik.

Hasierako lilura horretatik harantzakoan, ordea, ahozkotasanaren teoriak gabezia nabariak ageri ditu ikerketaren alorrean, disfuntzio batzuen kariatz. Horietako batzuk aipatuko ditugu ondoko lerroetan.

Lehenik, autore batzuek adierazi bezala, ahozko eta idatzizko literatura-jardunen arteko oposizioa ez da teoria oralistak uste bezain erabatekoa:

| ... ahozko adierazmoldearen eta idatzizkoaren arteko aldeak, aintzat hartzeko modukoak izanik ere, ez dira jeneralean uste den bezain sakonak³¹.

30 JOUSSE, Marcel. *Anthropologie du geste*. Paris Gallimard, 1974-1977.

31 KIRK, Geoffrey Stephen. *Homer and Oral Tradition*. Cambridge; New York: Cambridge University Press, 1976, 69. or.

...Ahozko literaturaren eta literatura idatziaren artean ez dago muga erabatekorik, eta bata bestearengandik bereizten saiatzen dena —asko saiatu izan den moduan— berehala ohartzen da elkargainka eta nahaste ageri direla biak sarri.³²

Bat-bateko bertsolaritzaren ikerkuntzan dugun esperientziatik begiratu-ta, iritzi horren balioa berretsi baino ez dugu egingo. Ahozkoa eta idatzizkoa ez dira, oralistek uste duten bezala, elkar ukatzen duten jardunak; aitzitik, elkarren ondoan bizi dira, gizarte modernoetan bederen, etengabe elkarri eraginez bizi ere.

Ahozko eta idatzizko jardunen arteko oposizioa, zuria eta beltza bailiran, ez da batere egokia ikergaiari zehazki heldu behar zaionean. Scheunemannek adierazi bezala:

| Konstrukto teoriko horrek —ahozkotasun primarioa, kultura idatzi inprimatua, ahozkotasun sekundarioa— badu bere egituraren kutsu ia bibliko halako bat. Beldur naiz —ahozkotasun sekundarioari eskaintzen dion arreta eskasa ez aipatzearren— ez ote den hain zuzen egitura hori teoriaren ahuleziaren arrazoi nagusia.³³


Teoria oralistari oro har darion biblia-kutsu horretaz gainera, gogoan har bedi ahozko literaturaren molde askotako agerkariak ikertzeko erabili dela, eta maiz askitan ez dela agerkari horietako bakoitzaren izaera berezia gogoan hartu.

| Ahozkotasanaren eta idatzizkotasanaren kontzeptuak, zurrunez erabiltzen dira sarri, ahozkotasuna eta idatzizkotasa muturreko bi eredu ideal balira bezala, eta horrek etsipena baino ez dakarkio kontzeptuok iker-

32 FINNEGAN, Ruth. *Oral Poetry*. Cambridge: University Press, 1992, 2. or.

33 SCHEUNEMANN, Dietrich. Collecting Shells in the Age of Technological Reproduction: On Storytelling, Writing and the Film. SCHEUNEMANN, Dietrich. *Orality, Literacy and Modern Media*. Columbia: Camden Hous, 1996, 79-95 or. Aipamena 81. or.

gai jakin batean aplikatzen saiatzen denari. Garbi dago, orobat, kultur adierazmolde bakoitzari egozten zaizkion ezaugarriak eta ondorioak — dela ahozko kulturetako kontalarien jakitua, dela indibidualismoa eta nazionalismoa idatzizko pentsamoldearen ondorio gisa agertzearena— kontu orokorregiak dira sarri. Taxuzko kultura ikerketarik egingo bada, ordea, testuinguru eta guztiko ikerketak behar dira, komunikazio molde nagusiokin batera daragiten gainerako faktoreen eragina zehaztuko dituzten ikerketak.³⁴



Txapeldunen arteko aholkuak Argazkia: J. Gallego / Iturria: Ikastolen Elkartea

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

2.1 Ahozkotasuna literatura idatzian

Milman Parryren tesiak ezagutarazi baino lehenagoko urteetan, ahozko eta idatzizko literatura-jardunen arteko harreman gatazkatsuen gaiari heldu zioten autore batzuek. Bitxia bada ere, idatzizko literaturatik — zehazkiago, eleberraren mundutik— egin ziren ekarpenik interesgarrie-

³⁴ Ibidem, 79. or.

nak. Izan ere, XX. mendeko lehen urte haietan, kinka larrian zegoen nobela, mende haren hasieran bizi ziren gertaera historiko lazgarriak eta gizarte aldaketa handiak zirela medio, alde batetik, eta errealtatea aurkezten berebiziko azkartasuna erakusten ari zen bitarteko berri baten — alegia, zinemaren— erronkari aurre egin behar ziolako, bestetik. Praktika-remuan, gutxi bezala erakutsiko zuen Alfred Döblinek krisi hura:

Döblinek, berriz, argi eta garbi adierazia zuen bere ustez usadiozko nobelaren garaia joana zela betiko, nor banakoaren itxaropen eta etsipenenak (beharbada nobela bat idazteko ahaleginetan ari zen norbanakoarenak, edota mendi magikoren batera erretiratutakoren batenak) ez zirela aurrerantzean ezein nobelarako gai. Hiri giroko hainbat eta hainbat giza-kiren bizipenak jasoko baziren, beste idazkera bat beharko zen, behar bada are beste genero bat.³⁵

Kurioski, XX. mende hasierako errealtate berriari egoki helduko zion narrazio-moldearen bila zebilela, halako kidetasunak aurkitu zituen nobelak elkarren artean itxuraz antzik ez zuten bi muturreko jardunen artean, hau da, Homeroren epikaren eta zinema-teknikaren artean:

Ez da kasualitatea Döblinek epika moderno baten beharra aldarrikatu izana, ez eta bere Berlin, Alexanderplatz obra epikotzat jo izana ere. Gauza asko nahasten dira hor aldi berean: herri-kontalaritzaren aipamena, Döblinen idazkeran ahozkotasunak zuen garrantzia, obrak egituratzeko Döblinen bide parataktiko episodikoa. Bere obra egituratzeko moduari dagokionez, Homeroren eredua aipatzen du aurren-aurrenik. Bide horren lehen arrastoa, ordea, zinemak emana zion.³⁶

XX. mende hasierako nobelaren inguruko gogoetaren gorputz teorikoari dagokionez, Walter Benjaminek egin ditu ekarri interesgarrienak. Hain

³⁵ Ibidem, 88. or.

³⁶ Ibidem.

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

zuzen ere, ez zion halabeharrez Walter Benjaminek Döblinen *Berlin, Alexanderplatz* eleberraren bigarren argitaraldiari aitzin-solas labur baina guztiz interesgarria egin 1930an (hau da, Milman Parryren tesiak ezagutzen hasi ziren garai bertsuan). Halaz ere, 1913rako aurkeztuak zituen Walter Benjaminek “zinema-estiloa” eta “muntaia” kontzeptuak, bere literatura-teoriaren osagarri gisa. Eta, esate baterako, aurrez landuriko osagaien antolakuntza parataktikotzat hartu zuen muntaia.

Aldi berean, *skaz* kontzeptua erabili zuen lehen aldikoz Boris Eikhenbaum formalista kritikoak, 1919an Gogoli buruz argitaratu zuen artikulu batean. Honela definitu zuen Eickenbaumek *skaz*, ondoko artikulu batean:

| *Skaz* diodanean, zera esan nahi dut nik: hiztegia, syntaxian eta hizketaren erritmoak hautatzerakoan egilearen ahozko hizkerarekiko joera islatzen duen prosa narratiboa.³⁷

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

Zoritzarrez, ahozko eta idatzizko jardunen arteko erlazioa ulertzeko modu honi ez zaio gure artean teoria oralistaren arabera kontzeptu formulazioz ez horren zehatzei eta ikerketan ez horren baliotsuei bezalako harrera egin.

Liburu honen aztergaia bat-bateko bertsolaritza bada ere, ez guke ego-kiera hau besterik gabe igarotzen utzi nahi, Benjamin, Eickenbaum eta besteren ikerketak ezinbestekoak iruditzen baitzaizkigu bat-bateko jardunetatik kanpoko bertsolaritza idatzia, hots, gure bertso paperen mundu berezia aztertzerakoan.

Zentzurik ez luke izango honako edo harako autoreengan ustez ahozkoa den arren idatziz lantzen den genero hau zertan datzan ezagutzeko eta zehazki definitzeko gako guztiak aurkitu nahi izatea, baina barne egitu-

³⁷ FRANCE, Rose. The speaking author: *skaz* in Mikhail Zoshchenko's Sentimental Tales. SCHEU-NEMANN, Dietrich. *Orality, Literacy and Modern Media*. Columbia: Camden Hous, 1996, 62-78 or. Aipamena 62. or.

raz ahozko izaera duten idatzizko lan motei buruz gai horretaz idatzi dena ezagutu gabe idaztea denbora alferrik galtzeko era bat baizik ez da, beste asko bezalako, bestek aspaldian aurkitutakoa berraurkitzea baino ez baitugu lortuko horrela jokaturik.

2.2 Literatura ahozkotasunean

Aurreko epigrafean ikusi dugun bezala, ahozkotasunaren teoriaren izaera murriztaileak galarazi egiten digu ahozko jardunak idatzizko generoetan duen eragina ikustea. Askoz interesgarriagoa azaltzen zaigu, horratik, txanponaren beste aldea.

Izan ere, ahozkotasunaren teoriak, Notopoulos eta Ongen formulazio kanonikoen arabera behinik behin, guztiz bereizten dute ahozko eta idatzizko jarduerak eta lan-moldeak.

Ongek, adibidez, deblauki adierazten du, jatorrian duten ahozko gogoe-ta edo pentsamenduaren arabera, ahozko mintzamoldeak honelakoak izango direla ezinbestean:

- Metakorrak, hierarkizatuak baino areago.
- Metakorrak, analitikoak baino areago.
- Erredundanteak edo joriak.
- Kontserbadoreak eta tradizionalistak.
- Giza mundu bizitik hurbilak.
- Agonia kutsua dutenak.
- Enpatikoak eta parte harrarazleak, objektiboki bereziak baino areago.
- Homeostatikoak.
- Egoera jakin batean txertatuak, abstraktuak baino areago.

Guk bere garaian egin bezala, baten bat saiatuko balitz bederlatzi ezau-garri horiek bertsolaritzan betetzen diren ikusten edo frogatzen, ez du ahaleginean luze iraungo: oztopo izango du, izan ere, G.S. Kirkek Home-

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

rori heldu eta bide erdian traban topatu zuen behaztopa harri berbera:

| ... ahozko epikak ere badaki, Homeroren berdin gabeko mailakoa denean behintzat, ustez poesia idatziari soilik dagozkion bitxi bikainak ematen³⁸.

Halatan, aurreko epigrafean ahozko estrategia batzuek testu idatzietan duten garrantziarekin topo egin dugun bezala, oraingo honetan ahozko testuek idatzizko poesiaren antze bertsua erakuts dezaketela ikusten dugu.

Bistan denez, honek ez du esan nahi ahozko literaturaren helburu nagusia antze horretara iristea denik, ezta berez hori duenik ere xede. Zera esan nahi du, aurrez inoiz ezin bazter genezakeela ahozko testuetan halako dotoretasun poetikoa aurkituko dugun aukera, teoria oralistak ustez ukatzen duen aukera, hain zuzen ere.

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

Ahozko literaturan aplikatzen denean, Notopoulosek salatu zuen bezala, harako Prokustoren ohearen antzekoa gertatzen zaigu idatzizko poetika, eta oso gutxitan baino ez da ahozko literatura hartara egokitzen. Beste muturrean, ohe txikiagia gertatzen da teoria oralista, estu-estu aplikatzen denean. Horixe dugu, Rainer Friedrichen iritzi, teoria oralista Homeroren lanetan aplikatu osteko ondorioa:

| Gogora dezagun, beraz, harako Prokusto hark bi ohe zituela, ez bat. Ahozko poetika ere ez ote da, Homeroren epikari aplikatzen zaionean, Prokustoren ohe txikiaren tankerakoa?

Gure ustez, beste hainbestekoa gertatzen da, arrazoiak arrazoi, teoria oralista bertsolaritzaren ikerketarako tresna bakar gisa erabili nahi denean. Horixe da, behinik behin, egungo bat-bateko bertsolaritzaren kasuan jazotzen dena.

³⁸ KIRK, Geoffrey Stephen. *Homer and Oral Tradition*. Cambridge; New York: Cambridge University Press, 1976, 69. or.

Ezin aztertuko dugu lan honetan zer neurritan betetzen den bertsolaritzan Ongek ahozko jardunari erantsitako ezaugarrietako bakoitza. Diogun nolana ere, teoria oralistak, muturrera eramanez gero, bat-bateko bertsolaritzaren ikuspegi murriztailea eskainiko ligukeela. Murrizte horren alderdi nabarmenenak ikus ditzagun ondoren.

A | *Formulak egungo bertsolaritzan*

Egungo bertsolaritza ez da dagoeneko “metakorra, analitikoa baino areago”. Ongen aburuz, formula bidezko jardunbidean oinarritzen da ahozko testuen produkzioa, eta horregatik dugu ahozko mintzamoldea metakorra ez analitikoa. Hau da, teoria oralistari jarraiki, ahozko poetak unitate aurrefabrikatuek lantzen ditu bere lanak. Parryk urraturiko bidetik segitu du Ongek eta, hark bezala, “formula” deitu dio unitate prefabrikatu horietako bakoitzari. Honela definitu zuen Parryk formula:

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

| Baldintza metriko jakin batzuetan funtsezko ideia jakin bat adierazteko sistematikoki erabiltzen den hitz multzoa.³⁹

Ukaezina da: bertsolariak aurrez landuriko unitateak erabiltzen ditu bat-bateko jardunean, bideratu beharreko molde metrikoetan egokiera izan dezaten propio lantzen baititu unitateok. Hala adierazi du, besteak beste, Jon Sarasuak, “formula” hitz horren ordez kontzeptu metaforikoago bat, “adabakia”, erabiltzen duen arren. Nolanahi ere, egungo bertsolariak ez du formula-errepertorio itxi bat erabiltzen, ezinezkoa bailitzateke horrelako zerbait kontuan hartzen badugu landu beharreko gaien zerrenda beti zabalik dagoela. Izan ere, honako kasu hauetan baino ez da errepertorioko formulen erabilera nabarmentzen:

- komunikazio-egoera arketipokoa denean: agur bertsoak, hiletak, eta

³⁹ PARRY, Milman. *Studies in the Epic: Technique of Oral Verse-Making II. The Homeric Language as the Language of Oral Poetry*. HSCP. 1932, 43. zenb., 31. or.

abar, edo

- landu beharreko gaia edo papera arketipokoa denean.

II. ataleko 2. epigrafean ikusi dugun bezala, urrun daude arketipoetatik bertsolariek egun landu behar dituzten gaiak edo paperak.

Bertsolariaren funtsezko osagaia ez da formulen errepertorioa, formula berriak etengabe sortzeko gaitasuna baizik, hau da, edozein eduki mental, izan daitekeen berriena edo bihurriena izanik ere, eskema metriko erabilien barruan —5-5/8 eta 7/6 silabako egiturak dira une honetan horiek— egokitzeko gaitasuna. Inprobisazioaren, bat-bateko jardunaren, aurretik egin daiteke egokitze lan horren alde bat baina, III. atalean agerian utzi den bezala, inprobisazioaren bidez osatzen da bertsoaren egokitze lanaren alde handiena.

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

Halakotzat harturik, bertsolaritzaren formula-izaerak inolaz ere ez du analisirako gaitasuna oztopatzen, baizik eta haren bitarteko bilakatzen da. Izan ere, bat-bateko bertsolariaren arteak formulatarako trebetasun bikoi-tza du oinarri nagusizat. Gauza izan behar du, alde batetik, jardunean diharduela formula osoak bezain egokiak inprobisatzen, eta dotore erakutsi behar du, bestetik, aurrez landuriko formulen kudeatzaile ona dela.

Bat-bateko jardunean geroago erabiliko dituen formulak aurrez eta taxuz lantzen dituzte egungo bertsolariek, horra lehen garaietako bertsolarien aldean dituzten berezitasunetako bat. Berria da, era berean, egungo bertsolariak aurrez-edo landuriko formula horiei erantsi ohi dien balio erretorikoa.

Beste hainbat kontuan bezala, paradigmaticoa da bertsolaritzaren alderdi honetan ere Xabier Amurizaren kasua. Ohiko egoera edo balio topikoen adierazpenean lagunduko dioten baliabide tekniko huts gisa erabiltzetik urrun, karga poetiko-erretoriko handiz hornitzen ditu formulak Amurizak; horrenbestez, handia da formulen komunikazio-garrantzia

haren bertsoetan, eta haietaz baliatzen da topiko edo arketipotzat inolaz ere har ezin litezkeen ideiak eta edukiak indartzeko.

Bakar-lanean, saioa bete-bete haren eskutan dagoenean, nabarmen-tzen da bereziki Amurizaren ezaugarri hau. 1980ko txapelketako finalean, “Bihotzean min du” gaia egokitu ziotenean, hiru bertso kantatu zituen bat-batean Amurizak. Bertsoaldi hartako lehenengo bi bertsoak ekarriko ditugu lerro hauetara. Ikusi dugu dagoeneko, bertso bukaerarako uzten duela bertsolariak bere estrategia erretorikoaren gako nagusia, gogora etorri zaion arrazoi sendoena. Hor, bertsoaren bukaeran, egokitu zituen Amurizak bere formulak, adierazkortasunez beteak. Entzuleari zuzenean egiten zaion deia da sarritan formula.

| Sentimentua sartu zitzaidan
bihotzeraino umetan,
geroztik hainbat gauza mingarri
ikusi mundu honetan.
Euskalerriaz batera nago
bihotz barneko penetan;
anaiak alkar hartu ezinik,
etsaiak su eta ketan,
esan dudana qezurra bada
urka nazazue bertan. (bis)

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

Arestian esandakoaren indartze hunkibera da beste batzuetan:

| Sentimentua nola dugun guk
 haize hotzeko orbela,
 mingainetikan bihotz barnera
 doa herriko kordela;
 esperantza dut zerbait hoberik
 bearbada datorrela,
 mundu hontara sortu zen bati
 bizitzea ere zor dela;
bihur bekizkit hesteak harri
hori ez bada horrela (bis)⁴⁰.

Garbi dago txapelketa aurretik prestatu ahal izango zituela Amurizak bi bertso-bukaera hauek. Hain zuzen ere, kutsu epiko-tragikoa dukeen edozein gaitan erabil daitezke, haien funtzioa ez baita gaia garatzea, baizik eta aurrez esandakoa indartzea. Amurizaren puntu ahula ez baina haren bertute handiena da hori, agian. Hain zuzen ere, estrategia erretorikoen erabilera ohartua erakusten digu, besteak beste, honek guztiak. Hala jokatzera, ahozko jardunak duen baliabide petoenetako bat hartu eta, ongi zukatu eta gero, adierazpen-premia berrietara egokitzen du Amurizak. Bestalde, lekutze esanguratsu baten aurrean kokatzen gaitu formulen erabilera erretoriko honek: bertsoaren diskurtsoaren egiazko bukaera azkenaurreko puntuan azaldu da, formula jabetu baita azkeneko puntuaz.

Andoni Egañaren honako bertso hau dugu formulen erabilera modernoren beste adibide bat; gaia askoz ere jostakinagoa eta arruntagoa zen, garai berriko ariketa horietako batean inprobisatua. Kasu honetan, banan-banan asmatu behar zuen Egañak nolakoa izan zen saio hartan berekin kantuan ari ziren bertsolari bakoitzaren haurtzaroa. Haien artean zegoen Mañukorta, mutilzahar maltzurren arketipoko bertsolaria, eskolan behintzat ikasi ez zuen berezko graziaren jabe dena:

⁴⁰ *Bertsolari txapelketa nagusia (Donostia, 1980-1-6)*. Tolosa: Auspoa, 1980, 36. or. Auspoa, 141.

| Mañu eskolan ikusten det nik
 sarri ezin erantzunda:
eme ta **a, ma**; **eme** ta **i, mi**;
 letzen ikasi nahi zun-da.
Eme ta **i, mi**; **eme** ta **o, mo**;
 arrotz zitzaion burrunda;
mu bakarrikan ikasi zuen
 etxeko behiei entzunda⁴¹.

Bistan dago, bertso hau inprobisatu ahal izateko, letren izenak landu beharko zituela aurrez Andoni Egañak, probatu eta bost silabako multzotan egokituz. Inolako oztoporik gabe onartuko dugu bertso mota hauen formula-izaera, molde berriko formula hauen mamia eta lantzeko era eta teoria oralistaren arabeko formulenak zeharo desberdinak direla aitortuz gero. Begien bistan dagoena baino ez aipatzearen, aztertu dugun bertsoak agerian uzten du, inolako zalantzarik gabe, egilearen gaitasun analitikoak.

B | *Esperimentazio intelektual*

Esperimentazio intelektualerako gaitasuna ukatzen dio Ongek ahozko mintzabideari. Horrexegatik dio ahozko adierazpenak kontserbadoreak eta tradizionalistak direla. Bada, liburu honen lehen ataletan —eta adibidetzat erakutsitako bertso batzuetan— ikusi ahal izan den bezala, esperimentazio intelektual da egungo bertsolaritzaren giltzarrietako bat.

Egungo bertsolarien esperimentazio intelektualerako joeraren nahi beste adibide eskaintzen dizkigu azken hogeitun urte honetako bat-bateko bertsolaritzaren korpusak. Hona hemen adibide bat, esandakoaren frogagarri.

Platon bihurtu da Egaña, gai-jartzailak hala nahita. Sarasua da haren ikaslea; hamalau urte ditu, eta maisuari galdetzea baizik ez du zilegi.

⁴¹ *Bapatean 97*. Donostia: EHBE, 1998, 101. or.

Koplatan, hau da, bi puntuko bertsotan, ari behar dute saioan. 10/8 silaba da koplaren neurria; koplaren nagusiak dira, beraz. Eztabaida luzee-gia izan zenez, ez ditugu koplaren guztiak hona ekarriko. Gutxi batzuk bereizi ditugu, eztabaidari bukaera eman zioten biak barne:

| *Sarasua*: Beste zalantzak ere baditut,
eman zaidazu laguntza;
pentsatzen nago gaur maitasuna
ez ote dugun hitz hutsa.

Egaña: Ai, ikaslea, gaztea baina
bide onean zaude zu,
maitasun pixkat badadukazu
duda egiten baduzu.

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

Sarasua: Aspaldi hontan buelta ta buelta
ia ez det hartu lorik,
ta erantzunik ez det aurkitzen:
ba ote dago Jainkorik?

Egaña: Zuk botatako galdera hori
ez da hutsaren hurrena,
Jainko asko da, garrantzitsuna
nor berangan dagoena.

Sarasua: Baina bizitzak zentzu gutxi du,
gero eta gutxiago,
ni neuz aparte beste Jainkorik
inon ere ez badago.

Egaña: Aspaldi baten galdera entzun nun,
aho dotore batetik,
ia bizitzak existitzen dun
heriotzaren aurretik.

Sarasua: Ondorio bat aterea det,
Platon maitea, adizu:
zuk hitz gehiago dakizu baina
nik bezain gutxi dakizu.

Egaña: Ni erdi tonto bilakatu nau
ondo erantzun ezinak,
ta zu jakintsu bihurtu zaitu
duda eta jakinminak⁴².

C | Urruntzea

Ahozko mintzamoldeak “objektiboki bereziak” ezin direla izan edo berez “homeostatikoak” direla esatea mintzamolde horien urruntzeko gaitasun oro ukatzea da. Halaz ere, urruntzerik gabe ez dago norberaren estilorik, are ezta literaturarik ere. Alabaina, urruntzea da, hain zuzen ere, egungo bat-bateko bertsolaritzaren ezaugarri nagusia.

Teoria oralistaren
gozoa eta gazia

Txapela lehenengoz irabaziko zuen lehiaketan, seme bakarra, urte gutxi-ko haurra, eri hil berri zaion aitaren papera jokatu behar izan zuen Egaña. Haur hilaren amari ez bezala (Jon Enbeitak jokatu zuen paper hura eztabaida hartan, eta kontsolamendua aurkitu zuen bere fede porrokaezinean), era guztietako dudak jabetu ziren aitaz (Egañaz):

| Bizitzaren merkatua...
nago neka-nekatua;
ez zen handia, inola ere,
haurran pekatua.
Zein puta degun patua:
gure ume sagratua...
lotan al zeunden, ene Jaungoiko
madarikatua?⁴³

⁴² *Bapatean 98*. Donostia: EHBE, 1999, 118. or.

⁴³ *Bertsolari Txapelketa Nagusia 1993*. Donostia: EHBE; Elkar, 1994, 223. or.

Bertso horretaz ekin zion eztabaidari. Eta beste hau izan zen Egañaren hirugarrena eta azkena:

| Sinimentsu dago ama,
haurra lurpean etzana;
nola arraio kendu digute
hain haurtxo otsana?
Hossana eta hossana,
hainbat alditan esana!
Damu bat daukat: garai batean
fededun izana!⁴⁴

Hainbatek pentsa lezake erlijio-gaietako urruntze hori gizartean oro har bizi den giro laxoaren ondorio baino ez dela. Baina bertsolaritza bera ere ez da orain ez hainbeste urte pentsatu ere ezin ziren juzkuetatik libro. Hona hemen Sarasuak eta Egañak 1992an, Arantzako herri nafarrean eginiko afari batean, bota zituzten bi bertso. Egaña bertsotan segitzearen alde zegoen, entzuleak gelditzeko esan arte. Sarasuak, berriz, lehenbait lehen bukatu nahi zuen saioa. Sarasuak kantatu zuen lehenik:

| Honek jarraitu egin nahi luke
ene, hau da martingala!
Aitortzen dizut azken-aurreko
nere bertsoa dedala.
Ta honek berriz eman nahi luke
oraindik joku zabala,
hau begiratzuz gaur erizten dut
lehen beldur nintzen bezala,
bertsolaria ta prostituta
antzerakoak dirala!⁴⁵

⁴⁴ Ibidem.

⁴⁵ *Bapatean 92*. Donostia: EHBE, 1993, 216 or.

Sarasuaren aldetik dator
ez dakit zenbat atake,
errez salduko naizela eta
hor ari zaigu jo ta ke;
lantegi honek berekin dauka
hainbat izerdi ta neke,
bertsolariek ta prostitutek
sufritzen dakite fuerte,
baina gustora dauden uean
gozatu egiten dute.⁴⁶

1994an, Aretxabaletan, honako bertso hau kantatu zuen Egañak Luis Ocañaren heriotzari buruz (bere buruaz beste egin zuen, itxura guztien arabera). Bost puntutik gorako bertsoen konplexutasun estrategikoaren adibide ona da halaber bertso hau:

| Geure buruen txontxongillo ta
sarri besteren titere,
ustez antuxun ginanak ere
bihurtzen gara titare;
Luis Ocaña hor joana zaigu
isilik bezin suabe:
pistola bat parez pare,
zigilurik jarri gabe,
ez lore ta ez aldare;
baina inortxo ez asalatu,
egin zazute mesede,
askatasunak mugarik ez du
heriotz orduan ere.⁴⁷

⁴⁶ Ibidem.

⁴⁷ *Bapatean 94*. Donostia: EHBE, 1995, 216. or.

Alferrekoa litzateke adibidetan gehiago luzatzea. Diogun, bukatu aurretik, teoria oralistak mintzabide idatziaren jabetza eskusibotzat duen arren, urruntzea dela bat-bateko bertsolaritzaren ezaugarri nagusia, 1980. urteen hasieratik egiten den bertsolaritza moldeari erreparatuz gero argi eta garbi ikus daitekeen bezala. Bertsolaria urrundu egiten da ordu arte ukitu ezin ziren balioetatik (inguru-testuko balioetatik), baina ez hori bakarrik, kantatzen ari deneko uneari eta guneari dagozkion elementuekiko ere bere distantzia hartzen du sarri bertsolariak, Iturriagak eta Maiak lagun lesbianen gaia landuz eginiko saioan ikusi dugun bezala.

D | Performance-a

Teoria oralistaren ekarri balioetsuenetako bat da, zalantzarik gabe, *performance* kontzeptuari aitortzen dion zentraltasuna. Folklore-aditu amerikarrak (Abrahams, Dundes, Lomax...) hasi ziren kontzeptu hau erabiltzen. Paul Zumthorrek eskaini zuen, beharbada, alderdi honen azalpen egokiena:

| ... ahozko poesiaren osagarri eta aldi berean osagai nagusitzat har daiteke *performance* delakoa. Bera da gainerako guztiaren berme nagusia, eta gainerako osagarri formalak zehazten ditu, halako eran non osagarri horiek bera gabe osagai birtual batzuk baino ez baitira... Ahozko poesia arautzen duten konbentzioek eta legeek beren baitan hartzen dituzte, testuaren alde batetik bestera, haren egokiera, haren publikoak, poema-emailea eta epe laburrean erdietsi nahi den xedea.⁴⁸

Aipatu berri dugun azalpenari sarrera egiterakoan, auhen-kantari afrikarren adibidea ekarri zuen gogora Zumthorrek, ez baitira, antza denez, beren poemak egiazko hiletetatik kanpo errepikatze gaitzak.

Zumthorrek definitzen duen bezala, *performance* delakoa ahozko poesia

⁴⁸ ZUMTHOR, Paul. *Introducción a la poesía oral*. Madrid: Taurus, 1991 [1983], 55. or.

ororen “osagai nagusia” bada, arrazoi handiagoz izango da bertsolaritzarena, ahozkoa ez ezik bat-batean inprobisatua ere badelako. Zumthorren terminologia erabilia, esan dezagun bertsolaritza, inprobisatua delarik, ahozko poesiaren beste ezein agerraldi baino “zirkunstantzialagoa” dela. Uneari eta guneari atxikiagoa, alegia.

Halatan, kontzeptuak berak baino areago axola digu hemen komunikazio-ekintzaren zentraltasunak eta haren osagai guztiak, testua barne, performancearekiko osagai birtualak baino ez direla gogoan hartzeak.

3 Marko teoriko berri bat bat-bateko bertsolaritzarentzat

3.1 Bat-bateko bertsolaritza erretorika-genero gisa

Orain arte azaldu dugunaren harian, garbi dago bat-bateko bertsolaritza dela genero bat:

- ahozkoa
- kantatua
- inprobisatua
- ez bereziki literarioa (entzuleen artean halako emozioak sorraraztea du helburu), baina literaturatik hurbil dagoena (literatura-azterketari eusten dioten testuak sortzeko gai da).

Azken ezaugarri honek hurbilago ezartzen du bertsolaritza erretorikatik literaturatik baino. Izan ere, honela definitu zuen Aristotelesen erretorika:

| ... egoera bakoitzean persuasioa gauzatzeko behar den guztia antolatze-ko jardunbidea.⁴⁹

⁴⁹ ARISTOTELES. *Retórica I*. 1971, 2, 1355 b/25-26. Era berean, Platon, *Gorgiasen*, (*Gorgias*, 453 a, in PLATON 1972, 361 or.): “Eta gaizki ulertu ez badut, erretorika erakarriaren eragilea dela eta haren jarduera guztia xede horri begira bideratzen duela diozu”.

Bi mila urtetik goiti igaro dira Aristotelesek erretorikaren definizioa plazaratu zuenetik, eta irakurle modernoari bitxi egingo zaio beharbada erretorikaren eta persuasioaren arteko identifikazio hori, kontuan harturik, besteak beste, bi hitz horien esanahia nabarmen aldatu dela ordutik hona. “Erretorika”, izenlagun gisa erabiltzen denean batez ere (hortxe dugu, bestalde, 'erretorika' hitza), “hitz-jario hutsal engainagarriaren” sinonimo bihurtu zaigu. “Persuasioa”, bestalde, batez ere publizitate eta propagandaren eremuetan erabiltzen den kontzeptua da.

George A. Kennedy erretorika klasikoa erakartzearen arte gisa ikertu duen aditu garrantzitsua da agian eta erretorikaren definizio deskribatzailea goa eskaini zigun, Aristotelesena baino, gogoan eduki beharrekoa betiere:

| Erretorika, grekeraz, jendaurreko hizketa adierazteko erabiltzen zen; alegia, deliberazio biltzarretan, auzitegietan eta Greziako hiri konstituzionaletan —batez ere Atenasen— horretarako propio araututako beste egokiera batzuetan erabiltzen zen artea. Alde horretatik, beste kontzeptu zabalago baten adarretan bat baino ez zen erretorika, hots, hitzaren ahalaren, hitza erabiltzen zen egoeran hitzaren bidez eragiteko artearen adarretako bat.⁵⁰

Jakina den bezala, hiru erretorika-genero bereizten dira, kasu bakoitzean lortu nahi den helburuaren eta bideratu behar den persuasio motaren arabera: judiziala, deliberatiboa eta epidiktikoa. Judiziala eta deliberatiboa praktikoa ziren guztiz, eta genero horretan bilatzen zen persuasio mota bat dator hitz horrek hizketa arruntean duen adierarekin. Entzuleak hizlariaren tesietara lerraraztea eta horren arabera jokatzeko zen bi generootako hitzaldien xedea; iraganeko gaien gaineko kontuak ebazten ziren genero judizialean, eta etorkizunekoak deliberatiboan.

Genero epidiktikoan, aldiz, bestelako zentzua zuen erakartze horrek:

⁵⁰ KENNEDY, George Alexander. *A new history of classical Rhetoric*. Princeton ; New Jersey: Princeton University Press, 1994, 3. or.

| Erretorika epidiktikoa ulertu nahi bada, onena da kontsideratzea epidiktikoa dela entzuleriaren jokabidean eragiteko xede zuzenik ez duen genero erretorikoa, entzuleriaren balioetan eta usteetan eragitea beste xederik ez duen generoa, alegia.⁵¹

Bertsolariaren helburu nagusia entzuleen artean “emozioak sorraraztea” dela adierazi dugu arestian. Ez da behar bada formulazio egokiena, baina aski bitez Jon Sarasuaren hitz hauek entzuleen artean “emozioak sorraraztea” eta haien “balio eta sinesteetan eragina izatea” txanpon bereko bi aldeak direla frogatzeko:

| Berez hori duk... nondik hasten haizen, gero nola harritzen dituan entzuleak, nola pertzibitzen duan haien mundua, nola eragiten dioan haien munduari...⁵²

Eta bat-bateko bertsolaritza erretorikaren genero epidiktikoaren barneko agerraldizat hartzeko egokitasunaren aurrean zalantzarik geratuko litzatekeen kasuan, hona hemen XX. mendearen erdialdean erretorikaren indar-berritzaile nagusia izan zen Chaïm Perelmanek genero horretaz egin zuen deskripzioa:

| Dela herriren baten biztanleen aurrean egindako laudoriozko jarduna, dela gaurkotatun gabeko gairen baten gainekoa —jainkoren baten gorespina, esaterako—, entzuleek ez zuten, adituek diotenez, ikusle hutsarena beste egitekorik izaten. Hizlariari adi egon eta gero, txaloa jo eta alde, hori baino ez zegokien. Gisa honetako hitzaldiak, bestalde, herriko festen egitarauaren barruan joan ohi ziren, jendearen erakargarri, eta zuten ondoriorik aipagarriena hizlarien sona areagotzea zen.⁵³

⁵¹ Ibidem, 4. or.

⁵² GARZIA, Joxerra. *Jon Sarasua bertso-ispiluan barrena*. Irun: Alberdania, 1998, 61. or.

⁵³ PERELMAN, Chaïm y OLBRECHTS-TYTECA, L. *Traité de l'argumentation: La nouvelle rhétorique*. Bruxelles: Editions de l'Institut de Sociologie, 1976 [1958], 63. or. Editions de l'Université de Bruxelles.

Ukaezina da bat-bateko bertsolaritza askoz hobeago egokitzen dela, xedez eta izatez, genero honen deskripzioan beste ezein literatura-generotan baino, ahozko nahiz idatzizko.

Erretorikaren genero epidiktikoa bat-bateko bertsolaritzari Prokastoren ohea laburregi gertatuko ote zaion egiaztatu beharra dago hurren. Hau da, argi frogatu behar dugu bertsolaritza erretorikaren eremuan ezarri ondoan, ez ote garen geratuko bertsolariak kasu batzuetan iristen duen bikaintasun literarioari erreparatzeko ezinduak. Halaz ere, bertsolaritza erretorika-genero gisa aztertuta, ez dugu deblauki haren literatura-izaera baztertuko, literatura-izaera hori haren berezko xedea ez bada ere. Perelmanek adierazi bezala:

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

Genero epidiktikoa da arte literarioaren baliabide guztiak aktibatzen dituen bakarra, entzuleriarekiko atxikimendua lortzea izaki xede nagusia. Genero honek, gainerakoek ez bezala, badu literaturaren antzik, eta hauxe da, erretorikaren generoetan, kantata baten libretoarekin aldera daitekeen bakarra. Baita deklamazio hutsa bilakatzeko arriskurik handiena duena ere: erretorika hutsa bilakatzekoa, alegia, hitzaren adierarik ohikoen eta makurrenean.⁵⁴

Honenbestez, esan dezakegu, beraz, erretorika eta, zehazkiago, haren genero epidiktikoa dela, geure ustez, bat-bateko bertsolaritzaren berezko esparrua, bat-bateko bertsolariaren artea taxuz eta ganoraz ulertzeko marko teorikorik egokiena. Halarik ere, bertsolaritza ez da mekanikoki erretorika-genero horren adartzat hartu behar, beharrezkoa baita doktrina teorikoa bat-bateko bertsolaritzaren bereizgarrietara egokitzea, beste jarduera erretoriko epidiktiko batzuk ez bezala, bat-batekoan inprobisatzen den genero kantatua baita.

Halatan, epigrafe honen hasieran bat-bateko bertsolaritzaz eginiko defi-

⁵⁴ Ibidem, 67. or.

nizioa finago zehaztu ahal izango dugu, **bertsolaritza ahozko erretorika-genero epidiktikoa, kantatua eta inprobisatua** dela esanez.

3.2 Bertsolaritza eta erretorikaren bost kanonak

Erretorika klasikoa, gorputz teoriko osoa baino, garai hartako hizlarien tekniken eta jardunbideen deskripzio kritikoa bezain xehea da. Adierazi berri dugun bezala, ez da gure asmoa teknika eta jardunbide horiek mekanikoki bat-bateko bertsolaritzaren interpretazio-lagun bihurtzea. Aldiz, geure deskripzio kritikoa egin nahi dugu egungo bertsolarien eginak zuzenean aztertuta. Puntu honetan eskaintzen digu erretorika klasikoak metodologia aberats eraginkor bat, eragin izugarria izan duena. Halaz ere:

Aditu gehienen ustez, erretorika ikertzea erretorikaren bost kanonak ikertzea da, azken batean... Izan ere, kanon horiek egitura bat osatzen dute, zeinari esker hizlariak eta erretorikaren teorikoek sistema erretoriko osoaren osagarriak zein bere aldetik, bereiz , azter ditzaketen.⁵⁵

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

Erretorikaren bost kanon hauei (alde, gaitasun, funtzio, kategoria edo zati deitzen zaie halaber), latinezko izenez deitzen zaie eskuarki.

- *Inventio*. Argudio egokien bilaketa eta sorrera.
- *Dispositio*. Argudioen antolakuntza ordena egoki baten arabera. Hitzaldiaren egituratzea.
- *Elocutio*. Argudioen formulazio egokia.
- *Memoria*. Argudioak, egokiro antolatuak eta formulatuak, gogoan edukitzea. (Hitzaldiak idatziz prestatzen ziren eta buruz ikasten, aurkeztu aurretik).
- *Actio / Pronuntiatio*. Hitzaldia bururatzea, gauzatzea.

⁵⁵ REYNOLDS, J.F. Memory Issues in Composition Studies. *Rhetorical memory and delivery. Classical Concepts for Contemporary Composition and Communication*. London: Lawrence Erlbaum Associates, 1993, 2. or.

Lehen mailako azterketa-eredua osatzen dute erretorika klasikoaren bost kanon hauek, eta indarrean iraun dute egun arte:

| Erretorika klasikoan, hizlariak bere hitzaldia prestatzerakoan egiten dituen urratsen zerrenda gisa ulertzen ziren kanonak. Gaur egungo erretorikan, aldiz, diskurtsogintzan etengabe, sinergia bidez eta elkarri eraginez diharduten alderdiak dira kanonak.⁵⁶

Bertsolaritzan izango duten aplikazioari begira, interesgarriagoa da erretorika-kanonak antzinatean ulertzen ziren bezala ulertzea, bertsolariek diskurtso-atalak ontzen ari direnean, hau da, bertsotan ari direnean, egiten duten bideari segitzeko eta jarduera horrek beste generoetako sorrera-jardueren aldean dituen berezitasunak zehazteko aukera ematen baitigute.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

Bat-bateko bertsoa sortzeko mekanismoei buruz III. atalean eginiko deskripzio kritikoari jarraiki, badakigu bertsolariak, bertso bat inprobisatzen ari denean, bost erretorika-kanonei dagozkien egiteko guztiak betetzen dituela, ohartuki zein ez. Atal hartan adierazi bezala, egokiro antolatatu beharreko “pieza erretorikoa” da bertso bakoitza bertsolariarentzat. Hitzaldi autonomoa balitz bezala ekiten dio bertsolariak bertso bakoitzari, bertso hori batzuetan beste diskurtso-unitate handiago baten (bertsoaldi baten, saio oso baten) atala izan daitekeen arren. Hala eta guztiz ere, berezko diskurtso-unitatea da bertso bakoitza, eta bertso bakoitzean ikusi eta aztertu behar dugu beraz nolako bereizgarriak dituen bost erretorika-kanon horietako bakoitzak bat-bateko bertsolaritzan.

3.3 Inventioa bat-bateko bertsolaritzan

Argudio egokiak inguratzea (dauden lekutik ekartzea, edo asmatzea) da *inventioa*.

⁵⁶ Ibidem.

Bestalde, bertsolariak bere xedea (entzuleengan emozioak sorraraztea, aurkariaren ikuspuntuari aurre egitea, bere ikuspuntua indartzea, eta abar) lortzeko erabiltzen dituen eduki eta erreferentzia oro har genitzake “argudiotzat”.

“Egokia”, erretorikaren osagarri guztiak bezala, unean unekoaren araberrako balioa erlatiboa da. Entzuleria jakin batek egokitzen jotzen duen argudioa da erretorikan argudio egokia, ez baitago kontu horretan ere berezko egokitasunik. Horrek ez du esan nahi bertsolariak bere ikuspuntuei muzin egin behar dienik beti, bai ordea gogoan eduki behar duela aurrean duen entzuleriaren oinarritzko abiapuntua. Inguru-testu edo giro homogeneousko bertsolaritzan apenas arazorik sortzen duen horrek, bertsolariak eta entzuleek bat baitituzte hein handian ikuspuntuak, balioak eta argudioak. Halaz ere, azken bi hamarraldietako bertsolaritzan, arazo nagusietako bat da bertsolariak egiaz uste duenaren eta entzuleengana iritsi ahal izateko senak esateko agintzen dionaren arteko tentsioa:

| Aurrean nor daukaan, hari eragin behar diok, onean edo txarrean, zuzenean edo zeharka. Hik emateko daukaana eta haren jasotzeko gaitasuna. Bien arteko tentsioa duk bertsoa, bertsolariaren lanik zailena. Morrontza? Ez, komunikazioaren legea. Hirera gehiegi makurtzen bahaiz, ez duk komunikatzen; harenera gehiegi makurtzen bahaiz, ez diok ezer interesgarrikerik eragiten.⁵⁷

Beste edozein generok bezala, bere erreferentzia-esparrua itxuratzen du bat-bateko bertsolaritzak. Egunoroko bizitzan edo beste genero batean, sinesgaitzak direlarik, onartu ezin diren gaiak, egoki-egokiak gerta daitezke erreferentzia-esparru horren barruan. Erretorika epidiktikoaren genero gisa definitu dugu bat-bateko bertsolaritza, baina horrek ez du esan nahi bertsolarien arte-dimentsioa adibidez eliza, parlamentu edo epaitegietako oratoriarena baino handiagoa denik. Bestela esanda, gai-

⁵⁷ GARZIA, Joxerra. *Jon Sarasua bertso-ispiluan barrena*. Irun: Alberdania, 1998, 48. or.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

jartzailerik gabeko saioetan ere, paper bat “jokatzen” du bertsolariak. Haren funtzioa ez da argi eta garbi zuzenean persuaditzea, beste erretrika-generoetan gertatzen den bezala, generoaren arte eta josteta izaerak baldintzatu egiten baitute persuasioaren izaera. Azkenaldi honetan, saio berezi batzuetan nagusiki, hain da baldintzatzeko maila hori handia, non bertsolariak apenas duen bere ahotsa zabaltzeko aukerarik; halatan, Sarasuak aipatzen zuen tentsioa galdu egiten da horrelakoetan ia guztiz, eta bertsolaritza arte emankizun hutsa bilakatzeko arriskua ez dago oso apartean. Honenbestez, bertso-jaialdiek arreta eta ospe guztia berekin zutela urte batzuk eman ondoan, biziki azkartu da azken urteotan bertsolariek horren baldintzaturik ari behar ez duten saio moten aldeko joera (saio libreak, mahaiondokoak, eta abar).

Aristotelesek, Perelmanek eta beste autore batzuek xehe-xehe aztertu dituzte argudio eta argudiabide motak, haien gogo-antolakuntza eta haien bideragarritasuna. “Leku komunetara” (*topoi, loci*) loturik ageri zaigu *inventio*aren teoria. Argudio zehatzak aterako diren “argudio-eskema formalak” dira “leku komun” horiek:

| Balio eta hierarkiei oinarri bat ematea edo balio eta hierarkiokiko atxikimendua areagotzea denean kontua, jardunbide egokia izan liteke balio eta hierarkiok beste balio eta hierarkia batzuekin lotzea. Baina bada beste bide bat ere: sendotu nahi diren balio eta hierarkiok maila orokorrago premisekin lotzea, alegia. Guk *leku komun*, *Topoi*, esango diegu premisa orokorroi, eta hor dago Tropikoen (arrazoibide dialektikoari buruzko tratatuen) jatorria.⁵⁸

Topoi hauen izatea kontuan harturik, guk nahiago dugu “argudio-hobi” ematea “topoi” horren ordain. Argudio-hobi edo topoi horiek bi muturre-

58 PERELMAN, C., y OLBRECHTS-TYTECA, L. *Traité de l'argumentation: La nouvelle rhétorique*. Bruxelles: Editions de l'Institut de Sociologie, 1976 [1958], 112. or. Editions de l'Université de Bruxelles.

ko antitesi-egitura dute, eta historiako garai bakoitzak joera du antitesi horren mutur bata edo bestea lehenesteko. Erromantizismoa, esate baterako, beste garai batzuetan ez bezala, alde ilunaren eta behin-behinekoaren aldera lerratzen da, alde iraunkor betikoa baztertu ondoan. Perelmanek dioen bezala, garai bakoitzak egiten dituen aukeren katalogo batek garai horren beraren kosmobisioaren deskripzio bikaina eskainiko luke:

| Gizarte jakin batek lehenesten dituen balio zehatzen berri emanik, ezin zehatzago ezaugarritzen da gizarte hori, baina argudio-hobien biko antitetiko horietako bakoitzari gizarte horrek duen atxikimenduaren handitxia ere irizpide egokia da gizarte hori ezaugarritzeko.⁵⁹

Argudio-hobi horietatik ateratzen da argumentazioaren lehengaia, ondoren Perelmanek eta beste autore batzuek hain ongi deskribatu dituzten argudio-egituratan agerian nahiz gordean artikulatzen direnak.

Bertsolaritzari dagokionez, gauza gehienak bezala, egiteke dago oraindik ere ikerketa hori. Oso azterketa gutxi, eta elkarren arteko loturarik gabe, egin dira gai honen gainean; aipagarria da, emaitza horien artean, txikiaren lehentasuna handiaren aurrean, maila moralean bederen. Normala, bestalde, gurea bezalako herrian. “Gehiago gara; beraz, irabaziko dugu” esanez, Perelmanek agintari frantses baten ahotan ipini zuen entimemaren aurrean, bertsolaritzaren ohiko argudioa izan da, adibidez, “ez dugu arrazoirik, gutxi garelako”. Ezer gutxi da gai honi buruz idatzi dena: argudioetarako trebetasuna bertsolariaren berezkoztat hartu ohi da, baduzu edo ez duzu, berezkoak agintzen du horretan. Bertso-eskoletan ere, partaide bakoitzaren berezkoaren esku uzten den alderdia da hau, eta bertso-eskola gehienetan bertsoaren alderdi teknikoetan paratu ohi da arreta, bertsoaren eraikuntzan. Izan ere, behin eta berriz esan behar izan dugun bezala, bat-bateko bertsolaritza ez da

59 Ibidem, 114 or.

oraindaino ganoraz ikertu. Harrigarria benetan, bere unibertsitatea duen herri batean, filologoak eta komunikologoak irakurleak baino gehiago diren herri batean.

Ikerketa ezean, senak adierazten digu, ordea, inventioan, bertsolarien jardun eta argudio-bideetan bilatu behar direla, hain zuzen ere, bat-bateko bertsolaritzaren gakoak, hala bakar lanean ari direnean nola beste batekin lehian ari direnean ere.

Bertsozale Elkarteak gonbidatuta, 1997ko bertsolarien txapelketa zuzenean bizi ondoren, Maximiano Traperok, *decimista* eta *trovero*en kantuzko inprobisazioaren ikertzaile handiak, modu miresgarrian jaso zuen argudioa dela bertsolaritzaren funtsezko izaera:

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

...bertsolarien arteak argudioa du oinarri nagusi, bertso bakoitzaren apaindura baino areago; horregatik egon beharra dago bertso bakoitza bukatu arteraino inprobisazioaren emaitza poetikoak osotoro jaso ahal izateko. Bertsolariei proposatzen zaizkien gaiek poeta-sena ere eskatzen dute, baina baita arrazoibide logikorako eta argudiorako gaitasuna ere. Argudiabidea, izan ere, baliagotsuago baita argudioak modu original eta harrigarrian formulatzen direnean.⁶⁰

Bat-bateko bertsolaritzak ikerketa mailan duen defizit handia soluziobidean jarri nahi izanez gero, ez litzateke batere desegokia *inventio*aren alderdi hau, bertsolarien argudiatze-estrategiak, aztertuz hasiko bagina, horixe baita, itxura guztien arabera, bertsolarien inprobisazio-artearen funtsezko alderdia. Horixe da, era berean, bertsolaritzaren eta inprobisazioaren beste agerraldi batzuen arteko alde nagusia —hor daude, esate baterako, *decimista* eta *trovero* hispanoamerikarrak—, garrantzitsuagoak baitira azken hauengan alderdi poetikoak.

⁶⁰ TRAPERO, Maximiano. Un campeonato de bertsolaris. *Las Provincias*, 1998-1-1, 37. or.

Bestalde, argi eta garbi esan dezagun, antzinateko hizlariak eta egungo komunikatzaile gehienek ez bezala, bat-bateko bertsolariak segundo gutxi batzuk baizik ez ditu argudio egokiekin topo egiteko. Ez da aski kasu bakoitzerako argudio egokiak aurkitzeko gaitasuna. Azkar aurkitzeko gaitasuna ere behar da.

Denborarik ezak guztiz mugatzen du bat-bateko bertsolariaren jarduna, baina, horren ordainez, genero ez inprobisatuetan nekez erabil daitezkeen baliabideak eskaintzen dizkio bertsolariari bat-bateko jardunak. Bertsolaritzaren komunikazio-ekintza osatzen duten testuz kanpoko osagarriez ari gara, jakina. Besteak beste, honako alderdi hauen bidez osa dezake bertsolariak bere arrazoibidea:

- Egoerari loturiko erreferentziak (lagun bertsolariak, entzuleak, saioa egiten ari den lekua eta eguna...).
- Erabiltzen dituen doinuak, kontuan harturik, bertsozaleen gogoan, testu bati lotuak daudela horietako gehienak. Doinu egokian kantatuz gero, harekin batean datorren testuaren ebokazioak hitzez dioen baino gehiago adierazteko aukera ematen dio bertsolariari: doinuak ziurtatuko du berak esango ez duen testu bat entzuleen gogotik ez aldentzea. Hortik aurrera, bi aukera ditu bertsolariak. Lehenengo aukeraren arabera, une horretan kantaturiko diskurtsoaren indargarri gisa erabiliko du ebokazioa (sehaska-kanta baten doinua erabiliko du, esate baterako, gaiaren arabera seme-alaba bat oheratu ondoan ipuin bat konta diezaiola eskatu badiote). Bigarren aukera errazago lotzen da egungo bertsolaritzaren izaera urrutiratuzalearekin. Doinuaren ebokazioa kontrasterako erabil baitezake bertsolariak, hitzez kantatzen ari den diskurtsoaren antitesi gisa (lehenengo doinu bera —sehaska kantu batena—, esate baterako, politikari batek hauteskunde-mitin batean betetzen duen papera jokatzeke erabil dezake).
- Kantuaren kadentziak, ahotsaren indarra, erritmoa.
- Keinuak, aieruak eta jarrerak.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

Ikus daitekeen bezala, ez da beti erraza *inventioari* eta *elocutioari* dagozkien egitekoak bereiztea. Izan ere, hemen egin ditugun kontsiderazio batzuk errepikatu beharko ditugu aurrerago, *elocutioari* eta *actioari* buruzko ataletan. Ez da hori batere bitxia, erretorikaren bost kanonen arteko bereizketa, arestian adierazi dugun bezala, “osotasun erretoriko bakar baten osagaiak bereiz, ikertu eta aztertze” aukera ematen duen metodologia mailako bereizketa baizik ez baita. Egia bada beste ezein erretorika-generotan bost kanonak aldi berean eta elkarri etengabe eraginez lantzen eta garatzen direla, are egiagoa da hori bat-bateko bertsolaritzaren kasuan, denboraren larriaz segundo gutxi batzuetan egin behar baitu bertsolariak bere lan erretoriko osoa.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat



Mañukorta eta I. Elortza Fuente: XDZ

3.4 Dispositioa eta bat-bateko bertsolaritza

Argudioak ordena egokian paratu eta antolatzeari esaten zaio *dispositio*.

Bat-bateko bertsolaritzari dagokionez, bi maila bereizten dira *dispositioaren* aplikazioan. Ikusi dugun bezala, diskurtso-unitate bat da bertso bakoitza, eta horixe da aintzat hartu beharreko lehen maila: bertso bakar bati aplikaturiko *dispositioa*. Batzuetan, bertso bat baino gehiago dituzten segmentuetan ere aplikatzen da (bertsoaldi bat, edo baita saio puska zabalagoak ere). Nolanahi ere, diskurtso-unitate zabalagoren baten osagarri denean ere, bat-bateko bertsoak ez du bere berbaldi izaera inoiz galtzen.

A | *Dispositioa bertso bakarreko diskurtsoetan*

III. atalean ikusi dugun bezala, inprobisazioaren berezko baldintzek agintzen diote bertsolariari oro har nabarmen aldatuko ez den diskurtso-egitura bati atxikitzea. Bertsoaren bukaeran etorriko da argudio nagusia, bertsolariaren aburuz eraginkorrena, egoki formulatu eta beharreko molde metrikoan jokatu ondian.

Oro har, bertsoaren azken puntua hartu ohi du osorik argudio nagusiaren formulazioak, molde metriko nagusian behinik behin (5/5-8 silaba). Molde txikiaren kasuan, ez da arraroa azken bi puntuak osorik hartzen dituzten argudioekin topo egitea.

Bertsoa laburra bada⁶¹ azken puntua ez gainerako guztia, bertsolariak inprobisazio hutsez moldatu beharreko hori, azken puntuko argudio nagusiaren atariko izan ohi da sarri. Atariko horren egitekoa, berriz,

⁶¹ Bertso handiaren eta txikiaren arteko aldea argi dago muturretan. lau puntu edo gutxiagoko bertsoak txikiak dira, eta bost puntu baino gehiagokoak, berriz, handiak. Arazoa, beti bezala, muga ezartzerakoan dago, muga-eremuetan hain zuzen ere. Kasu honetan, ez da erraza bost puntuko bertsoak erretorikaren ikuspegitik handiak edo txikiak diren zehaztea. Arazoa zera da, ordea: bost puntuko moldea dela, laukoekin batera, bertsolariek sarrien erabiltzen dutena.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

argudio nagusiaren eraginkortasuna ziurtatzea eta indartzea da, dela hari bidea eginez, dela harentzat kontrastean edo antitesian. Beste argudiorik eskaini gabe ere, emaitza onak dituzte honelako bertsoek, egoki lantzen badira. Honen adibide gardena dugu honako bertso hau, Lazkao Txikik kantatua. Mutilzahar porrokatu paradigmaticoa genuen bertsolaria bizitza errealean, eta, fikzioaren kutixiak hala nahita, Ama Guadalupekoaren aurrean ari da otoitzean, Hondarribian:

| Lehenago ere nere denboran
errezo asko eginda,
aspaldi hontan aurkitutzen naiz
andrerik hartu ezinda.
Nik neskazar bat eskatzen dizut,
egongo zera jakinda,
baina zarrikan ez badaukazu
gaztea ere berdin da.⁶²

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

Puntu gehiagoko bertsoetan, ordea, oso zaila da lehorrera onik iristea kantatzen den guztiak bukaera zuzenean prestatzea beste helbururik ez badu, gaitzeko lana baita entzulearen arretari horren luzaroan erne eustea, bertso mota hauek eskatzen duten moduan. Konplexuagoa delarik, bertso luzeak bestelako estrategiak ere behar ditu, baita barne-tentsio handiagoa ere, berehala ikusiko dugun bezala.

Ikuspuntu teknikoaren aldetik, argudio nagusia formulatzerakoan, silaba kopuruari ez ezik, azken hitzari ere erreparatu behar dio, hitz horrek ezarriko baitio errima. Einbesteko zaio, beraz, esan behar duena esateko behar adina errima-hitz eskainiko dizkion errima hautatzea. Hortik aurrera, inprobisazio hutsean aukeratutako puntu-hitzen arabera moldatuko ditu bertsoa osatzeko erabiliko dituen gainerako argudioak. Hala-

⁶² LAZKAO TXIKI. Amabirjinari andregai eske. DORRONSORO, Joanito. *Bertsotan II 1936-1980*. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea, 1988, 133. or.

tan, argudio nagusiaren hautapenak (*inventio*) bere formulazioa baldintzatzen du (*elocutio*), baina formulazio honen arabera dira, era berean, gainerako argudioak (*inventio*) eta bertsoaren egitura (*dispositio*). Bertsoa lantzeko dituen segundo gutxi horietan, bertsolariak, kantatzen hasi aurretik:

(1) Gogora datozkion argudioen artean, bere ustez egokiena aukeratzen du, gaiaren, egoeraren, egokituriko paperaren edo aurrean duen entzule-riaren arabera. *Inventio*.

(2) Egokiro formulatzen du azken argudio hori, hau da: (a) aukeraturiko molde metrikora behartuko du argudioa, (b) formulazioaren azken hitza bereziki zainduko du, behar bezalako behar adina errima-hitz aukeran jarriko dizkion errimako hitza izan dadin, eta (c), baldintza horiek guztiak kontuan hartu ondoan, ahalik eta egokien formulatzen du, hautaturiko argudioak bere komunikazio-indar guztia izan dezan. *Elocutio*.

(3) Gogora datozkion oinen artean, bere senez aukeratzen ditu bukaera erabakia duen bertsoa osatuko duten oinak. *Inventio*.

(4) Aukeraturiko oinak gogoan antolatzen ditu, diskurtso ahalik eta koherenteena eta osoena bilbatzeko egokientzat jo duen ordenan, kontuan harturik betiere dagoeneko ezagutzen duela bere diskurtsoaren bukaera edo errematea. Bertsoaren antolatze eta egituratze lan hori osorik burura daiteke kantatzen hasi aurretik, edo zati batean bakarrik (azkenaurreko oina hautaturik soil-soilik), gainerakoa inprobisazio hutsaren menean utziz. *Dispositio*.

(5) Bere memorian finkatzen ditu (a) bertsoaren bukaera, egokiro formulatua dagoeneko, eta (b) aukeratu eta antolaturiko oinek diskurtsoarako eskaintzen dioten oinarrizko eskema.

Orduan hasten da bertsolaria kantatzen, bertsoa ahalik eta egokien osa-

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

tzen, landu duen bukaera, azken errematea, ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Bukaera horretara iritsi ahal izateko, puntuz puntu (etapaz etapa) egiten du bertsolariak bidea (bertsoa), saiatuz betiere egin beharreko ibilbide osoa begi-bistatik ez galtzen. Diskurtso txiki bat da, nola-bait, puntu bakoitza, bertsolariak eskala txikian jardun erretoriko guztia errepikatu behar izaten duen azpi-diskurtsoa.

Bi fase ditu bertsolariak bertso bakoitzean bideratzen duen *dispositio* lanak:

- Aldez aurreko fasean (kantatzen hasi aurretik), arestian (3) eta (4) puntuetan azaldu duguna da bertsolariaren *dispositio* lana.
- Inprobisazio hutseko fasean, aldiz, *dispositio* lanak gogoan edukitzen du batez ere oinak ez errepikatzea, hau da, poto ez egitea, kosta ahala kosta saihestu beharreko katastrofetzat hartua baita potoa. Izan ere, gure ustez saihestu nahi diren ustezko huts handi horiek baino askoz ere hanka-sartze izugarriagoak egiten dira askotan poto ez egiteagatik. Errima-hitza puntuan sintaktikoki josi beharrean, errima-hitza besterik gabe eranstea da poto ez egitearren sarri egiten den hankasartze gure ustez larriago horietako bat. Beste batzuetan, berriz, sintaxiaren arauak ez ezik gramatikarenak —eta are logikarenak berararenak ere— hausten dira, potoaren ihesi.

Inprobisazio hutseko fase honetan, arazo beharbada larriagoei egin behar die aurre bertsolariak. Bereziki, (a) jardunean ari dela bertsoa egoki osatzeko argudioak bilatu beharko ditu, ondoren (b) molde metrikoan egokitu behar ditu argudioak, eta (c) egoki formulatu behar ditu banan-banan guztiak. Ez da, beraz, komenigarria bertsolariak *dispositio* lanetan halako indarra eta arreta erabil ditzan. Aldez aurreko fasean bertsoaren egitura osatu duen heinean landu beharko du *dispositio*a inprobisazio hutseko fasean. Halatan, aurreko fasean egitura guztiz aurreratu badu, indar eta arreta betean ekin ahal izango dio bertsolariak argudioen inprobisa-

zioari eta bertsoa osatzeko behar dituen formulazioei.

Adierazi dugun hau guztia egia da bereziki bertso luzeen kasuan. Izan ere, bertso laburretan jardun ahala bidera dezake bertsolariak haien egitura. Oroimenari eta ofizioari esker, bertsolariak neke handirik gabe eraman dezake erabili beharreko errima-hitzen eta dagoeneko erabili dituen kontaduria, baina lan hori zailagoa da bost puntutik gorako bertsoetan, eta ezinbesteko ditu orduan bertsolariak *dispositio* lanean inprobisaturiko zatia antolatu eta arrazionaltzeko estrategiak.

Bat-bateko bertsolaritzan, berria da bertso luzeen erabilera. 1980. urte aldera azaldu zen bertso luzeak erabiltzeko joera, eta arian-arian zabaldu zen 1980. eta 1990. urteetan. 1967ko txapelketan, eta aurrekoetan, lau puntuko bertsoak kantatu zituzten beti bertsolariek, eta antolatzaileek eskatuta baizik ez zituzten bertso luzeagoak kantatu, gogoz kontra gainera. Hona hemen, egoera horren erakusgarri, 1959ko azaroaren 9an, Eibarren ospatu zen Gipuzkoako txapelketan gertatu zena. Une jakin batean, antolatzaileek bederatziko txikian —bederatziko puntuko bertsoa da molde metriko txikikoa— aritzeko eskatu zieten bertsolariei. Uztapidek, gerokoan Euskal Herriko txapela hiru aldiz jantziko zuen bertsolariak, ezetz eta ezetz, berak ez zuela horrelakorik egingo adierazi zien, eta haren bidetik jo zuten beste bertsolariek, batek izan ezik, bertso molde horretan aritzea onartu baitzuen Mitxelenak. Biharamunean, txapelketa hartan parte hartu ez zuen bertsolari bat, Basarri, “intsumisoen” alde azaldu zen egunkariko bere asteko kronikan:

| Bederatziko puntuko bertso-moldearen mekanismo bihurria ezagutzen dudalarik, garbi dago horrelakorik eskatzerik ez dagoela inola ere. Bertsolarietako batek bakarrik erabili zuen azkenik molde hori, hala nahi izan zuelako, jakina, epai-mahaiak atzera egin baitzuen, bederatzikoan ordez lau puntuko bertsoak kantatzeko agindua emanik.

Bederatzikoarekin ausartu zen bertsolari bakar horrek, berriz, hasi bai, hasi zuen bertsoa, eta baita bukatu ere, baina eman zitzaion gaia aipatu ere egin gabe, eta ganorazko deus ere esan gabe.⁶³

1980. urtetik aurrera hasi ziren bertsolariak beren borondatez bertso luzeagotan aritzen. Urte hartako txapelketan, bere gogoko bertso moldea hauta zezakeen ariketetan, bost puntuko bertsotan jardun zuten bertsolari ia guztiek. 1993ko txapelketetan, zazpi puntukoa izan zen bertso molde erabiliena eta ez zen urte batzuk lehenago Basarrik gaitzetsi zuen bederatziko txiki horren haritik abiatuko zen bertsolaririk falta izan.

Garai berriko erretorikarako gaitasunean bilatu beharko dugu berriz ere aldaketa honen arrazoa. Ez da bertsolarien apetak ekarritako zer bait. Gero eta bertsozale gehiago dagoen neurrian eta egoera politikoa gero eta zatituagoa den heinean, bertsolariak jardun beharreko giroa edo ingurutestua aldiz eta heterogeneoagoa da, eta testuaren bidez bete behar du erreferentzia komun galera gero eta handiagoak sorrarazitako hutsunea. Garrantzi handiagoa du honenbestez testuak, konplexuagotu ere egiten da arian-arian, eta bertso luzeagoen beharra sentitzen du bertsolariak.

Alabaina, bost puntutik gorako bertsoen kasuan, ez da batere gomendagarria, arestian ikusi dugun bezala, *dispositio* lan guztia inprobisazioaren esku uztea. Egun bertsolariak, bertso mota hauetan ohitua den aldetik, ataka horretatik aise ateratzeko bidea eskaintzen dioten estrategia kontziente batzuk garatu ditu horretarako. Bertsolariaren *dispositio* lanaren osagarriak dira estrategia horiek. Egungo bertsolaritzaren eta 1980. urte aurreko bertsolaritzaren arteko banalerro nabarmenetako bat zehaztu du haien erabilerak.

Arazoa ez da potoa egitea saihestera mugatzen. III. atalean ikusi dugun

⁶³ ETXEZARRETA, J.M. *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*. Oiarzun: Sendoa, 1993, 161. or. Auspoaren Sail Nagusia.

bezala, kosta ahala kosta saihestu nahi dute bertsolariek formulazioen monotonía, eta kosta ahala kosta lortu nahi dute, halaber, entzuleek bertsoaren bitartean arreta eta interesa gal ez ditzaten.

Hona hemen egungo bertsolariak honelako bertsoetan erabiltzen dituen estrategia nagusiak:

- Errima familiak hierarkia jakin baten arabera antolatu (errimen aukera, ikus III. atala).
- Bertsoa puntua baino atal edo segmentu handiagotan zatikatu, segmentu bakoitzari funtzio erretoriko jakin bat egokituz.

Argi ikus daitezke estrategia hauek arestian aipatu dugun bertso batean. Andoni Egañak 1994an, Luis Ocañaren heriotza zela-eta, onduriko bertsoa dugu.

| Geure buruen txontxongillo ta
sari besteren **titere**,
ustez antuxun ginanak ere
bihurtzen gara **titare**;
Luis Ocaña hor joana zaigu
isilik bezin suabe:
pistola bat parez pare,
zigilurik jarri gabe,
ez lore ta ez aldare;
baina inortxo ez asaldu,
egin zazute mesede,
askatasunak mugarik ez du
heriotz orduan ere.⁶⁴

Bertso honetan ere, dena dago azken puntua buru duen osotasun erretorikoaren arabera antolatua, baina ukazina da gaiaren aurreko urruntze-

⁶⁴ *Bapatean 94*. Donostia: EHBE, 1995, 216. or.

tartea askoz ere handiagoa dela molde honetako bertsoetan laburragoetan baino, arestian aipatu Lazkao Txikiren bertso horretan ikusi dugun bezala. Egungo bertsolaritzaren berezko ezaugarria da urruntze hori. Hainbat segmentu erretoriko bereiz daitezke Egañaren bertsoan:

- Lehen segmentua, aurreneko bi puntuek osatua, bi oinak metaforen bidez adierazirik ageri dituena. Haren egitekoa, bukaerari bide egitea baino, esparru batean kokatzea da, urrunetik abiatu ondoren betiere. “Titere” eta “txontxongillo” hitzek geure patuaz dugun kontrol eza iradokitzen digute. Ideia hori sakontzen du titare hitzak, ttipitasunaren ñabardura erantsi ondoan.
- Bigarren segmentua, hurrengo lau puntuek osatzen dutena. Haien bidez, ustezko suizidioaren deskripzio ia zinematografikoa bideratu du bertsolariak, arreta xehetasunetara eramanez.
- Oihu bat dator ondoren, aurreko guztia bukaerarekin elkartzen duen lokarri gisa. “Mesede” oina gorde du horretarako bertsolariak, lotura hori aise egin ahal izateko, hain zuzen ere.
- Ideia nagusiak bururatzen du bertsoa. Kantatzen hasi aurretik osatu du bertsolariak haren formulazioa.

III. atalean ikusi dugun bezala, egoera batzuetan bertsolariak ezin du jokatu arauaren arabera, ariketaren mekanikak horretarako betarik ematen ez diolako. Hori dugu hasierako puntua emanda, puntuka eta, neurri batean, binaka egiten diren ariketen kasua.

Halaz ere, azpimarratzekoa da argudio nagusia azkeneko puntuan azaldu behar duelako araua hausteko joera sumatzen hasia dela egungo bertsolaritzan, baita arestian aipaturiko egokieretan ere. Hona hemen adibide batzuk:

- Formula erretoriko batez bete du bertsolariak bertsoaren azkeneko puntua, aurrez esan duen guztia espresuki indartzeko, gorago, Amurizak aitari kantatutako bertsoetan ikusi dugun bezala. Amurizak berak 1980ko

final hartan bertan, “gizakia ez da ogiz bakarrik bizi” gaian kantatu zituen bertso ezagunak ere egokiak dira esan nahi duguna adierazteko. Hona hemen haietako bat (bertsoaldiko lehena):

| Gai horrek badu mamia
baldin ez banago gor;
hainbat jende gizaseme
ikusten ari naiz hor.
Ogiaz gain gizonari
anitz gauza zaio zor,
bestela mundu hontara
hobe ez gaitezen sor.
Ogiakin justizia
behar dugu derrigor ...
hau sinisten ez duenik
ba al da hemen inor?⁶⁵

- Doinuak azkeneko puntua errepikatzeko aukera eskaintzen dionean (hala puntu osoa nola zati bat), egungo bertsolariak maiz baliatzen du errepika behar zuen hori aurrez esandakoaren esanahia aldatzen duen bira txikia egiteko.
- Orain berri, azken puntua emanda egiten den ariketa klasikoak aldaera bat ezagutu du, bukatu ondoan bertsoari kontraerrematea emateko joera horri erantzunez. Izan ere, hondarreko puntua emanda egiten den ariketa horren ondoan, azkenaurreko puntua emanda ere kantatu behar izan dute bertsolariek azkenaldi honetako txapelketetan.

B | *Dispositioa bertso bi edo gehiagoko diskurtsoetan*

Inprobisatzen duen bertso bakoitzean ezinbestez bideratu behar dituen

⁶⁵ Bertsolari txapelketa nagusia (Donostia, 1980-1-6). Tolosa: Auspoa, 1980, 80. or. Auspoa 141.

inventio eta *dispositio* lan erretorikoez gainera, bertsoa baino diskurtso-unitate zabalagoak antolatzen ditu bertsolariak egoera batzuetan bere egiteko erretorikoaren barnean. Honelakorik egiten den aldi gutxi horietan, bertso bakoitza, bere diskurtso-izaera galdu gabe, diskurtso-segmentu bilakatzen den (makro)diskurtsoa sorrarazten da antolabide horri esker. Bertsoaldi oso bat izaten da eskuarki, makrodiskurtsoaren tanke-ra hartzen duena.

Gaia entzun eta lehenengo bertsoa kantatzen hasi bitarteko segundo gutxi horiek baino ez ditu bertsolariak horrelako makrodiskurtsoak antolatzeko. Hala eta guztiz ere, bertsolariak ezin die denbora-tarte hori guztia makrodiskurtsoaren egituraren antolatzelanei eskaini, arreta eta denbora eskatzen baitu era berean kantatu behar duen lehenengo bertsoak, aurreko epigrafean ikusi dugun bezala. Gauzak horrela, bertsoz bertso lanera mugatu ohi da, jeneralean, bertsolariaren jarduna. Ez da harritzekoa:

| Bertso bakarraz gairikoa estrategiei dagokienez, oso gutxitan izaten dugu buru-argitasunik eta patxadarik hain ur sakonetan murgiltzeko. Arriskutsuegia ere izan liteke, gainera. Nahi ez dela ere, bertso bakoitzak indarra galtzen du horrela jokatzuz gero. Eta hirugarren bertso-rako prestatu dugunak ez badu gero uste bezala funtzionatzen, orduan zer?⁶⁶

Hala eta guztiz ere, bertso bi edo gehiago hartzen dituzten makrodiskurtsoak antolatzeko desafioa onartzen dute bertsolariek behin baino gehiagotan. Egañak aipatzen zituen gogo argiaz eta odol hotzaz gainera, ezin bestekoa da inolaz ere bertsolariak diskurtsoa guztiz kontrola dezan. Hau da, jakin behar du gutxienik zenbat bertso kantatu behar dituen bertso-

⁶⁶ Andoni Egaña, elakarriketa berezia in GARZIA, Joxerra. *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetico-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa*. Leioa: EHU, 2000, 213. or. Dokortze Tesiak.

aldian, eta datu hori honako bi kasuetan baizik ez da jakiten:

- Gaia emanda bakar lanean ari behar duenean (gai-jartzaileak ez badio adierazi, berak erabakitzen du zenbat bertso kantatuko dituen), eta
- Txapelketetako elkarren aurkako saioetan, aurrez zehazten baita horietan kantatu beharreko bertso kopurua. Txapelketetatik kanpora gisa honetan egiten diren saioetan, bertsolarien esku dago bertsoaldi bakoitza noiz bukatu. Halatan, aldezkopuru jakin bat hitzartu ez bada, bertsolariak inoiz ez du seguru jakingo, diskurtsoari bukaera emateko argudioa kantatu ondoan, aldameneko bertsolariak ez ote dion beste bertso batez erantzungo. Hala izatera, kantuan segitu beharko du, berak bere diskurtsoa bukatutzat ematen zuen arren.

Txapelketetako saioetan ere, bertsoaldia makrodiskurtso gisa antolatu duen bertsolariak beti izango du bere bertsoak kantukidearenekin behar bezala ez lotzeko arriskua, makrodiskurtsoaren egitura oso eskematikoa eta, beraz, lan bata bestearekin lotu ahal izateko behar bezain malgudenean izan ezik.

Honen guztiaren adibide dugu Aritz Lopategiren eta Andoni Egañaren arteko saio bat (Algorta, 1999ko ekaina). Robot bertsolaria zen orduko hartan Egaña, Lopategik eginga hain zuzen ere, eta gaia entzun orduko, estrategia bakar bat asmatu zuen bertsoaldi osoari begira. Estrategia haren arabera, “Aizu, jaun Aritz” esaldiaz hasiko zituen kantatu beharreko bertso guztiak, bertsoaldia honenbestez bukatzeko xedean:

| Bikaina dugu jenio honen
programaketa guztia,
baina pena da bertso den-denak
“Aizu, jaun Aritz” hastia.

Oinarri-oinarrizkoa izan zen Egañak bertsoaldi honetarako antolatu zuen egitura anaforikoa, eta arazo handirik gabe eutsi zion horrenbestez. Aldi

berean, gogo eta arreta guztia jarri zuen, bertsoaren gainerako ataletan, aurkariari egoki erantzuteko. Agerikoa da, hala eta guztiz ere, arriskua: Zer gertatuko ote zen, azken bertsoa kantatu ondoan, Lopategik kantari segitzea erabakiz gero?

Ikusiak ikusi, ez da batere harrizkoa bertsolarien jardunean makrodiskurtsoak araua baino salbuespena izatea.

3.5 Elocutioa: funtzio poetikoa bat-bateko bertsolaritzan

Diskurtso erretorikorako argudioak egoki formulatzea da *elocutio*aren egitekoa. *Elocutio* da, beraz, poetikaren lekua osotasun erretorikoaren barruan. Ikusi dugun bezala, handiagoa da *elocutio*aren garrantzia genero epidiktikoan, bat-bateko bertsolaritza egokitu dugun generoan hain zuzen ere, gainerako erretorika-generoetan baino.

Egiteko erretorikoaren alderdi honen gehiegizko nagusikeria dugu erretorikaren kontrako ospe historikoaren sorburua. Aplikazio praktikorik gabe, eskola-ariketa hutsa izatera behartua, erretorikak baztertuz joan zen *inventio*aren eta, neurri txikiagoan, *dispositio*aren alorretako alderdiak eta garrantzia formulazioen distirari baino ematen ez zitzaion artifizio bihurtu zen denboraren joanean. Horregatik du egun ere erretorikak halako “hitz-jario hutsalaren” konnotazioa, 'erretolikaren' usaina alegia.

Elokuentzia, eskolako lau hormetara kondenaturik, jendaurreko hitz jario huts bilakatu zen, arauak buruz ikasi beste xederik gabe⁶⁷.

Elocutio, ordu arte egitasmo erretoriko osoaren atal bat baino ez baitzen, beregain bihurtu zen, bere alde praktikoa guztiz galdurik (jarduera politiko, judizial eta epidiktikoan ez baitzen areago erabiltzen). Hala, poesiaren alorrerantz lerratu zen gero eta gehiago, diskurtso mota guztietan —nola prosan hala poesian— bere legea ezarri.

⁶⁷ MEADOR, P.A. (1983), 162. or.

Erretorika-poetika bikoaren lehen osagaia sinekdoke bat da berez, osotasuna izendatzen baitu (erretorika) haren zati bat adierazteko (*elocutio*aren teoria).

Zati horrek, ordea, gaina hartu die gainerako guztiei, eta, hizkera arruntean, jakintzagai osoa izendatzeko erabiltzen da. Antonomasiaren adibidetzat ere jo liteke, nahi izanez gero: *elocutio*ari dagokion —edo zegokion— aztergaia erretorikaren aztergai behinen bihurtu baita orain.⁶⁸

Ez da harrizkoa Perelmanek eta bestek XX. mende erdialdean erretorikaren omen-berritze alde hasitako lanean, erretorika osoa aldarrikatzea eta, haren mugen barnean, *inventio*ari galdutako garrantzia itzultzeko eta *elocutio* dagozkion mugetan birkokatze ahaleginean bereziki saiatzea.

Bat-bateko bertsolaritza poetikaren generotzat hartuko bagenu, erretorikaren kontrako ospe historikoa sorrarazi zuen oker bera egingo genuke, haren alderdia baino ez dena —*elocutio*, argudioen eta edukien formulazio poetikoa— bertsolaritza osotzat hartuko baikenuke.

Elocutio erretorikaren, kasu honetan bertsolaritzaren, alderdi bat baino ez dela esanik, ez dugu poetikak bertsolaritzaren artean duen garrantzia ukatu nahi. Ikusi dugun bezala, garrantzi hori, halaz ere, garai bakoitzeko bertsolaritzak bizi dituen zirkunstantzia erretorikoen baitan dago. Giroaren homogeneotasuna txikiagoa eta handiagoa izango da testuaren garrantzia, eta testuarenaz batera, poetikarena. Ez dira bat, beraz, testuaren bikaintasun poetikoa eta bertsoaren beraren bikaintasuna, ez ditzagun nahas. Zirkunstantzia jakin batzuetan, pieza erretoriko bikain izan daiteke testu aldetik pobre den bertsoa.

Alderdi biak nahasten badira, bertsolaritza genero erretoriko bat dela ahanzten badugu eta poetika hutsetik, ahozko nahiz idatzizkotik, azter-

⁶⁸ MORTARA-GARAVELLI, Bice. *Manual de retórica*. Madrid: Cátedra,[1988] 1991, 66-67. or.

tzen hasten bagara, emaitzak ez gaituko sekula beteko, azterketa asmo onez eginga bada ere.

Horrelako zerbait gertatu zaio, gure ustez, Juan Mari Lekuonari, XIX. mendeko bertsolari letragabe Udarregiren bertsoak aztertzerakoan. Lehenik, honako konstatazio hau izan da Lekuonaren abiapuntua: bertsolari ona behar zuen Udarregik, hari egokitu baitzioten garai hartan bizi zen eskualdeko “bertso-zerbitzuaren” ardura. Alabaina, Udarregiren bertso ezagunak (bertso diktatuak dira gehienak, ez bete-betean inprobisatuak) ez omen dira, Lekuonaren iritziz, bertsolari handi gisa zuen ospearen adinakoak:

| Ez da Bilintxen bertsogintza, irudimenez jantzia;; ez da P.M. Otañoren sentiberatasuna, euskara garbia bezain herrikoia erabiliz; ez da Iparragirre bezain unibertuala, orduko europarren erromantizismoak hunkitua.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

“Guztiz bestelakoak” iruditzen zaizkio Lekuonari Udarregiren bertsolaritza eta aipatzen dituen bertsolariena, eta hala uste du, uste ere, erretorika bihurtu duelako azterketarako bide bakar:

| Horregatik, usurbildarraren bertsogintza aztertzeko, metodorik egokiena iruditu zaigu esaldiak azterzea, erretorikak eskaintzen dizkigun baliabideak aplikatuz, ikuskatuz.⁶⁹

Aurrez ere adierazia zuen Lekuonak zeinen egokia zen erretorikaren eredu bertsolaritzaren azterketari begira:

| Jendaurreko bertsolaria, poeta eta kantaria ez ezik, hizlaria ere badela esan dugu gorago. Horregatik, bat-bateko ihardunak utzi-ezinezkoa du erretorikaren teknika hau. Baina hau da harrigarria: plazan bertsotan ari denak eginkizun hauek guztiak —batez ere gaia asmatzea, ordenu batean jartzea eta esaera ederrez ematea—, tarterik gabe egin behar dituela, segundo batzuen barruan.⁷⁰

⁶⁹ Ibidem, 382.

⁷⁰ LEKUONA, Juan Mari. *Ahozko Euskal Literatura*. Donostia: Erein, 1982, 125. or.

Miresten dugu Lekuonaren lana, baina erretorikaren alde eginiko adierazpen horiengatik ere —bat gatoz gu ere iritzi horrekin—, baiezen horren ondorio guztiak ez dituela atera iruditzen zaigu guri. Hemen aurkezten ari garen esparru teorikoa Lekuonak iradokitakoaren garapen koherentea baizik ez da neurri handi batean.

Bertsolaria, gure ustez, ez da “poetaz gainera” hizlari. Ez. Hizlari da batez ere, eta, hizlari guztien moduan, gaitasun poetikoa ere behar du izan, nahiz gaitasun hori gehiago edo gutxiago baliatuko duen, unean uneko galdekizun erretorikoen arabera. Udarregiren kasua, salbuespena ez baina arau nagusi dugu ia-ia bertsolaritzan. Balio poetiko handiko obrak ere badiren arren, balioa poetikaren begiez ezin atzeman dakiekeen bertsoz josia dago bertsolaritzaren korpusa.

Hau guztia adierazi ondoan, esan dezagun komenigarria litzatekeela bat-bateko bertsolaritzaren baliabide poetikoak xehe-xehe azterzea, garaien eta bertsolarien arabera. Itxura guztien arabera, garbi dago azterketa horrek dentsitate poetiko handiagoa salatuko lukeela egungo bertsolarien artean 1980. urtetik aurrekoen artean baino, gutxi batzuen artean izan ezik, hala nola Lazkao Txiki eta, batez ere, Xalbadorrenean.

A | *Baliabide poetiko-erretorikoak*

Poetika jakin bat azterteak kasu bakoitzean erabilitako baliabide poetikoak xehe ikertzea eskatzen du oro har, kontuan harturik helburua ez dela azal daitezkeen irudiak eta tropoak besterik gabe katalogatzea, baizik eta

| Gaur egun, erretorika *elocutio*aren alorrean duen egitekoa ez da jadanik taxonomia hutsezkoa: kontua ez da diskurtsoaren estrategia bakoitzarentzat izen bat aurkitzea, sailkapenen sarea horrela etengabe korapilatuz eta hedatuz. Izatekotan, estrategiok argitu eta soilteza da, gaur egun, kontua.⁷¹

⁷¹ Ibidem, 127. or.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

“Azaltzea eta erraztea”. Zera esan nahi du honek gure kasuan, poetikak bat-bateko bertsoak eratzen duen osotasun erretorikoan betetzen duen funtzioaren berri ematea.⁷²

1995ean, ikerketa-lan bati ekin genion bat-bateko bertsolaritzaren baliabide poetiko-erretoriko nagusiak identifikatu eta sailkatzeko. Ikerketa ordura arteko parametro teorikoen barnean abiarazi genuen eta, aurrera segitu baino lehen, hurrenkeran bata bestetik 13 urteko tartea zuten hiru txapelketetako finaletan —1967, 1980 eta 1993koetan— erabilitako baliabide poetikoak katalogatzea deliberatu genuen.

Bertsoen ageriko testura mugatu genuen ikerketa, eta honako lan-hipotesi hauetaz oinarritu ginen hartarako:

- Baliabide poetiko-erretoriko testualen erabilera sistematikoari esker lortuko zuten aztertutako bertsoek komunikazioan inolaz ere izan zuten arrakasta.
- Garai batean eta bestean erabilitako baliabideak bestelakoak izango ziren, hala kopuru nola kalitate aldetik.
- Unean uneko bertsolaritzaren deskripzio hobereana eskainiko zuen garai bakoitzean erabilitako baliabideen katalogo xeheak. Halatan, hiru bertsolaritza motaren deskripzioa eskainiko zigun ikerketak, eta aztertutako hiru lehiaketetako txapelketen arabera pertsonalizatuko genituen garaiak: Uztapide, Amuriza eta Egaña

Testuaren gaineko ikerketa honek, izan ere, argi eta garbi utzi zuen bat-bateko bertsolaritza aztertzeke ordura arte erabili ziren bideak ez zirela egokiak. Izan ere, 1967ko txapelketako finalean kantaturiko bertsoak

⁷² Behar den ikerketa motaren adibide paradigmaticoa da GARZIA, Juan. *Txirritaren Baratzak Nor- teko Trenetik*. Irun: Alberdania, 1997. Lan honetan, Txirrita bertsolariak bere bertso lanean erabili zituen prozedurak aztertu ditu autoreak, bideratu zituen prozedurek eta erabili zituen baliabideek bete zuten funtzioa kontuan harturik betiere. Halarik ere, aztertutako bertso ia guztiak dira bertso ez inprobisatuak eta testura mugatzen da autorearen azterketa.

ikertzerakoan, ustekabe mingotsa izan genuen bertso guztiak, poetika testualaren ikuspuntutik, hutsak zirela konturatu ginenean.

Abiapuntuko gure hipotesiak berretsi beharrean, esparru teoriko osoa berriro aztertzea behartu gintuen ikerketa hark. Lau urteko lana izan da, hemen aurkeztu dugun esparru teorikoa zehaztu artekoa⁷³. Ikuspuntua poetika testual hutsetik ahozko erretorika inprobisatu osora zabaldu eta gero, baliabide poetikorik eza ez da dagoeneko arrazoi aski bat-bateko bertsoak deskalifikatzeko, sortu ziren testuinguruaren arabera epaitu behar baitira.

Komunikazio-giro edo inguru-testua heterogeneoagoa den heinean, luza- tzeke joera dute bertsolariak erabiltzen dituzten bertso moldeak (puntu gehiagoko bertsoak), eta nabarmen emendatzen da, era berean, bertsoen dentsitate poetikoa.

Egungo bertsolaritzan, haren agerraldi formalenetan bederen (jaialdiak, txapelketak, egungo formatu berri horietako batzuk), oso handia izan dai- teke testuen dentsitate poetikoa. Funtzio poetikoa bat-bateko bertsolari- tzaren alderdi nagusia ez izateak ez du esan nahi garrantzi gabeko alder- dia denik. Izan ere, berriro ekin beharko genioke ikerketari, garai bako- itzean erabili diren baliabide poetiko-erretorikoak miatu, katalogatu eta azaltzeko, baina ikerketak bertsolaritzaren baliabide ez testualak ere xedetzat hartu beharko lituzke horretarako.

Egungo bat-bateko bertsolaritzak ez du, printzipioz, inolako baliabide poetiko-erretoriko testualik baztertzen:

| Gramatika bat beraren mende daude ahozkotetasuna eta idatzizkotetasuna, eta erretorika bat beraren mende, orobat.

⁷³ Esparru horren oinarritzko formulazio arrazoitua in GARZIA, Joxerra. *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa*. Leioa: EHU, 2000, Dokto- retza Tesiak.

Aldea, ordea, erabileran eta jardunbidean dago. Ahozkotasanak badu horretan, gure ustez, bere-bereak diren joerak, eta gaude unibertsalak ote diren joerok.⁷⁴

Halarik ere, bi ñabardura behar dituzte baiezipen hauek, oro har haiekin bat gatozen arren.

- Lehenik, ahozko erretorika inprobisatuak, idatzizkoarekin bat dituen baliabide testualez gainera, egoeraren arabera baliabideak ere baditu. Baliabide mota hauek laguntza osagarria baino askoz gehiago dira bertsolariarentzat eta, zirkunstanzia jakin batzuetan, haren estrategia erretorikoen muina ere bihurtzen dira.
- Bigarrenik, bertsolaritzaren ahozko eta bat-bateko izaerak muga batzuk zehazten dizkiote bertsolariari baliabide horiek erabiltzerakoan. Muga horietako batzuk bat dira ahozko agerraldi guztietan. Beste batzuk, ordea, bat-bateko ahozkotasanarenak baino ez dira.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

B | *Estrategia poetikoaren mugak*

Bertsolarien poetikaren mugak bertsolaritzaren ahozko bat-batekotasanaren ondorioz datozenak dira oinarrian. Ikerketa zehatzagoen beharra sumatzen dugun honetan, hona hemen jardunaren izaerak berak bertsolariari bere lan poetikoan ezartzen dizkion mugetako batzuk:

- Gogoan edukirik bertsolariak oso denbora-tarte estuan jokatu behar duela, kontuan harturik hain segundo gutxian bideratu beharreko lanen izaera, ez daitezke jardun horietan oso formulazio landuak espero. Bertsolariak alde aurreko lanaren bidez ekin ahal izango dio beti muga honi. Hau da, formulazioak aurrez landu eta bertso molde egokienetara moldatu ahal izango ditu ondoren. Zentzu honetan, ezertxok ere ez dio eragotziko metafora landuak bezain sakonak erabiltzea. Hala eta guztiz

⁷⁴ ZUMTHOR, Paul. *Introducción a la poesía oral*. Madrid: Taurus, 1991 [1983], 143. or.

ere, kontu handiz jokatu beharko du betiere bertsoa sobera ez kargatze-ko, denborazko mugak bera ez ezik entzuleria ere baldintzatzen baitu. Ulertzen ez den bat-bateko bertsoa, lehen ukaldian emoziorik sorrarazten ez duen bat-bateko bertsoa, ez da bat-bateko bertso on bat, gerokotan, paperera bihurtu eta irakurtzerakoan, testu horrek berak hunki gaitzakeen arren. Bertso ona izango da agian, bikaina ere, baina ez da bat-bateko bertso ona izango. Halatan, bat-bateko bertsoen dentsitate poetikoa guztiz mugatzen du bertsolariaren gaitasunak ez ezik entzulearen harrera-gaitasunak ere.

- Baliabide poetiko-erretoriko batzuk oso konplexuak dira, hala sortzerakoan nola jaso edo hartzerakoan, haien sorrera eta harrera ahoz eta segundo gutxi batzuetan gauzatzen direnean. Oralistek baietz eta baietz esan arren, ezinezkoa da ia onomatopeiak inprobisatzea, aurrez formulatu eta formulen artean egokitze saioak egin ez badira. Beste hainbeste esan genezake metaforei buruz. Naturala denez, bertsolariek gehien erabiltzen dituzten baliabideak ditugu a) bideratzerakoan zailtasun handiegirik ez dutenak, eta b) entzuleak erraz jasotzen dituenak. Honenbestez, ez da batere harrizkoa antitesi eta anafora izatea, alde handiz gainera, bertsolarien testuetan zabalen ageri diren irudiak. Tropoei dagokienez, ikerketa ezean senak gidatuta esan ahal izango dugu nagusi direla metonimian oinarrituriko jardunbideak. Metaforei gagozkielarik, aski topikoak eta fosilduak dira gehien erabiltzen direnak, egungo bertsolariek erabiltzen dituzten errima-estrategia berrien eskutik metafora benetan originalak plazaratu direla esan dezakegun arren.

- Kasu bakoitzean erabilitako hizkera motak ere baldintzatzen du baliabide batzuen aldeko joera, haietako batzuk lehenestea alegia. Baldintza hori are bizkorragoa da kontuan hartzen badugu bertsolaritzan inprobisatu behar izaten direla formulazio gehienak. Orduan, ezinbestez lehenetsiko ditu bertsolariak hizkuntzaren senak berak errazago eskaintzen dizkion baliabideak. Kilikagarria bezain ibili gabea da ikerketa-eremu hau eta, horrenbestez, zuzeneko praktikatik datozen intuizio pare bat

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

baizik ez dugu azalduko gai honen inguruan. Euskararen kasuan, argi eta garbi esan dezagun bidera ezina dela hiperbatona. Bideraezina era berean, baina beste arrazoi batzuegatik, dugu antonomasia. Hitz-joko batzuk, ostera, errazagoak, erabilgarriagoak eta beteagoak dira euskaraz gaztelaniaz edo frantsesez baino. “Zu zaitut biderako argi eta argirako bide”, esate baterako. Konparazioan, euskararen joskerak konparatu beharreko gaia konparaziorako erabiltzen denaren aurretik azaltzea da ohikoena, eta, horrenbestez, hein handia batean galtzen du baliabide horrek ezuste eta eraginkortasun dialektikoari begira duen gaitasuna. Adibidez, gure inguruko erdaretan ez bezala “Hippie baten gorbata baino baztertuago sentitzen naiz” konparazioan, ezustean edo berritasun gisa datorkigun osagaia adierazten dugu aurrena, eta gatzik ez du, horrenbestez, konparazioaren gainerako atalak. Jakina, alderantzizko ordena ere onartzen du zenbaitetan euskarak, baina ez dirudi hori denik berezko joera, eta, gainera, ez da beti bideragarri gertatzen. Badirudi orobat, enfasi negatiboa, litotesa bereziki, erabiltzeko joera askoz nabaria goa dela euskaraz aldameneko hizkuntzetan baino. Izan ere, litotesa dugu, itxuraz, bertsolarien ironiarako estrategia nagusia, antitesia eta anafora diskurtsoa antolatzeke baliabide erabilienak diren bezala. Bestalde, *ateraldiekin* lotu beharra dago inolaz ere bertsolarien gaitasun dialektikoa.

■ Egungo bertsoaritzaren ezaugarriak ditugu, 1980. urte aurrekoaren aldean, hainbat narrazio-ahotsen presentzia eta hainbat erregistroren sorrera kontzientea.

C | Bertsoaritzaren berezko baliabideak

Baliabide poetiko-erretoriko testualez gainera, bestelako baliabideak ditu bertsolariak, beste erretorika-generoetan bideratu ezin direnak. Testutik kanpoko baliabide hauetako batzuk azaldu ere egiten dira beste ahozko genero batzuetan; beste batzuk, ordea, ahozko inprobisazio kantatuarenak baino ez dira.

■ Planoen gainezartzea: Gai bat garatzen ari denean, bertsolariak nahi bezala egin ahal izango du jauzi testuan sortzen ari den fikziozko planotik lanean ari den egiatzko esparruaren planora. Baliabide hau ez da bertsoaritzarena berarena: auto sakramentalak behin eta berriro erabili zuten eta, kurioski, teatro modernoa eta zinema ere baliatu dira hartaz. Baliabide honen aplikazioaren adibide bikaina dugu Amurizak Tolosaldeko Anoetako bertso-saio batean bakar lanean egin zuen bertsoaldi bat. Gai-jartzaileak hala aginduta —Angel Mari Peñagarikano bertsolaria izan zen saio hartako gai-jartzailea—, ipuin bat kontatu behar zion Amurizak bere alaba Mirentxuri, haurra lokar zedin. Hiru bertso hauek kantatu zituen Amurizak, fikziozko planotik kantatzen ari zen esparruko plano errealerara jauzi eginez etengabe

Gaur Anoetan kantuz izan naiz
lehendabiziko aldiz aurten;
aizu, Mirentxu, zuk ez dakizu
han zein bihotz fina duten!
Zure izena kantatu eta
denek txalo jotzen zuten,
ia zeloso ipini naute,
nola hain maite zaituzten!

Gure Mirentxu neska txikiak
aurten dauzka zazpi urte;
nik hori esanda haren begiek
hola klis-klas egin dute.
“Oi, aita, baina herri horretan
zer magia egin dizute?
Nola txaloa joko didate
ezagutzen ez banaute?”

“Zure aita da txit ospetsua
bere lente ta bizarrez;
zu nere haurra izan zintezkeen
ez dute sinesten errez”.
Hitz hoiek esan eta begiak
itxi zaizka berez-berez:
gure Mirentxu ia lo dago,
ez jo txalorik, mesedez.⁷⁵

- Doinua baliabide gisa. Amurizaren adibide horretan berean, doinu bat edo beste bat erabiltzeak badu bere garrantzia erretorikaren aldetik. Zortziko nagusia hautatu zuen Amurizak orduko hartarako, eta bertso molde horretakoak dira, hain zuzen ere, herri kanta asko, sehaska-kanta batzuk tartean. Doinu horietako bat erabilia, bere bertsoen eraginkortasun maila goratzen du zalantzarik gabe bertsolariak, doinuaren eta sehaska-kantaren arteko loturak, besteak beste, fikzioan sortzen ari den eszenaren sinesgarritasuna ziurtatzen baitio. Loturazko konnotazio horretaz gainera, gai lirikoak, narratiboak edo dialektikoak garatzeko egokiak diren edo ez kontuan hartuta sailkatzen dituzte egungo bertsolariek doinuak.
- Ahotsaren eta kantuen modulazioa. Adibide beraren eskutik goazela betiere, doinua egoki kantatua izatea eskatzen du Amurizak sorturiko fikzioak. Ozenegi abestuz gero, gaitzeko arazoak izango ditu bertsolariak eszena sinesgarri egiteko. Kantuz inprobisatzen du bertsolariak. Kantuan aritzen da, baina ez da kantaria. Kantatzerakoan, dena dago gaiak eta egoerak agintzen dizkioten beharkizun erretorikoen mendean: tinbrea, tonua, intentsitatea, erritmoa, etenen kudeatzea... Musikaren kanonen arabera kantatzea ez da beti estrategia ona. Horregatik, solfeora bihurturiko bertsolarien doinuen interpretazio estua ia inoiz ere ez da egokia izaten. Arlo honetan ere, bada oraindik bidea egiteko.
- Gorputzaren mintzoa, keinuak, lehen mailako baliabideak ditugu era

⁷⁵ Bapatean 97. Donostia: EHBE, 1998, 128. or.

berean, deiktikoekin batera. Ikusten ari garen adibide honetan, arrasto garbia utzi dute bigarren bertsoan Amurizak bideraturiko keinuek, bertsolaria kantatzen ari zenean 'klis-klas' egin baitute, 'hola'. Bada, 'hola' horrek Amurizak berak, eszena plastizidadeaz hornitzearen, egin zuen begi-kliskara garamatza ezinbestean. Hiperbolea, metafora edo konparazioa bezalako baliabide testualen bitartez erdiets daiteke plastizidadea, baina zentzugabekeria izango litzateke bertsolariari beste baliabide ez testualen bidez iristeko aukera ukatzea, eta zentzurik ez luke izango, era berean, baliabide ez testualen bitartez lorturiko plastizidadea bigarren mailako plastizidadea dela edo baliabide testualen bidez erdietsitakoa adina merezi ez duela esatea.

D | *Poetika eta erretorika*

Erretorika-poetika bikoaren lehen osagaia sinekdoke bat da berez, osotasuna izendatzen baitu (erretorika) haren zati bat adierazteko (*elocutio*aren teoria).

Zati horrek, ordea, gaina hartu die gainerako guztiei, eta, hizkera arruntan, jakintzagai osoa izendatzeko erabiltzen da. Antonomasiaren adibidetzat ere jo liteke, nahi izanez gero: *elocutio*ari dagokion -edo zegokion- aztergaia erretorikaren aztergai behinen bihurtu baita orain.⁷⁶

Bigarrenez ekarri dugu Mortara-Garavelliren aipamen hau, ezin hobe kiago azaltzen baitu bat-bateko bertsolaritzari buruzko ikerketaren alorrean orain arte gertatu dena, haren araberrako osotasun erretorikoa, hau da, bat-bateko bertsoa, beraren osagarri poetikora, *elocutio*ra, mugatu baita praktikan.

Behin eta berriro esan dugun bezala, beharrezkoa da murrizte-joera horri amaiera ematea, bat-bateko bertsolaritzaren funtsa behar bezala ulertu

⁷⁶ MORTARA-GARAVELLI, Bice. *Manual de retórica*. Madrid: Cátedra,[1988] 1991, 66-67. or.

nahi bada. Honako hau eduki behar dugu gogoan horretarako:

- Aurreko epigrafeetan ikusi dugun bezala, bat-bateko bertsolaritzaren baliabide poetikoak ez dira baliabide testualetara mugatzen.
- Bat-bateko bertsolaritzan, osotasun erretorikoaren arabera eta haren zerbitzuan jokatzeko du beti poetikak.

Bigarren baiezpene honen egiatasuna froga daiteke III. atalean bat-bateko bertsoaren sorrera-jardunari buruz egin dugun deskripzio fenomenologikoa. Honako hau besterik ez dugu erantsiko: baiezpene honek bi ondorio ditu, edo bi aurpegi, eta komenigarria da begien bistatik gal ez ditzagun.

Lehenik, bat-bateko bertso baten dentsitate poetiko apalak ez du ezinbestez bertso horren kalitate eskasa xedatzen. Formulazio baten dentsitate poetikoa baliabide poetikoen presentziaren muntarekin pareka daiteke. Baliabide poetikoak, bestalde, ez dira mintzabide ustez normaletatik urrunago edo hurbilago aldentzen diren mintzabideak. Baliabide poetikoen oinarria dugu, aitzitik, plazaratzen dituzten edukien harrera desautomatizatzeko, hau da, berezi bihurtzeko, gaitasuna. Bestalde, bat-bateko bertso baten dentsitate poetiko handiak ez du ezinbestez haren kalitate ona xedatzen. Aitzitik, bertsoa txartu egin dezake tropo eta irudien metatzeak, lan hori egoki egiten ez bada.

Bat-bateko bertsoa sortzeko modu berezia dela-eta, azken puntua izaten da, oro har, dentsitate poetiko handiena duen bertso-atala, horixe baita bertsolariak, asti ezak sorrarazten duen larriune horretan, arreta gehien opatzen dion bertso-atala. Azken puntu hori da, halaber, gainerako atalen, hau da, bertsolariak inprobisazio hutsean sortzen dituen atalen, erreferentzia-puntua. Halatan, egokiak izango dira bertsoaren komunikaziorako eraginkortasuna, gehienetan azken puntura biltzen dena, indartuko duten baliabide guztiak. Aitzitik, kontrako eragina izango

dute —entzulearen arreta desbideratzen dutelako, gorde beharko lirak tekeen jakinbideak aurreratzen dituztelako edo azken punturako bidea behar bezala zehazten ez dutelako— eraginkortasun hori indartuko ez duten baliabideek.

Erretorika berriek “erraztu eta azaltzearen” aldeko bokazioaz ekin diote *elocutio*aren eremu poetikoari, eta ikuspegi horri jarraiki, interesgarria litzateke Perelmanek baliabide poetikoek, zerbitzatu behar duten osotasun erretorikoaren barnean, bidera ditzaketan funtzioei buruz azalduko burubideetan sakonago murgiltzea. Hiru funtzio bereizten ditu Perelmanek:

- Presentzia. Baliabide batzuk objektu edo gogoaren edukiren baten presentzia indartzeko erabiltzen dira nagusiki. Hiperbolea genduke presentziaren ohiko baliabideetako bat.
- Aukera. Entzulea objektu edo gogo-eduki jakin bat ikuspegi jakin batetik begiratzera behartzea da sail honetako baliabideen egitekoa. Metonimia, haren adiera zabalenean, genduke aukeraren ohiko baliabideetako bat.
- Bat egitea. Baliabideak entzuleen atxikipena lortzeko erabiltzen dira batez ere. Bat egiteko ohiko baliabidea genduke, esate baterako, galdera erretorikoa.

Halaz ere, Perelmanek berak adierazi duen bezala, metodologian arabera baizik ez dira hiru funtzio hauek bereizten. Praktikan, baliabide guztiek betetzen dituzte, neurri txikiagoan edo handiagoan, hiru funtzioak aldi berean. Halako baliabideak halako funtzioa duela esaten delarik, funtzio hori nagusi, ez ordea bakarra eta berezkoa, dela adierazi nahi da.

Hala eta guztiz ere, ez da beti horren erraza baliabide baten funtzio nagusia zein den zehaztea. Metafora da, zentzu honetan, baliabide konplexuenetako bat, sailkatzen zaila. Bestalde, baliabide bakar batean nagusi

gerta daiteke funtzio bat edo beste bat, baliabide hori erabili den diskurtsoaren arabera. Azkenik, funtzio argudio-emailea bete dezakete, halaber, baliabideek. Har dezagun antitesia, esate baterako: Perelmanen iritiz presentziazko baliabide bat da, eta ez du arrazoi falta, baina entimema molde bat ere izan daiteke diskurtsoan.

Epigrafea bukatu aurretik, esan dezagun sailkapena bera baino gehiago interesatzen zaigula Perelmanek baliabide poetikoen azterketari ekin dion modua, diskurtso erretoriko osora zabaldu baitu haien azalpena. Frogatu ahal izan dugun bezala, baliagarritasun handiko ikerbidea da hau benetan, bat-bateko bertsolaritzari aplikatuta.

E | *Laugarren adibide praktikoa: “Afrikako gosea”*

Adibide batez ikus dezagun dena. Jon Sarasuak inprobisaturiko bertsoa da. Gai-jartzaileak galdera modura azaldu zion gaia, Sarasuaren fikziozko anaia gazteago batek egin izan balio bezala. Hona hemen galdera: Zergatik bizi dira goseak Afrikako beltzak?

| Anai txikia, galdera hori
 orain erantzun beharko,
 telebistatik ikuste ituzu
 gosez hiltzen, flako-flako.
 Hori dela-ta sermoi handirik
 hemen ez dizut botako,
 erantzuntxo hau zeure buruan
 gorde zazu gerorako,
 haiek goseak hiltzen baitaude
 zuk gehiegi duzulako.

Bertsoa asmatzeko izan dituen segundoetan, zuzeneko erantzuna bilatu du Sarasuak ustezko anaia txikiaren galderari ihardesteko. Hona hemen gogora etorri zaion ideia: “hirugarren munduko gosea lehen munduko

gehiegizko luxuaren ondorioa da”. Formulazioa landu du ondoren, zaballegi, abstraktuegi, gertatuko baita bestela hala adieraziz gero. Edo, bestela esanda, ideiarene formulazio hori ez da behar bezain poetikoa. Lauegia da, eta haren harrera automatikoa litzateke, ez da emoziorik sortzeko aproposena. Mekanismo metonimikora jo du orduan Sarasuak. Ez du erabiliko duen baliabidearen izena ezagutu behar: aski du bere hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna horretarako. Beste formulazio hau ere erabili ahal izango zuen: “haiek goseak hiltzen daude **guk** gehiegi dugu-lako”, aurrekoa baino askoz zehatzagoa, askoz biribilagoa, poetikagoa. Estuago nahi du ordea azkoina harian, eta anaia txikiaren kargu utzi du beltz afrikarren miseria: “haiek goseak hiltzen daude **zuk** gehiegi duzu-lako”. Desautomatizatu egin du formulazio honek entzuleen harrera. Entzuleak ez du formulazioa hitzez hitz interpretatu behar, berak aurkitu behar du Sarasuak egiaz adierazi nahi izan duena: “alferrik ari gara erru eza bilatu nahian; denok gara hemen hirugarren munduko miseriaren erantzule, baita gure arteko errugabeenak ere”.

Azken ideiarene formulazioa erabaki eta gero, diskurtsoaren buruan egokitzen du bertsolariak, ohi bezala. Bertsoaren alde inprobisatuan, azken puntuaren araberrako “ako” errimak eskaintzen dion jokoaz baliatuko da ondoren. Diskurtsoa koherentziaz taxutzeko aukera emango dioten oinak bilatzen ditu, eta “flako” eta “gerorako” aurkitu ditu haien artean. Halaz ere, hautaturiko bukaerak baldintzatzen du bertsoaren atal inprobisatua, eta ez soil-soilik errima kontuetan. Bukaera horrek egiazko eragina izan dezan, honako hauek beharko ditu, besteak beste, bertsolariak:

- Afrikako beltzen miseria entzuleen gogoan ahalik eta modu grafikoe-nean azal dadin lortzea, hau da, hirugarren munduko miseriaren presentzia haien gogoetan indartzea. Hori egin du bertsoaren bigarren puntuan eta miseria hori guretzat gutxi gorabehera telebistako menuko ikuskizunaren antzeko zerbait dela adierazi ere egin du gainera.
- Anaia txikiaren inozentzia indartu du gero, azken puntuko erru-egoz-

te hori hitzez hitz hartzeko arriskua baitzegoen, bestela. Hori egiteko bide egokiena anaia txikiari zuzenean hitz egitea dela erabaki du Sarasuak, eta beste aukera guztiak alboratu ditu. Txikigarrien erabilerak eta sermoirik egingo ez duelako oharrak lagundu egiten dute, zalantzarik gabe, entzuleei hizketan ari den anaia egiaz adin txikiko haur bat dela erakusten. Azkenaurreko puntuak areagotu egiten du anaia txikiaren inozentzia; izan ere, “gerorako” oinak bide ematen dio anaiari emango dion erantzuna orain ez baina etorkizunean, heltzen denean, ulertuko duela iradokitzeke.

■ Amurizaren “Aita izena kanta beharrak” doinua hautatu zuen Sarasuak kasu hartan eta fikziozko pertsonaiak sinesgarritasuna irabazten duen erregistro hori sortzen lagundu zuen ezbairik gabe. Sarasuak beste doinu batzuk hauta zitzakeen molde metriko berean (hamarreko handia). Doinu haietako asko, berriz, arinegi gertatuko ziren diskurtso harekin batean. Beste batzuk, aldiz, espantu handiegikoak.

Halatan, lan erretoriko inprobisatuak ziurtatu zuen azken puntuaren komunikazio-eraginkortasuna, anaiaren begi-bistako inozentziaren eta Afrikako beltzen miseriaren errua hari egotzi izanaren antitesia indartuz.

Metonimia, antitesia eta **apostrofea** aipatu ditugu, besteak beste, baliabideen artean. Mintzatu gara, halaber, erabilitako erregistroaz. Halaz ere, azterturiko bertsoaren osotasun erretorikoaren barnean betetzen duten funtzioaren arabera, eta ez konstatazio edo katalogo gisa, baloratu ditugu baliabide horiek guztiek. Hori da bat-bateko bertsoari begira proposatzen dugun azterketa mota

F | *Bosgarren adibide praktikoa: “Gerrako zauriak”*

Jesus Mari Irazu izan zen 1997ko txapelketako une hunkigarrireneko baten protagonista. Aste bete lehenago, ordu arte muturturik ibiliak ziren euskal indar politiko batzuek manifestazio bateratu baterako deia egin

zuten finalaren aurreko egunerako. Itxaropena hasia zen itxuratzen: hur-bilago ikusten hasia zen ordura arte horren emaitza lazgarriak eman zituen zirkulu biziotsu baten —“gu demokratok” / “eurak biolentoak” edo “gu egiazko euskaldunak” / “eurak gure herriaren etsaiak”— betiko amaiera. Manifestazio egunaren bezperan, ETAren atentatu batek bertan behera utzarazi zuen manifestazioa, gutxi batzuen bozkariorako eta gehienien zaputzerako.

Finalaren egunean, ez zen ia beste gairik jendearen artean. Arratsaldean, saioa bukatzeaz zegoenean, bakarrik azaldu zen Irazu eszenatokiaren erdian, eta itsuan aukeratu zuen gai-jartzaileak eskaini zizkion bi gaie-tako bat: “Gazte zinenen, gerran horrokatu zinen. Orain, erretiratua dagoeneko, gorputzeko zauriei begira zaude”. Ziztu zorrotzean igarotzen ari dira segundoak. Hamar mila lagun dira Irazu, baina harena bakarrik ahotsa. Jauzi batean bertsoaren beste muturrera, entzuleak dauden alde-
ra, iritsi ahal izateko behar duen abioa hasi da kalkulatzen, zalantzaka. Bertso molde zaila aukeratu du (Xabier Leteren *Habanera*), zortzi sila-bakoak dira puntu guztiak, ez da hori bertsolarien usadioa. Amildegia iragartzen du eten bakoitzak. Lehen bi bertsoak kantatu eta ekin dio hirugarrenari, azkenekoari:

| Nere desioan kontra
aberkide haiei tira,
nork murgildu ninduen ni
hainbesteko sarraskira?

Entzuleak ez daki iraganekoez edo oraingoez ari den. Baina, egun haieta-ko giroan, ez da hasiera hori aurreko asteko gertaerekin lotu ez duen inor.

Denbora-planoa aldatu du halako batean (maiz erabiltzen dute, bestalde, baliabide hau bertsolariek bat-bateko jardunean. Bizitasun eta teatraltasun handia eskaintzen die saioei).

Gerrako iraganetik zaurien orainera eramango gaitu ondoko esaldiak, etorkizunaren gaineko kezkarri sarrera eginez:

| ...Orain hurreratua naiz
jubilazio eztira,
oraindik gogoan daukat
orduko gauen dizdira;
halere barru-barruan
biharko egunan desira,
begiak itxita goxo
etorkizunai begira;
nere zauriak, badakit,
lurpean itxiko dira,
ojala herriarenak
han itxiko ez balira!⁷⁷

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

Hau da, labur azalduta, bat-bateko bertsolaritzaren alderdi poetiko-erretorikoen azterketarako proposatzen dugun ikuspuntua.

Oraindik egin beharreko bidea oso luzea, eta zehaztu beharreko aspektuen zerrenda are luzeagoa, den arren, emankorrak izan dira orain arte eginiko ikerketak, hala bertsolaritzaren kritikaren alorrean, nola eskola-sistemaren barruan bertsolaritzaren aplikazio pedagogikoa aintzat harturik eginiko esperientziei dagokienean.

3.6 Oroimena eta bat-bateko bertsolaritza

Bertsolaritzaren *elocutio*aren eta *actio*aren arteko mugan egokitzen gaituzte azken aipatu ditugun baliabideok. Baina *actio*arekin loturiko gaie-tara iritsi aurretik, ohar egin behar diogu erretorikaren laugarren kano-nari, hau da, oroimenari, kontuan harturik bost kanonen artean bazter-

⁷⁷ Bertsolari Txapelketa Nagusia 97. Donostia: EHBE; Elkarlanean, 1998, 304. or.

tuena dela, *actio*arekin batean:

| ...Gaur egungo teoria erretorikoak joera nabarmena izan du, orain arte, bai *memoria* eta bai *actioa*, biak ala biak, albora utzi, lekutu, aintzat har-tu ez, mugatu, gutxietsi edo/eta oker ulertzeko.⁷⁸

Baztertze honen arrazoia da, zalantzarik gabe, erretorikaren berrikuntza batez ere amaierako mintzabidea idatzia, edo ahozkoa baina idatzizko testuak lagundua, duten generoetan bideratu izana. Arreta berezia egin zaie horrenbestez erretorikaren lehenengo hiru kanonei, azterketa xehe bezain zehatzak eskainita. *Memoria* eta *actioa*, aitzitik, duten garrantzi izugarriari buruzko aldarri handi pare baten kontua baino ez dira, eta ez zaie, ezta hurrik ere, berez legokiekeen garrantzi horren arabera trata-mendurik eskaintzen.

Erretorika klasikoan, aldiz, gailen ageri zaizkigu oroimenari loturiko ar-a-zoak, gugana iritsi diren obra gehienetan ikusi ahal izango dugun beza-la. Ez da batere harritzekoa. Alde batetik, paperik gabe egiten zituzten hizlari klasikoek beren hitzaldiak. Diskurtsoak idatziz prestatzen baziren ere, buruz ikasten ziren ondoren, jendearen aurrean aurkezteko.

Nolanahi ere, Frances A. Yatesek⁷⁹ aipatu bezala, oroimenak erretorika klasikoan betetzen zuen funtzioa ez zen idatziz eginiko hitzaldia buruz ikasi eta gordetzera mugatzen. Autore honen arabera, erretorika klasiko-an, asko eta askotarikoak dira oroimenarekin loturiko alderdiak. Beste-ak beste, honako helburu hauek bete nahi ziren:

- oroimena garatzea,
- edukiak oroimenean grabatzea,
- oroimena ordena baten arabera antolatzea,

⁷⁸ REYNOLDS, J.F. *Rhetorical Memory and Delivery*. London: Lawrence Erlbaum, 1993, 3. or. Obra honetan azaldutako guztia eduki dugu gogoan oroimenari buruzko epigrafe honetan.

⁷⁹ YATES, Frances Amelia. *The Art of Memory*. Chicago: University of Chicago, 1996.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

- edukiak eta egiturak oroitzeko modua lantzea,
- edukiak buruz ikastea,
- edukiak oroimenetik berriro hartzea,
- edukiak hitzaldian bideratzea, eta
- oroimenean betikoz gordetzea.

Autorearen iritziz, erretorika klasikoan *inventio*, *dispositio*, *elocutio* eta *actio*aren funtsezko alderditzat zuten oroimena. Aristotelesen *topoi* edo leku komunak tokia zen, oroz gain, memoria, hau da, *inventio*a osatzen duten argudio-hobi edo eskemak biltzen diren gunea. Baina hori baino askoz ere gehiago da *memoria*. Erretorikaren gainerako kanonen zaindaria da *Erretorika Hereniorrentzat* obraren egilearen aburuz, eta Aristotelesen iritziz, azkenik, *inventio*aren gakoa.

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

Hainbat arlotan azpimarratu dute orain berri oroimenaren garrantzia. Aipagarriak dira horien artetik *Composition Studies* direlakoak, hau da, idazle eta irakurleen prestakuntzarako ikasketak, kultura anglosaxoian hain garrantzitsuak direnak.

Batez ere idatziz gauzatzen den espezialitate batean oroimenak horrenbesteko garrantzia badu, areago izango du bertsolaritzan, ahoz eta bat-batean gauzatzen den zerbait izaki. Orain arte, ordea, espero litekeen apurrena izan da bertsolaritzaren alorrean oroimenari egin zaion arreta, hala ikertzaileen aldetik nola bertso eskoletan. Oroimenaren garrapen egoki batek gutxienez honako lau alderdi hauek hartu beharko lituzke kontuan:

A | Oroimena nemoteknia gisa

Hizlari klasikoek bezala, teknika nemotekniko batzuk bideratu behar ditu bertsolariak egiturak (errima eta argudio sekuentziak), hitzak eta formulazio zehatzak gogoan edukiko baditu.

Teknika nemoteknikoen bitartez, nahi bezala ordenaturiko gune fisikoekin lotzen dira gogoan eduki nahi diren edukiak eta egiturak, erretorikari buruzko obra klasikoetan eta egun oroimena lantzeko plazaratzen diren gidaliburu modernoetan azaltzen den bezala.

Guk dakigularik, behin bakarrik landu da teknika nemotekniko hauen eta bertsolaritzaren arteko lotura, Denis Labordek Jean Louis Harionordoki, Laka, bertsolariari eginiko elkarrizketa batean. *Ethnologie Française* aldizkarian argitaratu zen 1990ean⁸⁰.

Elkarrizketa hartan deskribatu ziren jarduera nemoteknikoen aplikazio praktikoa oso zalantzakoa da bertsolaritzaren kasuan, baina gaitasun horri buruz lehen ikerketa analitikoak egin izana aitortu behar zaio Lakari. Kontuan hartu beharra dago, bertsolariaren berezko gaitasunekin fio egin garela beti, oroimena sistematikoki landu ezin balitz bezala

Marko teoriko berri bat
bat-bateko
bertsolaritzarentzat

B | Oroimena eta gogoangarritasuna

Ongok adierazten duen bezala, nemoteknia hertsiki lotua dago formulazio gogoangarriekin. Bistan denez, errazago oroitzen gara gauza gogoangarriaz gauza arruntez baino. Ongok iritziz, hori da formulak erraz oroitzeko oinarria. Diogun geure aldetik, formulazio bereziki gogoangarriak direla errefrauk eta modismoak, eta formulazioen izaera gogoangarri horrek ziurtatzen duela oroimenaren lana.

Halatan, garbi ikusten ari gara oroimena zuzenean lotzen dela elocutioarekin, hura bizkortu eta gidatzen baitu. Askok errazago gordeko du oroimenak metafora bizi bat, hitz-joko harrigarri bat, antitesi-egitura deigarri bat edo plastizitate handiko hiperbole bat duen mintzabidea, eduki berekoa izanagatik inolako ezaugarri poetikorik ez duena baino.

⁸⁰ LABORDE, Denis. "Tout raccorder et tomber juste". *Ethnologie française*, 20. zenb., 1990eko uztaila-iraila, 308-319. or.

Bertsolariak, kontuan harturik bere lana segundo gutxi batzuetan eta idatzizko testuaren laguntzarik gabe bete behar duela, errazago berreskuratuko ditu, gogoangarriak diren heinean, une bakoitzean behar dituen formulazioak.

C | Oroimena datu-base gisa

Beste euskarririk ez duenez, oroimenaren laguntza bakarraz bete behar du bertsolariak bere lan erretorikoa. Oroimenean egokitu dituen leku komunetan bilatuko ditu une bakoitzean behar dituen argudio egokiak. Oroimena da, beraz, bertsolariaren *inventio* lan guztiaren oinarria.

Bi oroimen mota bereizten ziren erretorika klasikoan, berezkoa eta artifiziala, eta egun ere egiten da bereizkuntza hori, etekin handia atereaz, konposiziorako ikasketa modernoetan. Leku komunak, erreferentzia orokorrak, bertsolari bakoitzaren *background* guztia, lirateke haren berezko oroimenaren osagai nagusiak. Aldiz, bertsoaren azken puntuaren, erri-men eta haien ordenaren, formulazio egokien, buruz ikastea genituzke haren oroimen artifizialaren osagaiak.

Oroimen artifizial hori da, hain zuzen ere, bertsolariaren egitekoari heretikien lotzen zaiona, baita kontziente eta sistematikoki landu eta hobetu daitekeena ere.

Berezko oroimenaren eta oroimen artifizialaren arteko bereizkuntzarekin batean, epe laburreko eta epe luzeko oroimenak bereizten dituzte adituek. Antza denez, estiloaren itxuratze jardunean (*elocutio*) hartzen du zuzenean parte epe laburreko oroimenak; epe luzeko oroimenak, aldiz, eragin handiago du ideia eta egituren kudeatze eta antolatze jardunetan.

Hirugarren bereizkuntza baten beharra iradoki dute, azkenik, autore batzuek, eta norberaren oroimena edo oroimen indibiduala bereizten dute oroimen kolektibo edo kulturaletik:

Erretorika aditu klasikoek informazioa giza-memorian metatu eta informazio hori handik berreskuratze bideak asmatu ohi zituzten gisa berean, gaur egungo erretorika adituek liburuetan, liburutegietan eta ordenagailuetan metatutako informazioa berreskuratze bideak asmatu behar dituzte.⁸¹

D | Oroimena eta psikologia

Eskola-sistemak oroimena gehiegian landu eta erabili zuen garai baten ondoren, badirudi oraingo joera oroimena eskolatik kanpo uztea dela. Ulertzea, esaten dute, da garrantzitsuena. Gazteek ez dute oroimenean ezer ere gorde behar, aski dute gauzak ulertuta.

Oroimenaren abusua kondengarria bada, berebat esan behar dugu haren kontrako joerari buruz, konposiziorako ikasketa modernoetan agerian utzi duten bezala. Izan ere, aski frogatua dirudi oroimenak zuzeneko ondorioak dituela gizabanakoen psikologian, eta ondorio horiek eragin handia dutela pertsonen ezagumenaren neuropsikologian eta kontzientzia psikologikoaren osaran.

Fedro dialogoko pasarte batean (274c-277a), Theuth eta Thamusen mitoa kontatu zuen Platonek. Pasarte hartan, aurkikunde asko erakutsi zizkion Theuthek Thamusi, honek guzti-guztiak onartu ondoan, beharreko saria jasotzearen. Mitoaren arabera, Theuthen aurkikundearen artean zeuden kalkulua, geometria, astronomia, dama-jokoa, dadoak, eta letrak. Azken asmakari hau Thamusi aurkezterakoan, Theuthek idazketak “egip-toarrak jakintsuagoak eta oroimentsuagoak” bihurtuko zituela adierazi zion, “oroimenaren eta jakinduriaren sendagarria bailitzan asmatu baita”. Halaz ere, Thamusek erantzun eta letren asmakari horrek Theuthek egokituriko ezaugarrien kontrako eragina izango zuela ikusarazi zion: “Ahanztura sorraraziko baitute ikasiko dituztenen gogoan, ez baitira oroimenaz

81 REYNOLDS, J.F. *Rhetorical Memory and Delivery*. London: Lawrence Erlbaum, 1993, 11. or.

arduratuko; izan ere, idatzizkoari fidagarritasuna emanaz, kanpotik helduko diote oroitzapenari, gogo arrotzen bitartez, ez barrutik, beren baitatik abiatu, beren buruari segituz”.

Informatika eta telematika tresneria berriak mila bider areagotu ditu Platonen mitoak idazketari erantsitako arriskuak. Informazio mota oro betetan eduki dezakegu egun, eta, horren ondorioz, egungo eskolak oroimena guztiz baztertu duela kontuan harturik, bizia da barne oroimena gabeko gizabanakoak, hau da, konfigurazio psikologiko egonkorrik gabeko gizabanakoak, prestatzeko arriskua

Dagoeneko suma daitezke egituratzerik ez honen lehenengo ondorioak hizlari eta idazle gazteenen estiloan eta gazteen artean arrakasta gehien duten kultura produktuetan, hala idatzizkoak nola ikus-entzunezkoak. Raffaele Simonek, iradokizunez beteriko obra batean, komunikazioaren hirugarren fase historikoa aipatu du gai honi buruz ari dela: fase horretan, zera da hizkeraren ezaugarri nagusia, “hizkera ez proposizionala”, hau da, hizkera funtsean generikoa, orokorra, zehaztasunik gabea, espazioan eta denboran errorik ez duena. Halatan, egiturarik gabeko testua da hirugarren fase honetako berezko testua, “egitura oro, hala osagaien hierarkiari dagokiona nola sintaktikoa eta testuala, arbuiatzen duen testua”.

P. Coelhoen obrak aipatzen ditu Simonek idazketa honen paradigma gisa; haren iritziz, zehaztasun eta egiturarik gabeko estilo orokor horrek ekarri du obra horien arrakasta, horixe baita, azken finean, gazteen artean gailen dabilen estiloa.

Geure aldetik esan dezagun joera hori beste eremu batzuetan ere nabarmentzen hasia dela. Aski bedi gazteen artean harrera zabalena duten kazeta-testuak zer motatakoak diren ikustea (kirol kazetak, eta abar), edo zein diren publizitate pieza arrakastatsuenak (*Budweiser*-en “What's up?” iragarkia), edo entzule kopuru handien duten telesailak, edo harre-

ra handien duten irrati saioak. Simonek aipaturiko hizkera eta testu mota horiei dagozkien guztiak, teknologia berrietako berezko testuak ez aipatzearen: Interneteko chat edo berriketa-guneak, edo soineko telefonoen S.M.S. delakoa.

Diskurtsoa, barruko hierarkia baten arabera antolaturiko hizketa-unitate konplexu hori, galbidean dago. Haren orde, egiturarik gabeko formen aldeko joera nabari daiteke, bereizgarri gabeko collage orokor itxuragabearen aldeko joera.

Diskurtsoaren egiturarik-ez hori gizabanakoen egiturarik-ez psikologikoarekin lotu beharra dago gure ustez eta honen sorburuen artean dago, ez bairik gabe, egun memoriari dagozkion kontuetan gailendu den axolagabekeria.

Zentzu honetan, terapia egokia izan liteke bertsolaritza, eskola sisteman sartuz gero. Gure hezkuntza sistemako gaitz batzuk goxatuko genituzke, eta ez da gutxi.

3.7 Actioa eta bat-bateko bertsolaritza

Diskurtsoaren emanaldiarekin berarekin loturiko guztiaz arduratzen da *actioa*. Erretorika klasikoan, diskurtsoaren mintzotik kanpoko osagaiak —keinuak, mugimendua, ahotsaren tonua eta intentsitatea, etenen kudeatzea, eta abar— aztertzen ziren gunea zen *actioa*. Erretorikaren artearen funtsezko aldea zen hau, ahoz gauzatzen baitziren diskurtsoak, hitzaldiak, idatzi eta buruz ikasi eta gero.

Erretorikak, idatziz plazaratzen diren generoez arduratzen denean, ia guztiz bazterten ditu *actioari* dagozkion alderdi guztiak, eta beste hainbeste gertatu zen XX. mende erdialdean erretorika berpiztu zuten autore aitzindarienean ere, berpizte horretan erretorika klasiko osoa aldarrikatu zuten arren. Erretorika osoa berrezartzeak esan nahi du maila berbe-

ra aitortu eta eskaini behar zaiola bost kanonetako bakoitzari, eta bukaera eman behar zaiola, horrenbestez, *elocutio*aren nagusikeriari. Kasu gehienetan, ordea, erretorikaren osotasunaren aldeko aldarria handikiro eginiko aitopen hutsala baino ez da hori. Oro har, *memoriak* eta *actioak* lan erretorikoan duten garrantziaren aldarrikapen handi hori bera izaten da kanon horiei egiten zaien aipamen bakarra, obraren gainerakoan *inventioa*, *dispositioa* eta *elocutioa* xehe-xehe aztertzen diren bitartean.

Bat-bateko bertsolaritzaren kasuan, berebiziko garrantzia dute *actio*arekin loturiko baliabideak bertsolariak arrakasta lortuko badu bere komunikazioan. Testu bikaineko bertso bat entzule guztien oharkabean igaroko da, agian, bertsolariak egoki kantatzen ez badu. Arestian adierazi dugun bezala, “egoki kantatzea” ez da, bertsolaritzan, kantuaren edo solfeoaren arauen arabera kantatzea. Aitzitik, beste baliabide erretoriko bat da bertsoa kantatzeko era. Inprobisatu eta kantatu beharreko diskurtsoak egoki gauzatzeko trebetasunaren baitan dago bertsolariaren arrakasta. Alderdi batzuk ditu honek, bertsolaritzaren *actio*aren osagarriak:

- Argia behar du dikzioak eta entzuleek ezagutzeko moduan interpretatu behar da doinua. Jakina da hau guztia, alde zuzeneko betebeharra den aldetik. Bertsolari batzuek ofizioa utzi behar izan dute, oinarrizko afinazio batera iristeko gai ez zirelako. Egungo bertsolaritzak, gainera, doinu kopuru handia du ezaugarri. Ez zen, antza, aurreko garaietako bertsolaritzan horrelakorik gertatzen
- Ahotsaren tinbrea eta intentsitatea. Saio bakoitzak eskatzen du bere tinbrea eta bere intentsitatea, egokiak beti. Aurrerapen teknikoer esker, egun edozein ahots entzun daitekeen arren, ezin da kantatu intentsitate berean mahaiondoko saio batean, berrogeita hamar bat entzuleren aurrean eta txapelketa bateko finalean, 10.000 lagunek leporaino bete duten esparru batean. Bestalde, gaiaren arabera behar du, halaber, intentsitateak.
- Erritmoa eta pausen kudeatzea. Kantuz inprobisatzen du bertsolariak,

baina ez da kantaria. Bertsolaria une bakoitzean inprobisatzen ari den bertsoaren premia erretorikoen arabera izango da doinuaren erritmoa, eta bertsolariak erabili beharreko baliabidea ere bada horrenbestez. Arestian adierazi dugun bezala, bertsolarien doinuen solfeo-transkripzioak urrun daude oso bertsolariak doinu horiek kantatzen dituen era zuzen islatzetik. Bertsolarien arteko esaera batek dioenez, ongiegi kantatzen duena ezin daiteke bertsolari ona izan. Honenbestez zera adierazi nahi izaten dute: bertsolariak ezin duela bere burua doinuaren barne erritmoaren mendean utzi, berak ezarri behar dizkiola doinuari une bakoitzean komeni diren erritmoa eta etenak. Bertsolari onaren ofizioaren adierazlea da, hain zuzen ere, erritmoaren menderatze erretorikoa. Bertsolari gazteek, bertsoaren alde inprobisatua ahal bezala landu eta osatu ondoan, erritmo biziagoan kantatu ohi dute oroimenean gordetako zatia (azken puntua), bukaerara iritsitakoan sentitu duten lasaitasuna adierazi nahi balute bezala. Ofizioko bertsolaria, ordea, bereziki saiaturiko da noiz ari den inprobisatzen eta noiz ez agerian ez uzten.

- *A capella* kantatuz inprobisatzen dute bertsolariek, ezein musika tresnaren laguntzarik gabe. Bada soiltasun horretan zuzendu beharreko akatsa ikusten duenik, beste inprobisatzaile batzuek beren kantua edertzeko erabiltzen duten musika-tresna giro aberatsa hurbiletik ezagutu eta gero batez ere. Bertsolariek eta beste kultura batzuetako inprobisatzaileek batera eginiko saioetan, aldiz, entzule gehienek, bertsoen testua ez ulertu arren, generoaren aberastasun erantsi gisa, eta ez akats gisa, jaso dute bertsolaritzaren musika-soiltasun hori. Bertsolaritzaren alorrean, bat-bateko jarduna baino, gomendagarriagoa da, itxura guztien arabera, bat-bateko jardunetatik kanpo produkzioa musikaz lagunduta aurkeztea
- Gorputzaren mintzoa. Bertsolariak gorputzaren mintzatzeko aukerez baliatu ez dela egiten esan ohi da, eta egia handia dago seguruenik baiezpen horretan. Salbuespen gutxi batzuk izan ezik, bertsolariak ez ditu espantua maite, ez da inolako keinu biziren zale. Zutik (edo jarririk), mikrofonoaren atzeko lubakian egokitzen da, jarrera estatiko samarrean.

Gaia entzun eta kantatzen hasi bitarteko tartea izaten da keinu-dentsitate biziena. Keinuko mekanikoak dira, behin eta berriro errepikatzen direnak, eta urduritasunak eraginiko tikak dira espresiorako baliabideak baino areago (mikrofono-oina zapaldu, zutitu, mikrofonoa altueran egokitu, marranta-hotsak, gorputz-balantzaren bat agian... eta ezer gutxi gehiago). Liturgia bete ondoan, bere ohiko jarreran azaldu ohi da bertsolaria: eskuen gunea da bereizgarri handiena. Aurpegi-mimika oso apurra da, halakoa izan da, behintzat, orain arte. Telebista agertu ondoan, une jakin batean keinu egoki batek eduki dezakeen eraginkortasunaz ohartu dira bertsolariak. Saio handietan, ordea, bertsolariaren eta entzuleen arteko tarreak baliorik gabe uzten ditu bertsolarien mimo-estrategiak.

■ Apurra da, era berean, eszenografia bertsolarien saioetan: bertsolari hainbat aulki paratzen dira oholza gainean, bizpahiru mikrofono eta, batzuetan, oihal bat edo pankarta bat izaten dute hondoan, lore batzuk agian bazterretan. Azkenaldi honetan, halako obsesioa zabaldu da bertsolarien eta antolatzaileen artean, bertso-saioetan beste osagarri eszenografiko batzuen beharra azpimarratuz. Ahaleginak ere egin dira hainbatetan, arrakastatsuagoak batzuk besteak baino, saioak dramaturgia ukitu batez hornitzeko. Orain arte egin diren esperientzietan, garbi ikusi da zaila bezain konplexua dela elementu horien eta bat-bateko bertsoaren arteko lotura. Dramaturgia zabal lantzen bada, biziki mugatzen da bertsoaren eremua, gidoiak hala agintzen duelako. Gomendagarriak iruditzen zaizkigu, printzipioz, esperimentazio horiek guztiak, saioan bideratuko den horren izaera eta baldintzak ongi kontuan hartzen badira. Bat-bateko bertsolaritzak, eszena-artearen baden aldetik, gogoazabal jokatu behar du dramaturgia berrien ekarrien aurrean, ekarri interesgarriak onartu eta bere eremuan esperimentatzeko moduan egon dadin. Gure ustez, kantu bidezko inprobisazioaren aukerak sustatuko dituen oro da interesgarria bat-bateko bertsolaritzarentzat. Ikuspuntu honetatik jokatzeko gero, on deritzogu esperimentazio orori. Hala ez egitera, gure iriziz, biziagoa izango da ustez hobetu nahi den artea kanpoko apaingai-

luez itozteko arriskua.

■ Bat-bateko bertsolaritzaren telebista bidezko emanaldiei dagokienez, argi eta garbi esan dezagun, eginiko lorpenak ukaezinak diren arren, urrun gaudela oraindik telebistako *actio*aren arabera arazoei egokiro erantzutetik. Esan dezagun, bidenabar, errealizazio eta eszenografiarekin loturiko alderdi guztiak hartu behar direla telebistako bat-bateko bertsolaritza den genero hibrido bezain konplexuaren *actio*aren osagarritzat, osagarri erantsitatzat, nahi bada, baina osagarritzat azken finean. Gehiago zehazterik ez dugunez, balio beza aurreko epigrafetxoan saioetako eszenografiari buruz adierazitakoak, bat-bateko bertsolaritzaren telebista-tratamendu egoki bati begira kontsideratu behar liratekeen kontuen orientabidetzat.

3.8 Azken burubidea

Azkenaldi honetan, bateratze bidean aitzinatuak ditugu, inoiz ez bezala, ahozko eta idatzizko mintzabideak:

- Telebista eta irratia ahoz gauzatzen dira, baina idatzitako gidoi batek eusten dio gehienetan ahozko diskurtsoari.
- Idatzizko formatu tradizionalenetan, liburuetan edo prentsa idatzian, izugarri garatu dira tipografia eta diseinuaren aukerak teknologia berriei esker, halako eran non diseinu grafikoa *actio*aren diskurtso idatziaren aplikazio esparrua dela esan baitezakegu nahasteko beldurrik gabe.
- Bestalde, komunikabide berri batzuetan (posta elektronikoa, chat delakoa, SMS, eta abar), idatziz gauzatzen diren arren, orain arte ahoz-kotasunaren berezko ezaugarritzat hartu diren estrategien arabera dira diskurtsoak (sorrera eta transmisioa aldi berekoak, elkarreraginera-ko aukerak, egituratze maila apurra).

Halatan, inoiz baino zalantzazkoagoa da oralistek ahozko eta idatzizko mintzabideen artean egiten duten goitik beheko bereizkuntza. Alderdi

eztabaidagarrienetako bat da ahozko mintzabidearen eta egiturarik ezaren arteko identifikazioa, aditu askok espresuki edo zeharka defendatzen dutena. Ikusi dugun bezala, diskurtso kontzientea eta aski egituratua da bat-bateko bertsoa, egitura horrek, ikusi dugun bezala, generoaren ahozko izaera inprobisatuaren arabera mugak dituen arren.

Nolanahi ere, ahozko mintzabide mota batzuen bereizgarri nagusia izan liteke diskurtsoaren egiturarik eza (berriketa informala, kirol edo gizarte gertakarien zuzeneko emanaldia, eta abar), baina inolaz ere ez da ahozko mintzabide ororen bereizgarri nagusia. Bat-bateko bertsolaritzak —haren izaera azaltzen saiatu gara obra honetan— garbi asko erakusten du ahoz-kotasunak ez duela ezinbestez diskurtsoa egiturarik gabe uzten.

Irizpide egokia izan daiteke diskurtsoa ahoz edo idatziz sortua den kontuan hartzea, baina ez da hori nahikoa genero erretorikoen izaera zehazterakoan. Egungo molde erretoriko guztiak egoki sailkatzeko, gutxienez honako aspektu hauek hartu beharko liriateke kontuan:

- Sorbidea: ahoz / idatzi.
- Sorbidea: inprobisatua / ez inprobisatua.
- Egitura maila, diskurtsoa berez egokitzen den generoak zehaztua batez ere.
- Gauzatzeko era: ahoz / ahoz euskarri baten laguntzaz / idatziz.
- Gauzatzeko era: bat-batean / sortu ostean.

Aspektu hauek guztiak konbinatuta, egoki sailkatuko genituzke egun modu askotan dabilzan diskurtsoak, eta agerian geratuko liriateke elkarren antzak eta aldeak.

Bat-bateko bertsoa, esate baterako, ahoz, kantuz eta bat-batean sortu, bere izaera erretoriko-epidiktikoaren arabera egituratu, eta idatzizko testuaren laguntzarik gabe sortu ahala gauzaturiko diskurtso gisa sailkatuko genuke.

Tipifikazio honek ematen digu bat-bateko bertsolaritzaren eta beste diskurtso molde batzuen arteko erlazio konplexuak atzemateko aukera. Hona hemen bertsolaritzaren kidetzat har litezkeen diskurtso molde batzuk.

- Berriketa informala. Bertsolaritzaren kasuan bezala, bat-batean ahoz sorturiko diskurtso molde bat da, sortu orduko gauzatzen dena. Bertsolaritzaren aldean, berezitasun handi bat du, kanturik gabeko diskurtsoa izateaz gainera: ahulagoa da haren egitura, diskurtso molde honen helburua ez baita erretorikoa, ez baitu erakarri nahi.
- *Chat*. Bertsoaren antzera, bat-batean inprobisaturiko diskurtsoa da, sortu orduko gauzatzen dena. Zer da haren bereizgarri handiena, idatziz sortua eta gauzatua dela. Aurrerapen teknologikoei esker, orain arte ahoz-kotasunak zituen berezko ezaugarri batzuetaz —horien artekoak ditugu bat-batekotasuna eta sortu orduko gauzatu izatea— jabetu da idazketa, inork horrelakorik espero ez zuela. Gure ustez, askoz emaitza oparoagoak izango ditugu ikuspuntu honetatik abiatuta, idatziz sorturiko testu batzuen ahozko izaera azpimarratuz tematuta baino. Egitura mailari dagokionez, berriketa informaletik hurbilago dago chata bat-bateko bertsoa baino. Hori horrela, guk “blaga” proposatuko genuke euskal ordaintzat.
- SMS. *Chat*aren oso antzeko diskurtso moldea da. Zera da aldea, egungo teknologiak 162 karaktereko muga zehaztu diola oraingoz zerbitzu honi. Ezaugarri honek gogora ekartzen dizkigu, neurri batean, bertsolariak aurre egin beharreko mugak. Halarik ere, beharra bertute bilakatzen du bertsolariak eta muturreraino eramaten ditu bere diskurtsoak eskaintzen dizkion baliabideak. SMSetan, aldiz, espazio-mugak erretorikoak baino mekanikoak diruditen estrategien bidez gainditzen dira (bokalik gabeko testuak, ortografia arauen bazterketa, eta abar) eta fonazioaren aurreko garaietara, edo antzinako Egiptoko idazketa hieroglifikora, itzultzeko mehatxua dakarkigute besterik gabe.

■ *E-mail*. Steve Morrisek iradokizunez beteriko liburu batean⁸² komentatzen duenez, muturretan alde batetik gutun klasikoa eta bestetik kafe-makinaren ondoko berriketa informala lituzkeen *continuum* hipotetiko batean enpresako E-mailen estiloa kontuan hartu beharko balitz, askoz hurbilago egokitu beharko liriateke horiek kafe-makinaren ondoko berriketatik ohiko gutun komertzialetatik baino. Bereizi beharko liriateke, jakina, e-mailen enpresa-erabilera eta norberarena, hurbilago egokituko bailizateke kasu honetan chatetik. e-mailen erabilera formalenari dagokionez —hau da, hain zuzen ere, Morrisek aztertu duena— elkarren kontrarrean erabili ditu, gure iritziz, autoreak. Enpresako e-mailen berezko estiloa gutun komertzialarena baino bat-bateko berriketaren antz handiagoa duela adierazi eta gero, e-mailok eraginkortasunez (enpresaren onurarako, alegia) erabiltzeko arauak aurkezten ditu autoreak. Burualde eta despedida egokiak nola idatzi behar diren, zer nolako hizketa-erregistro erabili eta zer erregistro saihestu, testuaren joskerak eta egiturak nolako behar duten eta nolako ez duten inola ere behar... dira, besteak beste, autoreak aipatzen dituen kontuak. Enpresako e-mail hauek sortzeko baldintza erretorikoak ez dira, gure ustez, bat-bateko bertsolariak bere jardunean dituen baldintzez oso bestelakoak: astirik eza, egitura eraginkor bat inprobisatu beharra, aurrez landuriko osagaien erabilera, eta abar.

Asko dira diskurtsoaren pobretze gero eta larriagoaz ohartarazi gaituzten ahotsak. Gure ustez, pobretze hau ez da diskurtsoaren berezko ezaugarria, ezta saihestezina ere. Zera da, izan ere: lan erretoriko-diskurtsiborako gaitasun eza, gabezia ikaragarria inolaz ere. Familia gunea hizketarako eskola gisa guztiz hondatu den honetan, begi-bistakoa da eskola sistemak gazteenen diskurtsorako gaitasun ezaren aurrean ageri duen ezina. Dagoeneko aipatu ditugu, SMSetan hieroglifikoetara suma daitekeen atzerapausoari buruz ari ginela, erretorikarako, komunikaziorako, ezintasun horren sintoma batzuk. Ezin aipatu gabe utzi, ordea, aje bizian gauz-

⁸² MORRIS, Steve. *Perfect E-mail*. London: Random House, 2000.

kan gaitz horren beste sintoma bat. Chat eta e-mail informalenetako marrazkitxo edo zeinu berriei buruz ari gara, noski, *emoticon* direlakoez. Idatzizko testuaren ertzeetan kokatutako karikatura-ikur grafiko hauen bitartez konpondu nahi da, antza denez, testuaren bidez emozioak sortzeko ageri dugun ezin gero eta nabarmenagoa. Diskurtsoa ez baita berez hartzailearengan emozioa sorrarazteko gauza, sorrarazi nahi lukeen emozioaren berri ematen dio, ikurtxo hauen bidez, igorleak hartzaileari. Telebistak ohi dituen erdipurdiko komedietan bezala: *offeko* irri batzuek adierazten diote ikusleari noiz egin behar duen irribarre, noiz barrez leher gaizto egin ere.

Pairatzen ari garen komunikazio-ezin horren aurrean, bertsolariaren gaitasun erretorikoak segundo gutxi batzuetan sortzen du, bat-batean inprobisatuz, ahozko diskurtso egituratu bat. Balio handiko gaitasuna da hau, gure ustez, baita bertsolaritzatik kanpoko alor batzuetan ere, eta horien artean dauzkagu teknologia berrien eraginez sortu diren komunikabide berriak. Euskal Herriko eskola sistemak gaitasun erretorikorako tresna ezin hobea duke bertsolaritza. Gehiegizko luxua litzateke aukera hori alferrik galtzea, komunikazioa, diotenez, ia guztiaren gakoa eta ia ate guztiak irekitzen dituen giltza den honetan.

